



Ainara Fresneda eta Joseba Iturbide libre → 31

Herriko bestak

Arizkunen, Erratzun, Donezteben eta Saldiasen

IGANTZI → 33

Sanjuan Xar Eguna ekainaren 24an

LEITZA → 46

Sagardo Eguna larunbat honetan

BAZTAN → 51

Nafarroako kopa eta ligan txapeldun BKTko kadeteak

SARA → 56

Portuako artisau eremu haunditua inauguratua

Olatz GARMENDIA | Donamariako komentuko moja

«Komentu barruan ere gauzak aldatu egin dira eta orain askoz ere gehiago ateratzen gara»

Apirilaren 20an mende erdia bete zuten mojek Donamarian eta ospakizun handia egin zuten maiatzaren 15 eta 16ko asteburuan, kontzertuarekin eta herri bazkariarekin.

ELKARRIZKETA → 3



ZUGARRAMURDI → 54

Sorginaren eguna ekainaren 19an

Jarduera interesgarri bete-betea antolatuta dute Sorginaren Egunaren III. edizioa, goizean hasi eta gaueraino.



N-121A errepideak duen 'puntu beltzetako' bat Sunbilla parean dago. Nafarroako Gobernuak arazo honi aterabide egokia eman diezaion eskatuz, mobilizazioak hasi dituzte sunbildarrek. Ekainaren 3an egin zuten lehena eta, aurrerantzean, hilabetero denbora batez bidea itxiko dutela iragarri dute.

→ 36

Sunbillako bidegurutzearentzat aterabide egokiak eskatuz, hilabetero mobilizazioak



ERREPORTAJEA → 4-5

Elizondoko Museo Etnografikoa inoiz baino hornituago dago orain

Garai bateko Baztango bizimoduaren erakusgarri diren tresna, irudi, jantzi eta jostailuak biltzen dituzten txokoak erakusten ditu. Edo Kristo Aurreko 2500 edo 2000 urtera arte egin dezake gibelerara, patioan dagoen Soalarko iruinaria begiratzen bada.

ZOKKETA → 67

TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da!





ESKAINZA BEREZIAK

muebles
ORDOI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

2010ean ere...

Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Zure laguntza eskertzeko, boltsa eder hau opari izanen duzu!



ttipi-
ttapa

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde proiektu zenbakia:

15.9996

Esku ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kitzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

40 urte daramazki Olatz Garmendia azpeitiarrak Donamariako karmeldarren komentuan bizitzen. Apirilaren 20an mende erdia bete zuten mojek Donamarian eta ospakizun han-

dia egin zuten maiatzaren 15 eta 16ko asteburuan, kontzertuarekin eta herri bazkariarekin. Aitzaki horrekin, beraien bizimoduaren eta urte hauetan izan diren aldaketan berri

eman digu gaur egun Ama Nagusia denak. Donamariarrekin «harreman oso ona» dutela erran digu, baina kanpoko jendeak «gero eta guttiago ezagutzen gaitu».

Olatz GARMENDIA | Donamariako komentuko moja

«Klausuran bizi gara, baina ez hodeietan edo Mundutik aparte»

Aitor AROTZENA

Komentuak 50 urte Donamarian eta zuk 40 urte... Gauzak aunitz aldatu al dira denbora honetan?

Asko aldatu dira. Ni etorri nintzenean lehengo usadio zahar batzuk hartu nituen, baina gero Kontzilioarekin aldatu ziren gauzak. Pozik hartu genituen berrikuntzak, nahiz eta berez komunitatea besteak baino irekiagoa den. Heziketaz eta formakuntzaz arduratzen den komunitatea da eta horrek asko laguntzen du gaur eguneko mundura egokitzeko. Gu klausuran bizi gara, baina ez mundutik aparte. Batzuek uste dute kartzelan gaudela edo lainoetan, eta ez dakigula deus kanpogan zer gertatzen den, eta ez da horrelakorik. Gure bizitza Jainkoarentzat, Elizarentzat eta gizartearentzat ere bada. Gainontzean antzua izango litzateke. Ni etorri nintzenean bi barrote harrapatu nituen, berehala bat kendu zuten eta geroztik desagertu egin dira. Jantzeko ere toka bat izaten genuen, dena estaliak, lurrera arteko arropa... eta hori aldatu egin da.

Elkarbizitzak garrantzi handia du zuen egunerokoan...

Santa Teresak garrantzia ematen zion elkarbizitzari. Pertsona sozialak gara eta behar dugu harre-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Olatz Garmendia azpeitiarra, Donamariako komentuko Ama Nagusia da.

man hori, elkarren tratu hori, gainontzean lau paretan artean itxiak... Horregatik, egunaren antolaketan, eguerdian eta arratsean elkarrekin egoteko eta solasteko ordu-bete izaten dugu. Oreak bat behar da.

Lana ere zuen bizimoduko beste zutabea da. Somatzen al da krisia komentu barranean?

Enkuadernazio lanekin segitzen dugu, baina egia da lana gutxitu egin dela. Krisia izan daiteke alde batetik, baina gaur egun Internetetik jaso-

BIZIMODU BEREZIA
«Gazteenak 33 urte ditu eta zaharrenak 84. Duela urte batzuk giro osoa erlijioak hartu zuen eta errazagoa zen moja sartzea. Gaurkoa beste mundu bat da eta gure bizitza oso berezia da, ez da mundu guziak egin dezakeena. Halere, komentu barruan ere gauzak aldatu egin dira eta askoz gehiago ateratzen gara, irerkiagoak gara»

tzen du jendeak material guzia. Gauzak hain azkar doaz! Gaur zerbait asmatzen baduzu, bihar beste norbaitek zerbait berriagoa sortuko du eta alde horretatik, eguneratzeko Internetek azkartasun hori ematen du. Halere, nahikoa dugu daukagun lanarekin. Iruñeko denda batendako jostun lana ere egiten dugu, gortinak, maindireak, baina orain ez dugu bordaturik egiten: gazteek ez dakitete eta zaharrek bixta galdu dute. Garai batean, Doneztebeko palioa egin

genuen, oso dotorea, Gorputz Egunean eguraldi ona denean ateratzen omen dute. Beste aldetik, oilo batzuk baditugu. Arrautzak etxerako izaten ditugu, baina soberan gelditzen direnak saldu ere egiten ditugu. Amuarraiekin segitzen dugu, bertan jateko, sagarrak, udareak, pikua, gereziak txoriak jaten dituzte gehien bat, urrak, intxaurreak... Gure bizitza xumea da eta bizitzeko adina ateratzen dugu.

Eta beste zutabea: otoitza...

Egunean 5-6 ordu otoitzean ematen dugu. 06:30ean esnatu eta 07:00etan otoitza izaten dugu, gorespenak, gero meza, 09:00etan gosalduta eta 13:00 arte lana. Eta arratsaldeko bezperak, 18:30ean, kantatu egiten dugu otoitza. Goizean eta arratsaldean ordubeteko otoitza egiten du norberak, elizan, baratzean, gelan, nahi duen tokian... Otoitz irakurriak ere izaten ditugu, santuen irakurgaiak...

Kanpoko jendearentzat bazkariak ematen dituzue eta lotarako ostalua ere baduzue...

Hori otoitzera etorri nahi duenarentzat aukera da, hauer baita hotela. Hausnarketarako, lasaitasunean egoteko, gogoeta egin eta otoitzera etorri nahi duenarentzako aukera da.

TURISMOA → JAVIER ZIGAREN MARGOLANEK BISITA KOPURUA BERRETU DU

Elizondoko Museo Etnografikoak 30.000 bisitari baino gehiago hartu ditu zazpi urtetan

Antzinako bizimoduaren erakusgarri diren hainbat tresna, jantzi eta irudi biltzen dira Puriosenean

Elizondoko Puriosenea edo Mairuen Etxean sartzen denak denboran gibelerara egiten du. Hamarkada edo mende batzuk gibelerara egiten ahal du bisitariak, garai bateko Baztango bizimoduaren erakusgarria diren

tresna, irudi, jantzi eta jostailuak biltzen dituzten txokoak ikusten baditu. Edo K.A.ko 2500 edo 2000 urtera arte egin dezake gibelerara, patioan dagoen Soalarko iruinaria begiratzen badu.

Aitor AROTZENA

2003ko apirilean ireki zituen ateak Jorge Oteiza Museo Etnografikoak eta orai, Javier Ziga margolariaren lanak hartzen dituenetik, bisitari kopurua berretu egin da.

Ana Larruy Baztango udal kultur teknikaria eta Ana Mari Marin margolaria eta Museo Etnografikoaren Lagunen Elkarteko kidea izan ditugu gidari museoko bisitan. Be-

raiek aipatu digutenez, Iturria-Reparaz familiak 2001. urtean eman zion Elizondoko herriari Puriosenea erabiltzeko baimena, Baztango historia eta usadioak bilduko zituen museoa paratzeko. Proiektua 2003an jarri zen martxan eta Jorge Oteiza Museo Etnografikoak urte horretako apirilean ireki zituen ateak. Orioko artista handiak hasieratik sustatu zuen museoa

eta izenez gain, 2002an lorategian ikus daitekeen *Amatasuna* eskultura eman zion.

30.000 BISITARI

Zazpi urte hauetan 30.000 bisitari baino gehiago izan ditu Museoak. Ana Larruy aipatu digutenez, «Aste Santuan mila pertsona inguru pasatu dira, eta zenbait hilabetez obregatik ere itxia egon da, baina halere,

jende aunitz pasatu da». Aurten, Javier Zigaren margolanak ekarri dituzte eta horrek bisitari kopurua berretu duela aipatu digute. Nafarroako Gobernua eta Javier Ziga Fundazioaren koadroak dau- de ganbaran, baina Museo Etnografikoaren txoko

bakoitzean ere badaude txoko horren aurkezpena egiten duten koadroak «etortzen denak koherentzia bat ikus dezan», Ana Larruyren erranetan. Artzainari buruzko margolana, artzaintzarekin lotutako tresna etnografikoaren txo-



Baztan Ikastolako haurrak Museo Etnografikoa bisitatzen. Ekainean eta u-

JAVIER ZIGAREN SOSLAIA

Nor izan zen Javier Ziga?

Javier Ziga Etxandi (1877-1960) Iruñean sortu zen. Amaren aldetik eta ezkontz-kontuak zirela eta Baztani loturik zegoen. Baztango paisajea, baztandarrek eta haien ohiturak pintatu zituen. Bere lanaren erroak Erromantizismo ondoan eta Errealismoaren barneratzen dira. Parisen egon zen eta Impresionismoaren eta Impresionismo ondoaren erabilera eta teknika berriak ekarri zituen handik. Ia genero eta teknika guztiak landu zituen maisuki. Zigaren pintura doitasun teknikoan eta ongi ikasitako lanbidean oinarritzen da; egiazko pinturatik haratago doa, pintura handi, orekatu eta lasaia egiten baitu. Bere pintura dokumentu soziologiko eta etnografikoa da eta, horri esker, gaur egungo ikuslea ezinbertzean galduriko antzinako mudi bate-rantz eramaten du.

BILAKAERA ARTISTIKOA

- Lehen aldia. Formazioa (1892-1908)
- Madrilgo aldia (1909-1911)
- Bidaia Europara (1911-1912)
- Parisko aldia: Formazioa eta sendotzea (1912-1914)
- Helduaroa (1915-1936)
- Konpromiso politikoa. Gerra Zibila (1936-1939). Politikoki konprometitua izan zen. Ideia nazionalistekin bat, euskararen eta euskal kulturaren defentsore izan zen. Iruñeko udaleko zinegotzi ere izan zen EAJren izenean. 61 urte zituela torturatu eta urte eta erdiz kartzelan sartu zuten (*Kartzelako marrazkiak*).
- Azken Aldia (1939-1960)





ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

ta uztailean Baztango ikasleek tailerrak izanen dituzte Museoan.

koan dago; Junta Generalari buruzko margolana, erakunde honen inguruko txokoa... Hain zuzen, txoko hau da Ana Mari Marini gehien gustatzen zaiona: «Junta Generala balearen jabea zen –dio Elizondoko margolariak–, herri lurrena, guziarena. Gero Udala agertzen da eta zer nahi dute? Juntari boterea kendu. Juntari eskainitako txokoa agertzen dira garai hartako irudiak, mahaiak, nola janzten ziren junteroak, ordenantzak, alkatearen aulkia... Nire enpeinurik handiena txoko honetan jarri nuen, gure iragana eta bertako instituzioen indarra ezagutzeko modu ezin hobea da». Baina bertze zenbait txoko interesgarri baditu Museo Etnografikoak: kirolak, bestak, logela, jantziak, eliza, baserriko tresnak, lanbideak, sukaldea, inauteriak...

Hainbat tresna daude Museoan, baina bertze hainbat udal biltegian utziak daude leku faltarengatik. Kultur teknikariak

aipatu digunez, «ganbaran ofizioei buruzko panelak zeuden, baina Zigaren erakusketa jartzeko lekutu behar izan genituen eta horiek bertze solairutan jarri edo udal biltegi batean bilduak daude. Hori da pena balarra, lekua falta dugunez, ezin dela dena erakutsi».

Puriosenea 15 urterako utzi zuen Iturria-Reparaz familiak eta geroztik bertze urtebeterako luzatu da mailegua. Eta gero zer? «Gauza bat argi dago –dio Marinek–, ardurak hartu behar direla eta arduratzen bazara, hau mantendu egiten da eta lana ikusten da. Baina honetaz arduratzen den lantalde bat izan behar da, eta ez dakit taldea erabat osatu den. Bultzatu genuen lau eroketik segitzen dugu, baina boluntarioak nekatu ere egiten dira eta gainbeherak izaten ditugu. Nik 76 urte baditut eta ez nago betirako. Badakien jendea ez bada inplikatzeko ez daukagu zereginik».

ANA MARI MARIN, MUSEO ETNOGRAFIKOAREN LAGUNAK ELKARTEKOA

«Elizondarren erdiak baino gehiagok ez du oraindik Museoan daukan altxorra ezagutzen»

Museo Etnografikoaren Lagunek Elkarteko lehenbiziko bazkidea da Ana Mari Marin margolari elizondarra. Jorge Oteiza zenaren lagun handia, Orioko artista bikainak Museoari izugarriko bultzada eman ziola aipatu digu: «Jorge Oteizak aunitz bultzatu zigun Museo Etnografikoa egiten. Ez lagundu bakarrik, behieki akuilarekin bezala, horrelaxe ibiltzen zitzaigun... Atarian daukagun *Amatsumuna* eskultura utzi zigun... Aunitz zor diogu». Museo sortzeko egindako lanaz eta Puriosenean bildutakoaz harro mintzo da, baina oraindik herritar aunitzek ez dutela ezagutzen uste du: «Segur naiz Elizondoko jendearen %50a baino gehiago ez dela museoan izan. Ez dute hemen daukagun altxorra ezagutzen, ez daki honetan egin dugun lanaren berri. Lau «erok» egin genuen lana. Neronek, Galiziatik hasi eta Euskal Herria bitarte, Kantaurialde guzian ibili nintzen, gurearen gisako museoak bisitatzeko. Gero gauzak erosten hasi ginen, hemen nireak diren gauza aunitz daude, bertze batzuk utziak, erosiak, Nafarroako Museoak utzitako koadroak... Sukalde zaharra eraikitzeke jendea eskatu eta jendeak normalean ez dizu uzten, badaezpada...».

Orai, Javier Ziga margolariaren lanak Museoan edukitzeak balio erantsia eman diola uste du: «Bai Balle-

ko Etxeak, bai Zigaren familiak ere bere ondarea Baztanera ekartzeko gogo zuen, eta guk proposatu genuen Museo Etnografikoa leku egokia izan zitekeela. Ganbaran lekua egin, argiztapena egokia paratu eta jarri zen». Bera margolaria izanik, Zigaren lana definitzea eskatu diogu, baina arteari etiketak jartzearen zale ez dela aipatu digu Ana Mari Marinek: «Orain bakoitzak bere pelikulak egiten ditu, baina Jorge Oteizak, erraterako, ez zuen bere lanen pelikularik egiten, arrazanamenduak ematen zituen, eta horrek txunditzen ninduen. Zigak ongi margotzen zuela eta bere lana beti gustatu izan zaidala erraten ahal dizut... Balda doktoreari egindako erretratoa goi mailakoa dela iruditzen zait eta hala ez balitz, ez genuke honat ekarriko. Javier Ziga Nafarroako margolari handia izan zela iruditzen zait eta ilusio handia egiten dit bere lana Baztanen edukitzeak». Gainera, Ana Mari pertsonalki ezagutu zuen Ziga: «Elizondon, Meoki etxearen beheko aldean margotzen zuen, erresidentziako xaharrak hartzen zituen, etxera eraman eta modelotzat hartu eta margotzen zituen. Gu hura ikustera joaten ginen eta noizbait askan pintzelak garbitzeko erran zidan. Niretzat handia izan zen, «Tori milioi bat pezeta» erran izan balit bezalaxe».



Ana Mari Marin



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Konfusioak

Gaur ere, *Nire txanda* atal hau irakurtzen duen batek baino gehiagok pentsatuko du munduarekin haserre nagoela. Ez, ez naiz haserre bizi, baina bai, munduaren zati batekin haserre nago.

Haurrak ginenean, seguraski denek, edo gehienek hartu izanen genuen merezi gabeko zartaren bat, edo beharbada, merezi gabeko zigorraren bat. Beharbada, zigortu gintuena edo zarta eman ziguna «konfunditu» zen. Ez zen justua momentu horretan, baina haserraldia pasatu izanen zitzaigun, ondorio larririk gabe.

Baina, «konfunditu» egiten direnak justizia maneiatzen dutenak baldin badira? Ondorioak bertzelakoak dira. Nola justifikatzen ahal da, pertsona batek 2 urte espetxean pasatzea «justizia» «konfunditu» delako? Nork bueltatuko dizkio 2 urte horiek? Justiziak? Eta berriz «konfunditzen» bada?

Nola justifikatzen ahal da pertsona batek espetxean 2 urte pasatzea «justizia» «konfunditu» delako?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Kantatzen duen herria...

Urrun egon ondotik bueltatzen direnei ongi-otorria eskaintzeko, betirako utzi gaituztenak agurtzeko, sute baten ondorioz etxebizitza galdu dutenei laguntzeko eta elkartzasuna adierazteko, lagunartean ongi pasatzeko... Kantuak denerrako balio dezake eta kantu bakoitzak badu bere unea eta lekua. Bertze kantu hark zioen bezala, «kantatzen duen herria ez da inoiz hilko».

Nabarmentzekoak



Ioar TAINTA
Lesakako bertsolaria



Xeberiano MATXIÑENA
Urrozterra istripuan hila



Delfina MARIEZKURRENA
Ezkurrarra beatifikazio bidean

Maiatzaren 28an Beran jokatu zen Nafarroako Eskolarteko Bertsolari txapelketan nagusitu zen, 14-18 urte artekoetan. Orain Euskal Herrikoan ariko da Amaia Elizagoienekin batera.

Baserriko lanetan ari zela, traktorea amildu eta hil zen 42 urteko urrozterra maiatzaren 24an. Esmetarako behi eta ardiak hazten zituen eta Lacturale enpresako bazkidea zen.

Ezkurrako Amokoneko moja 20 urterekin hil zen 1937an eta orain bere beatifikazioa proposatu dute hainbat lagunek. Biografoak dioenez, «bizitu zen toki guzietan eredugarria izan zen».

Atzera begira → 1993.06.03 / TTIPI-TTAPA 111. zbk



Angel Trantxe elizondarrarekin, mendizaletasunaz

Inguru menditsu honetan nor ez da noizbait Mendaur, Legate edo Ekaitzara igo? Bertze batzuk astero egiten dituzte horrelako ibilaldiak eta afizio horren berri izateko, Baztango Mendigoizaleak taldeko Angel Trantxerengana jo genuen 1993ko ekainean. «Kirok egiteak, nahiz eta afizionatu mailan izan, beti sakrifizioa suposatzen du. Mendi bat igotzen ari zarenean aunitzitan miseria handiak pasatzen dituzu, baina gailurrera iristean sentitzen duzuna ezin da hitzez esplikatu, atsegin pertsonala izugarria da», zioen elizondarrak. «Zer du mendiak bertze kirolek ez dutena?», galdegin genion Trantxeri: «Lagun aunitz egiten dira, bizi guzirikako lagunak gainera».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Tellebea...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Ahaztua oroitze bidean

Joseba URKIOLA

Makina bat aldiz entzun izan da Afrika ahaztutako kontinentea dela. Onenak aspaldi eman zituela, aurrera nekez egin dezakeela, esperantzarik gabea... Badirudi esan eta uste horiek indarra galtzen ari direla. Azken 20 urteetan aldaketa sakona bizi izan du Munduak eta Afrika ere, zuzenean edo ez hain zuzenean, olatuak bere hartu du.

Askok galde egingo diozue zeuen buruari aldaketa hori zerk ekarri duen. Guztien gainera, erantzuna bat eta bakarra da Txina. Asiako lurraldea etengabe ari da hazten. Kapitalismo eraberrituaren ordezkari fidelak izateko bidean dira. Irabazi nahiaren katea ase ezina izaki, txinatarrek beren hazkunde partikularrekin jarraitzeko Afrika hartu dute bidelagun.

Inperio berria izatea dute xede Asiako ordezkariak eta horretarako beraiek baino ahalmen txikiagoa dutenak topatu behar. Afrika umezurtzean nahiak egi bihurtzen ari zaizkie. Europak eta Amerikak izan zuten beren aukera garai batean, baina gaizki portatu ziren. Min handia egin zien ahantzitako kontinenteari. Etorkizuneko hitza Txinak daukala dirudi. Beraiek arduratuko omen dira beharrak asetzeaz, trukean lan eskua behar dute. Meagintza, eraikuntza, altzairugintza... aberats eta erraldoi izateko beharrezko diren ofizioak sustatu nahi dituzte. Txinarrak dira irakaspenen arduradun. Trukean baina, lan esku merkea behar dute. Nazio Batuek berriki aitortu dute,

afrikar asko tratatu txarrak ari direla jasotzen nagusi berrien partetik. Nola diren gauzak, lehen gaizki sentituak zirenak orain besteak gaizki sentiarazten. Horixe da zorioneko botereak emaniko arma nagusia. Badirudi urteak pasatu ahala denak berdin jarraitzen duela. Handiak txikia behar erraldoitzeko eta txikiak handia behar bizitzeko, irauteko. Baldintzak ez dira onenak, egoera ez da amestutakoa baina Afrika galdua zegoela esaten duten askok ixilik geratu behar dute. *Made in Txina* horren barnean Afrikako hainbat herrialdek geroz eta protagonismo handiagoa daukate. Nork esan behar zuen, Asiak beste kontinente batera joan beharko zuenik lan esku merkeagoaren bila. Bada, halaxe da. Aurrezteko aukera ikusi dute eta ez diote abaguneari alde egiten utzi nahi.

Ekonomiaren itsaso zabaleko ur emariak aldatzen ari dira. Orain urte batzuk AEB zen eredu eta erreferentzia gune. Egun, baina, Txina da merkatuaren gidoi berriko protagonista nagusia. Berdin da nolako baldintzak dituzten, egun guztia lanean eta atsedenerako nahikoa unerik ez duten. Irabazpidearen kate geldiezinan sartu dira eta irmo heldu nahi diote. Agian hemendik urte batzutura, Amets Amerikarra Amets Txinatarrean bihurtuko da. Eta milioika objektutan ezarria dagoen *Made in Txina*, *Made in South Afrika*, *Congo edo Nigeria* izango dira. Nork daki, auskalo.

«Handiak txikia behar erraldoitzeko eta txikiak handia behar bizitzeko»

Berdintasunaren ezberdintasunak

Jokin APEZETXEA (Bortzirietako Jendarte Zerbitzuak)

Ekainaren 14, 21 eta 24an berdintasunaz eta kontziliazioaz solasteko jardunaldiak antolatuko ditugu Bortzirietan. Hots, gai «abstraktu» honi, irudia eta adibide hurbilak jartzen saiatuko gara. Ezberdintasunen jatorrietako bat, 1970. urtera arte eskola mistoak debekatuak zeudela izan daiteke, ikasleak sexuaren arabera banatzen zituzten eta nesken hezkuntza ama eta emazte papera irauaraztera bideratua zegoen, garaiko ereduaren arabera. Bertan sexuen arteko ezberdintasun biologikoak genero ezberdintasun bihurtzen dira, sozialki emakume eta gizonezkoen rola definituz: emakumeak, etxeko lanak eta zainketaren (haurrak zein adintuak) papera hartuz. Errekonozitzen ez den lana eta ekonomikoki nahiz sozialki ordainik ez duena. Gizonei berriz, eremu publikoarekin lotutako rolak ematen zaizkie, ordaindutako lana eta erabaki eremuetan parte-hartzeko aukerarekin.

Gaur egun, ikerketen datuak, diferentzi horiek mantentzen direla diote:

1- Kontziliazioa: Etxeko lanetarako egunero behar diren borts orduetatik lau emakumezkoek egiten dituzte. Gizonezkoak bakarra.

2- Lan merkatua: Lanaldi partziala kontratuen %79 emakumezkoek egiten dituzte, lan promozioa oztopatuz, dependentzia ekonomikoa erraztuz eta etorkizuneko pentsioaren zati bat murriztuz. Gizonak ia ez dute lanaldi murrizketak eskatzen.

3- Hezkuntza: oraindik ere balore horiek transmititzen dira, emakumezkoen %73,75 zaintzarekin harrimana duten karreretan matrikulatzen baitira (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak...) eta %27ak bakarrik aukeratzen ditu karrera teknikoak.

4- Parte-hartze ekonomikoa eta soziala: IBEX 35eko parte diren enpresen barrenean, 409 kontseilarietatik gizonezkoak %90,91 dira.

5- Hizkuntzaren erabilera sexista: Gizarte androzentristaren adibide, genero femeninoa deskalifikatzeko erabiltzen da: «negar egizazu emakume batek bezala, gizon batek bezala defenditzen jakin ez duzunagatik», «nenaza», «coñazo»...

6- Komunikabideetako irudia: Egunkarietako portadetako titularren %4,7an agertzen dira emakumeak, gizonezkoak, berriz, %95,3an. Emakumeen presentzia duten albiste gehienak sail arinetan agertzen dira, Gizarte, Kultur-Ikuskizunak edo Jendea-Mundua sailetan. Egizazu proba, irakurtzeko ohitura duzun egunkarian. Emakumezkoak protagonista diren zenbat albistetan biltzen dira? Zein sailetan daude?

«Egunkarietako portadetako titularren %4,7an bakarrik agertzen dira emakumeak. Emakumeen presentzia duten albiste gehienak sail arinetan agertzen dira»

Irakurleak mintzo

Euskadi Irratia,
Zaraitzu eta
Frantzia

Xanti BEGIRISTAIN (Iruña)

Azken hilabete hauetan egin dituen elurteak direla eta, irрати eta telebistetan behin baino gehiagotan entzun dugu mendateei buruzko informazioa. Maiatzaren 4an eta 5ean Euskadi Irratian esan zuten, Salazar eta Frantzia arteko mendate itxita zegoela, elurrarengatik. Negu gorrian ere, modu berean esan zuten zenbait egunetan, arrazoi berberarengatik. Azkenean, nazkatuta, Euskadi Irratira telefonoz deitu eta jakinarazi nien ez zirela batera era txukunean ematen ari informazio hura, alegia, mendate haren izena Iturzaeta dela, oso oker ez banago.

Garai hartan zuzendu zuten akatsa eta handik aurrera esaten zuten «Zaraitzu eta Zuberoa (edo Iparralde) arteko mendatea» itxita zegoela. Baina, ikusi dugun bezalaxe, eta, zoritxarrez, aste hartan akats berbera errepikatu zuten zenbait aldiz. Bigarren egunean, irratiko norbait, antza, konurtatu zen ez zutela ongi esan aipatutako mendatea, eta orduan «Larrauko mendatea» erabili zuten.

Saiatu bai, saiatu ziren konpontzen egindako akatsa, baina ez dut uste inondik inora ere lortu zutenik helburua. Hasteko, Zuberoako «Larrau» herria euska-

ra batuan «Larraine» da, eta jarraitzeko, gorago esan dudan bezala, hango mendatearen izena «Iturzaeta» omen da. Oker baldin banago, eskertuko dut norbaitek zuzentzea. «Salazar» hitzari buruz, uste dut ez duela merezi deus ere esatea. Era berean, Euskadi Irratiko albistegietan (baita beste hedabide askotan ere) sarriegitan entzuten da, konparaziora, «Ebro bailara, Baztan bailara, eta abar». Ikusten denez, oraindik ez dute ikasi «haran, ibar» eta «bailara» ez direla gauza bera.


Bukatzeko, Euskadi Irratiko zuzendariari eskatuko nioke sentiberatasun bera izan dezan Euskal Herri osoarekin, eta, profesionaltasun handiagoa, tamaina honetako hizkuntz akatsak ez errepikatzen horren maiz.

Aparthei-aren
gaintik
Baztango ezker
abertzalea
aitzinet

Baztango Ezker Abertzalea

Hiru urte bete berri dira Baztanen udal eta foru hauteskundeak eta Nafarroako Parlamentua osatzeko hauteskundeak egin zirenetik; hauteskunde horiek erabat antidemokratikoak izan ziren.

Gogora dezagun nola



Bota bertsoa
Xabier LEGARRETA (Arano) • Neurria: Hamarreko haundia

Urtebete zerbeza lantegirik gabe Aranon

<p>Asteazkena da ta Heineken normaltasunez ari da ta ostegunez langileak joan zirenean lantegira esan zitzaizen bihar bilera gure fabrika itxi da multinazional erraldoien kontzientziatik begira larogei lagun, larogei etxe ta familia zer dira?</p>	<p>Gure herria kalitatezko urak omen du bereizten lehen zerbeza bihurtzen zena gaur itsasora da jeisten Nafarroako Gobernuari zaila da hitzak sinisten ez zuten zorrik ta galerarik normal ari zen ekoizten jakin nahi nuke zenbaten truke ta nork utzi zien ixten.</p>
--	---

garatu ziren: Espainiako Auzitegi Gorenak EAE-ANVko zerrenda baliogabetu zuen. Espainiar estatuak eta berrou kudeatzen duen PSOE alderdiak, alderdi politikoen legearen bidez, aukeratua izateko eta aukeratzeko eskubidea urratu zuten, beste behin ere, 2003ko udal eta foru hauteskundeekin egin bezala.

Baina, demokraziaren aurkakoa den lege horren gainetik herritarrek hitz egin zuten eta beren ordezkariak aukeratu zituzten. Baztanen, zehazki, Julen Mitxeloren eta MariKarmen Irungarai. Nahiz eta legezko aitortzarik ez izan, udal ordezkari egiten dituen ez da legea, herritarren borondatea baizik.

Abiapuntu antidemokratiko baten arabera osatu zen Udala. Hitz guttitan, herritarren borondateari bizkar emanda osatu zen eta ondorioz herri borondatea-

ren adierazle ez den Udala dugu, botere banaketa faltsu eta trukatu izanik.

Gaur-gaurkoz, hainbat alderdi politikoetako ordezkariak zilegitasunik gabe ari dira jarduten zinegotzi eginkizunetan. Kasurik argiena Lander Santamariarena da, zerrendetan agertu gabe egun NaBaiko zinegotzia dena.

Hori gutti balitz, apartheid instituzionala eskubide zibil eta politikoen kontrako oldaraldi errepresioaren baitan kokatzen da. Izan ere, oinarrizko eskubideak diren hauteskundeetan parte hartzea, iritzia emateko askatasuna, elkartzeko askatasuna, adierazpen askatasuna... Baztanen eta Euskal Herrian etengabe urratuak diren eskubideak dira.

Ezker Abertzalearen jardura politikoa neurtzatzeko arkitektura legal oso bat eraiki du espreski Estatuak, al-

derdi politikoen legearen bidez, kode penaren erreformen bidez, eta abar. Demokraziaren oinarrietako bat den botereen banaketa Espainiako Estatuan iruzur hutsa da. Honela, legealdi honetan behin eta berriz, aparatu judicialaren bidez ezker abertzaleko hautetsion kontrako lerro errepresioa zabaldu dute. Kasurik hurbilena Berriozargoa dugu. Baztangoan, berriz, NaBa eta UPNk ezker abertzalearen kontra espreski asmatutako legeak erabiltzen dituzte: pleneoetan modu normalizatu batean parte hartzea ukatzen digute, prentsaurrekoak udaletxean ematea ukatzen digute, udal komisioetan (ordenantzak lantzekoak adibidez) talde bezala parte hartzea galarazten digute...

Dena dela, oztopo hauen guzian gainetik ezker abertzaleko hautetsiek ez dute amore

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Irakurleak mintzo

eman eta ordezkari-legala aitortua ez izan arren, herriaren alde konpromisoa erakutsi dute, mozioak, proposamenak, ekarpenak... aurkeztuz.

Baztango Ezker Abertzalea ez dator bat egungo instituzioak kudeatzeko ereduarekin, presidentzialista eta alderdikeriaren menpean dagoena. Guk badugu beste eredu bat, ezkerretik gure herria eraiki nahi dugu eta badugu horretarako alternatiba eta instituzioen jarduerari norabide horretan jarri nahi dugu.

Baztanen aldaketa politikoa zein soziala ezinbestekoak dira eta helburu hori lortzeko lan instituzionala garrantzi handikoa da Ezker Abertzalearentzat: gehiengoaren arabera politikoa sozialak garatzeko, prekaritateari, ustelkeriari, desoreka sozialari, garapen eredu erasokorrari aurre egiteko... herri honek behar duen alternatiba

egunegun instituzioetan eta kaleetan eraikitzen ari gara. Hainbat arlotan hitzetatik ekin-tzetara pasatuz: herri-tarren parte-hartzea, eredu soziala eraldatzea, zerbitzu publikoen kudeaketa, euskara, hirigintza...

Legealdi honi gertatzen zaion urtebetean norabide berdinean jarraituko dugu. Izan ere, oso garbi dugu, herri instituzioak nazio erai-kuntza eta eraldaketa sozialaren bidean paper oso garrantzitsua jokatzeko dutela. Zentzu horretan, Ezker Abertzaleak instituzioetan defendatu eta garatu beharreko programa sozio-politikoa aldaketa politikoa eta sozialaren bidean kokatuko diren eta harekiko koherenteak izango diren proposamenek osatuko dute. Hortarako aintzat hartuz indar independentista, herri sektoreen interesak zein Herri Mugimenduaren eskaberrak eta proposamenak.

11 galdera labur

Nonahi ikusten dira Onddo ta punto arropak. Zein da sekretua?

Kalitate eta diseinu aldetik ongi dago arropa eta harrera ona izaten ari da. Egia erran pozik gaude.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko eszenatoki gainean, 15.000 lagunetik goiti zuen sudaderari begira...

Guretzat gauza txiki hauek haundiak dira.

Eta erremontean, erakusten edo jokatzen moldatzen zara hobekien?

Egia erran, bi erataria gustura. Gazteei erakusten egotea, erremontean jokatzen segitzeko aitzakia ona da.

Erremonteak badu zerbait Donez-teben. Zer ote da?

Bere garaian figura batzuk atera ziren eta orain erremonte eskolari esker ere gazteek badute jokatzeko aukera.

Baina Doneztebetik ateraz gero, zer pasatzen da?

Hemendik kanpo, erremontista gehienak Azpeitia inguruak dira. Hortik kanpo, gazte gutxi hasten da erremontean.

Zer egiten du bes-tetan

egunegun Lander attack?

Haurrekin ibili batetik bestera.

Eta arratsez?

Espero dut gauzez ere lasai ibiltzea, bestela... gero egunegun ezin ibili!

Zer da bestetako ekitaldietatik gehien gustatzen zaizuna?

Niri zezenak gustatzen zaizkit, baina hemen ez daude. Bestela, lagunekin bazkari bat egin eta bazkalondoko giroan mus partida batzuk jokatzea ere ez da plan txarra.

Doneztebeko bestak akaututa, Iruñera entzierrora?

Txirrinta kentzera pare bat aldiz joan naiz. Baina seme-alabak ditudanetik, ez naiz sobera hurbiltzen zezenetara.

Sustorik ez al duzu hartu entzierroran inoiz?

Behin lasterka hasteko esperoan nengoela, zezen bat adarrak odolez beteta heldu zela konturatu eta horrek inpresio pixkot egin zidan.

Aurten oporrak kanpoan edo hemen?

Momentuz, ekain erdialdean Lizarra ondora goaz egun batzuk pasatzera.



Lander ERKIZIA → Doneztebeko gaztea

PAUSOKA OINETAKOAK (REN BERRIAK)

- Gizon, emakume, gazte eta haurrentzako oinetakoak
- Osagarriak eta bitxiak
- Oinetakoan konponketa

Iturlandeta, 6 • BERA • 948 625 417

Egintzaz **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:
15.996

sarobe
geologia eldizaga

prezio aztegarra 25 bato 1.948.630.999
34.700 bera(gavarrak) www.sarobe.net

ALTZATEKO BESTAK 10

EKAINAK 18, 19 ETA 20. BERA-NAFARROA

KULTURA

BERTSOLARITZA → FINALA

Ioar Tainta lesakarra nagusitu da Nafarroako Eskolarteko txapelketan

Amaia
Elizagoien eta
biak ariko dira
Euskal Herriko
txapelketan

TTIPI-TTAPA

Ioar Tainta bertsolari lesakarra nagusitu zen maiatzaren 28an Berako Kultur Etxean jokatu zen Nafarroako Eskolarteko Bertsolari txapelketaren finalean, 14 eta 18 urte bitarteko kategorian. Bigarren postua Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoientzat izan zen eta biek lortu zuten Euskal Herriko txapelketako finalean kantatzeko eskubidea.

Hamar bertsolari aritu ziren lehian Bertsazole Elkartek antolatutako txapelketan: Iruñeko Eider Azkoaga, Irati Ma-

juelo eta Haizea Beruete; Iturengo Egoitz Gorosterrazu; Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien; Berako Patxi Castillo; Sunbillako Irati Arrieta eta Lesakako ioar Tainta, Josu Sanjurjo eta Mikel Telletxea.

Lehen fasean denak aritu ziren eta bigarengorako sei gelditu ziren: Sanjurjo, Tainta, Elizagoien, Gorosterrazu, Azkoaga eta Majuelo. Bigarren fase honetan, Tainta nabarmendu zen eta Elizagoienek ere ale ederak utzi zituen. Txapel-dun eta txapeldunorde izan ziren eta honenbertzez, Euskal Herriko txapelketan ariko dira Aguiraingo Arrese aretoan ekainaren 19an. 14 urtetik beheitiko gaztetxoek 11:00etan izanen dute saioa eta 14-18 urte artekoek 15:30ean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Eskolarteko finalistak, Bittor Elizagoien, Julen Zelaieta eta Manolo Arozenarekin.



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsopaper lehiaketako sariak banatu dira Leitzaldean

Nafarroako Bertsazole Elkartek *Hezkuntza arautuan* antolatzen duen bertsopaper lehiaketaren barne, Mendebaldeko bertsopaper sarien banaketa egin zen maiatzaren 26an Leitzako zineman. **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan**, lehen saria Leitzako Erleta ikastetxeko Xabat Illarregirentzat izan zen eta Goizuetako Xaltoa eskolako Antton eta Akobek, Erletako Oier Altzelaiak eta Aresoko Beñat Etxezarretak, besteak beste, aipamenak eskuratu zituzten. **5. eta 6. mailan**, lehen saria Erletako Joanes Illarregirentzat izan zen. Erletako Beñat Altzelai eta Josu Sukuntzak, Xaltoa ikastetxeko Aitor Legarreta, Eneko eta Aimar Etxeberria eta Aresoko Maider Barandarainen lanak ere aipatuak izan ziren. **DBHko 1. eta 2. mailan**, lehen saria Xaltoa ikastetxeko Ainhoa Zabaletarentzat izan zen eta aipamenak Xaltoko Lucia Etxeberria eta Amazabaleko Beñat Urkiola eta Martxel Intsaustirentzat.

ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

86 lan aurkeztu dira Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketara

86 lan aurkeztu dira XXIII. Baztan-Bidasoako bertsopaper lehiaketan, baina batzuek baino ez dute lortu saria. **12 urte artekoen mailan**, lehen saria (50 euroko balea materialean eta oroigarria), Mikel Irigoien beratarrentzat izan da, *Himalaya mendikatea* lanagatik. **2. saria** (30 euroko balea materialean eta oroigarria), Saioa Irazu beratarrentzat izan da, *Pistina* lanagatik. **12-18 urtekoetan**, 1. saria (100 euro eta oroigarria), Aitor Servier Etcheguri azkaindarraren *Bidea nola egiten den* lanarentzat izan da. **2. sariak** (50 euro eta oroigarria) bi saridun izan ditu: Oronoz-Mugairiko Amaia Elizagoien *Emakume torturatu baten panpinarentzat* eta Maddalen Lopez lesakarraren *Osabari bisitarentzat*. **18 urtetik goitikoetan**, 1. saria (150 euro eta oroigarria) Aitor Arotzena lesakarrak eskuratu du, *Iratiko mendi multilaren oroitzapenak* lanarekin. **2. saria** (100 euro eta oroigarria) ere Lesakara joan da, Iban Garroren *Aiako "Harria"* lanak eskuratu baitu. Sariak Berako Kultur Etxean banatu ziren maiatzaren 28an.





ARIZKUN ekainaren 23tik 26ra
ERRATZU ekainaren 28tik uztailaren 3ra
DONEZTEBE ekainaren 28tik uztailaren 4ra

**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - 948 453375 • Faxa: 948 456201
Ordoki Auzoa - ARIZKUN

BERRO-BIDE
Nekazaritza eta industria
tresnen konponketa, salmenta
eta alokairua
Tel: 948 453 425
Ordoki - ARIZKUN

Dutarimuno
Ekologikoki ekoiztutako arroltzeak
Ongi pasa berriko bestak!!
Dutaria baserría - ARIZKUN - T616 756 359

JALRENA
Sanaketa • Zurgintza
Telefonokak:
948 453 451
619 514 048
Ordoki Ind. • ARIZKUN

**ongi pasa
bestak!**
TASKA
DOLAETXEA
T. 948 453 002 | ARIZKUN

BAZTANGOIZA
TALDEARRAK
Auto, kamioi eta nekazaritzako makineriaren
konponketa eta salmenta
ongi pasa bestak!
Ordoki 31713 Arizkun-BAZTAN (Nafarroa)
T.F. 948 453 493



ARIZKUN

ekainaren 23tik 26ra

ekainak 23 ASTEAZKENA

San Juan bezpera

- 12:00 Dianak, txupinazioa eta gazteen luntxa
- 13:00 Txopo goratzia
- 14:00 Txopo goratzaileen bazkarie
- 17.30 Jinkana, herriko gazteen artean
- 21:00 Soka dantza

Iluntzean San Juan Suak eta ezkil jotzea

- Ondotik Antzerkie
- 23:00 Baztan zopak
- 00:00 Dantzaldie Agerralde akordeolariarekin
- 05:00 Zinger jatia



ekainak 24 ASTEAZKENA

San Juan eguna


- 10:00 Dianak
- 11:00 Meza nausie
- 12:00 Mutil dantzak eta herriko luntxe
- Ondotik herriko haurren dantza erakustaldie
- 17:30 Pilota partidua: 3. eta 4. postue jokuan
- Ondotik Eskuz banakako pilota finala
- 18:30 Antzara jokue
- 19:30 Tortilla patata lehiaketa
- 20:00 Dantzaldie Agerralde akordeolariarekin
- 22:00 Mutil dantza eta gaita
- Ondotik Afarie, bakotxa bere tortilla patatakin
- 00:00 Dantzaldie Agerralde akordeolariarekin
- 05:00 Gasna jatia



ekainak 25 ASTEAZKENA

Haurren eguna

- 10:00 Dianak
- 12:30/13:30 Haurrendako puzgarriak eta kars
- 14:00 Haurren bazkarie
- 15:30/17:30 Haurrendako puzgarriek eta kars
- 16:30 Plater tiroketa (Bagordin)
- 17:30 Haurrendako tailerra
- 19:00 Txokolatada
- 19:30 Triki poteoa, herriko trikitilariarekin
- 20:00 Dantzaldie trikitilariarekin
- 21:30 Mutil dantzak ta gaita
- 23:00 Kontzertuek
- 01:00 Dantzaldie trikitilariarekin
- 05:00 Ziztor jatia



ekainak 26 LARUNBATA

Zikiro jatea

- 10:00 Dianak
- 11:00 Mus iñezture
- 14:00 Zikiro jatia
- Ondotik Herri poteoa Igandea txarangakin
- 20:00 Dantzaldia Trikidantz taldearekin
- 22:00 Mutil dantzak ta gaita
- 00:30 Gaupasa Trikidantz taldearekin
- 05:00 Zinger jatia



ERRATZU

ekainaren 28tik uztailaren 3ra



ekainak 28 ASTELEHENA

20:00 Txupinazoa eta ezkil jotzea
21:00 Baztan zopak Kastonean
Ondotik Dantzaldia Frantxiskorekin

ekainak 29 ASTEARTEA

10:00 Argi soinuak
12:00 Meza Nagusia
13:00 Mutil dantzak plazan eta Luntxa
17:30 Herritarren arteko Ginkana
19:30 Txutxin Ibanez y los Charros mariatxiak
21:30 Mutil dantzak, gaita eta larrain-dantza
22:30 Su artifizialak
00:30 Dantzaldia Angel Mari akordeolariarekin

ekainak 30 ASTEAZKENA

10:00 Argi soinuak
11:00 Haur jolasak
13:00 Haurren eta gurasoen bazkaria
15:30 Haur jolasak
17:30 Herritarren arteko I. desafioa
Izpegira bizikletan
Ondotik Dantzaldia Angel Marirekin Izpegin
20:00 Dantzaldia Gabezin taldearekin
21:30 Mutil dantzak, gaita eta larrain-dantza
00:30 Dantzaldia Gabezin taldearekin

UZTAILAK 1 ORTZEGUNA

10:00 Argi soinuak
11:00 Pilota partidak Gorostapolon
13:30 Zintzur bustitzea
14:30 Zikero jatea plazan Frantxiskorekin
20:00 Dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin
21:30 Mutil dantzak, gaita eta larrain-dantza
23:30 Kontzertuak Zubi Puntan
00:30 Dantzaldia Frantxisko akordeolariarekin

UZTAILAK 2 ORTZIRALA

10:00 Argi soinuak
11:00 Aperitifa
14:30 Errepresaliatuen aldeko bazkaria
Ondotik Bertso poteoa Bizkargain fanfarreak
eta bertsolariak alaiturik
20:00 Dantzaldia Saioa eta Alaitzekin
21:30 Mutil dantzak, gaita eta larrain-dantza
22:00 Rock Kontzertua: Ukabildu...
00:30 Dantzaldia Saioa eta Alaitzekin

UZTAILAK 3 LARUNBATA

10:00 Argi soinuak
12:00 Eñaut ipuin kontalaria elizeko atriotan
14:00 Piki-nika merenderuan
Ondotik Kalejira Iban eta Joxen alaiturik
18:00 Pilota partidak
13:00 Gaztelu taldearen kantaldia elizan
20:00 Dantzaldia Gabezin taldearekin
21:30 Mutil dantzak, gaita eta larrain-dantza
00:00 Dantzaldia Gabezin taldearekin



ALBANTZENA
Santi Dendarera
OSTATUA-DENDA

Ongi para herriko bestak!

Albantzena etxea, ERRATZU - Tel. 948 453 112

KASTONEA
LANDETxea
OSTATU-JAETXEA

Ongi para bestak!

51714 ERRATZU
948.381.383 - 948.335.760
www.kastonea.com - info@kastonea.com

IPARLA
OSTATUA

Egunero bikatak,
eta pinxo berriak
Igandetan saioa
Café on!

EGUNERO GOSARIAK
948 453 173
Albantzena etxea, ERRATZU

PANPI PORTUGAL ekainaren 30ean 22:00ean

ALEMAN ZERRATEGIA, S.L.

- Teilaturako estrukturalak, duglas, pinua, haritza
- Tarima
- Portxeak tamaina egokian
- Laminatuak eta KVH (zura zertifikatua)

Frantziako errep. zig - ERRATZU - 948 453 173

ZUBI PUNTA
PUNTA ATUP
ERRATZU USTARRA

BIXTA-EDER
restaurante - jatetxea

OSTIRALA, LARUNBATA, IGANDEA
ETA BESTA EGUNETAN IREKIA

Ongi para bestak!!!

948 453 358 - 690 335 327
Azpilkuetako errep. - ARIZKUN
www.bixtaeder.es - bixtaeder@hotmail.com

arozena ostatua



gosariak eta bazkariak

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 • Doneztebe

ANTONIO ARTAZCOZ GOÑI



- Loteria primitiva
- Kintietak
- Pelukeroa

T. 948 450 081

Merkatarien karrika, 8 • DONEZTEBE

BELARRA JATETXEA



Artea • DONEZTEBE • 948 450 306 • www.restaurantbelarra.com

BOKAFLOR

Ongi pasa herriko bestetan!

Pintxoetan espezializatuak • Bokadilloak

MARTXARIK ONENA



T. 948 450 318
Parrokia, 3 • DONEZTEBE

Kimetz Belardenda



- Dietetika eta nutrizioa
- Dieta pertsonalizatuak. Grasa eta likido kontrola.
- Masajeak: terapeutikoa / osteopatia / reflexoterapia / kiromasajea...
- Naturopatia / iridiologia / flores bach / quantum / terapia emozionala...
- Bioenergetika / medizina txinatarrak (akupuntura)...
- Apiterapia

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUET

Lorea Agirre Iribarren
Nutrieta eta Dietetikan Dotorikoa

Leitzako errep. 3 bidea
31740 Donostia

Tel. 948 451 473
kimetzbelardenda@hotmail.com



DONEZTEBE

ekainaren 28tik uztailaren 4ra

Niko MINDEGIA
Portland San Antonioko
eskubaloijokalaria doneztebarra

“Krisia hor dagoela badakigu, baina bestek horretarako ere balio dute, hori atzendu eta lagunekin ongi pasatzeko”



Pertsonalki denboraldi borobila izan da Niko Mindegia eskubaloijokalaria doneztebarrarentzat. Nafarroako Eskubaloijokari Federazioak ematen dituen sarien artean, Asobal Ligako jokalaria nafar onenaren saria irabazi du eta, gainera, Valero Rivera Espainiako selekzioko prestatzaileak 2011ko Munduko txapelketarako sailkapen fasea prestatzeko kontzentrazioa deitu du. Harat-honatean ibili da azken asteetan eta TTAPI-TTAPAK Bartzelonan harrapatu du. Esperientzia berriarekin kontent dago 21 urteko doneztebarra, nahiz eta sailkapen faserako deialdian ez dela sartuko jakinarazi dion hautatzaileak. “Neretzat denboraldi ona izan da –dio Mindegiak–, baina egia da taldean arazo ekonomikoak izan direla, baina uste dut hori Asobal ligako eta munduko talde guzietan gertatu dela, krisiak ere eragina izan du eskubaloian. Baina kirol aldetik urte nahiko ona izan da, udan 21 urtez beheitiko Munduko txapelketarekin hasi nintzen, gero San Antoniorekin liga hasiera zaila izan nuen, nekearengatik, baina gero errekuperatu nintzen eta nahiko ongi akitu dut denboraldia”. Duela urte batzuk liga irabazteko borrokan ibiltzen zen San Antonio, eta orain koxka bat beheitiago dagoela onartu du Mindegiak, “hori horrela da, garbi dago, aldaketak izan dira azken bi urteetan, baina partida batzutan aurre egin diogu onenei ere, partida politak egin ditugu. Heldu den urterako ez dakigu zer izanen den, baina pare bat astez argituko da hori ere”. Ahoz-ahoz dabilen afera San Antonio eta Anaitasuna eskubaloitaldean bateratzea da, Nafarroan talde indartsu bakarra osatzeko. Aldeko eta kontrako iritziak ditu Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen proiektu honek. Mindegiaren ustez “ez dakigu zer gertatuko den, jende gehienak bakoitza bere aldetik aritzea nahi du, baina gaur egun, diru aldetik maila horretako bi talde izatea Nafarroan zaila da. Azkenean Nafarroako Gobernuak erabakiko du”. Tiki-ttikitatik somatzen zitzaizkion eskubaloirako gaitasunak Mindegiari eta 16 urterekin, Batxillerra hasterakoan, Doneztebetik Iruñerako bidea hartu zuen. “Jubeniletan eta Lehen Maila Nazionalean bi urtez San Antoniorekin aritu nintzen, gero Anaitasunan urte bat egin nuen eta joan den urtean Asobal ligako Portland San Antonio taldean hasi nintzen”. Arestian aipatu bezala, sailkapen fasean ez da arituko eta 2011ko urtarrian Serbian jokatu den Munduko txapelketan aritzea ere

zail ikusten du Niko Mindegiak, "lehen lerroan Espainiak maila handia duelako, baina horretan saiatuko naiz. Lehenbiziko kontzentrazio honetan sartu naiz eta kontent nago egin ditudan entrenamenduekin eta nere buruarekin, muturra sartu dut baina momentuz ez dut nere burua Mundialean ikusten". Goi mailako eskubaloian aritu arren, bere jatorria ez du alde batera uzten San Antonioko jokalaria doneztebarrak. "Erreka eskubaloitaldea ikustera ere ahal den guzietan hurbiltzen naiz, lagun guztiak hor aritzen dira-eta" dio Mindegiak. Azkeneko bi denboralditan talde nagusiak, "denboraldi politak" egin dituela dio Mindegiak. Harrobi lan bikaina egiten dela ere aipatu digu eta norbaitek bere bidea egiten ote duen galdetzerakoan, "hori ezin da inoiz aitzinetik jakin" erantzun digu. "Progresioa ikusi behar da, baina zergatik ez? Harrobi lan handia egiten ari dira eta lan eginez gero, honelakoak gertatzen ahal dira". Bera ez ezik, eskubaloian ari diren neska-mutikoek bertze eredu edo ispilu gehiago ere badituztela aipatu digu apal Mindegiak: "Mangado, Ibai Meoki, Juanto Apezetxea, horiek denak Iruñean aritu dira maila onean eta denak gara nolabaiteko ispilu, umeek ikus dezaten aukera badela eta arrunt polita dela eskubaloia". Izan ere, Doneztebek 1.500 bizilagun bertzerik ez izan arren, "eskubaloiarekin zerbait espeziala baduela" uste du Nikok, "leku aunitzetan ikusten ez den afizioa. Horren erakusgarri, Anaitasunak Asobal ligara igotzeko jokatu duen promozio fasean, Guadalajarara 14 lagun joan ziren Doneztebetik, hori ikusgarria da".

Iruñean bortz urte daramazki eta unibertsitate ikasketak Gasteizen egiten ditu, Soin Hezkuntza edo IVEF delakoa, baina Donezteben izaten da ahal den guztietan Mindegia. Asteburu honetan egin den Erreka Egunean parte hartu du eta San Pedro bestetan ere ez du hutsik eginen. Zeki koadrilakoa da Niko eta bestetan Gazte Burrunbaren Eguna da gehien atsegin duena, "gazteen bazkaria eta herri bazkaria gustatzen zaizkit, espezialak dira, lagunekin, familiarekin... Gazteek besta ez ezik antolaketan ere lan handia egiten dute Doneztebeko bestetan, urtero ideia berriak plazaratzen dituzte eta hori interesgarria da".

Dena den, uztailean azterketak izanen dituela kontuan hartuz, "ezin izanen dut nahi nukeen guztia disfrutatu" aipatu digu. San Pedro bestetan parte hartzeko eta ongi pasatzeko dei berezia ere egin du Niko Mindegiak: "Badakigu krisia hor dagoela, baina bestek horretarako ere balio dute, hori atzentzeko eta lagunartean arrunt ongi pasatzeko eta gozatzeko".



ESTIBALIZ estetika zentrua
T. 948 581 360 • 606 736 466

%10 eko **deskontua**
kupo hau aurkeztuta

3 zerbitzu hauetan:

- Erlaxazio masajea: kabiarrak eta pasio-frutazko olio beroa
- Urrea eta kabiarrakko aurpegi-tratamendurako bonoa (4 sesio)
- Alga bildukina eta masajea

maria
ileapaindegia
T. 948 450 922

INOA

Mutuberria Alimentación S.L.

Aliprox

T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8
31740 DONEZTEBE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com

BIXEN ostatua
Bokadillo eta pintxo txikiak
948 450 383 - DONEZTEBE



BLAS
Liburudenda
Eskolako materiala
Egunkariak • Aldizkariak
Gozokiak
948 450 269
Parrokia 1
DONEZTEBE



goldea
Lalena s.l.
Ongi pasa bestak!
Tel./fax: 948 450 410
e-mail: groldealalena@gmail.com
Pol. Industrial Jauren, 1
33000 Doneztebe Oñarrieta




Juanotena
zurgindegia
• Ateak • Eskalera • Leihoak •
Zurgin lanak orokorrean
Leitzako bidea, 35 • Tfnoa: 948 450 211 • DONEZTEBE



Izoztu en Txokoa
Besta zahar eta berriak
Itzak
Kilometrok
benetako
arrats
markeak
Besta on botak pasatzen dituzte!
Elizagibea, 7 • DONEZTEBE • 948 451 999



GONZALO FERNANDEZ LAMANA y A.T. S. CV.
Ingeniar tekniko industrialak
• Bulego teknikoak: proiektuak, obra zuzendaritzak, etab...
• Instalazio elektrikoak
• Etsako eta industriako elektrizitateak
• Enpresen mantenimenduak, etab...
Elizagibea, 5 - DONEZTEBE - Tel/Fax: 948 450790



MAYLIN OSTATUA
Ongi pasa bestak!!
Bokadilloak • pintxoak • plater konbinatuak
Parrokia, 15 DONEZTEBE • T. 948 45 03 66



ordua eskatu **MAITE** ileapaindegia
Solarium-a
GIZON ETA EMAKUMEENDAKO
Mourges Etorbidea, 4
© 948 451 780 - DONEZTEBE



Juantxo San Miguel
Iturgintza • Kalefakzioa
gasa
T. 948 450 866 • 626 112 415
Elizagibela, 3 • 31740 DONEZTEBE



CTV ALBAITARITA ZENTRU TEKNIKOA
ONGI PASA BESTAKI!
Rosa Seminario, 15 • DONEZTEBE
T. 948 450 591



Doneztebe autoeskolak
A1 - A - B - BTP
C1 - C eta E
karnetak ateratzen ahal dira
Besta onak pasal!
948 451 929
Leitzako errepedea, 2 behea - DONEZTEBE



Angie
ENGLISH ACADEMY
• Itzulpen lanak egiten dira
• University of Cambridge azterketara aurkezteko prestakuntza
• Eskola-laguntza
• 2010/2011 kurtsorako matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak
ONGI PASA BESTAKI!
Elizagibela, 7 behea - 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 - angieacademy@gmail.com



ARIN
ASEGURUAK
BERA
DONEZTEBE
Ongi pasa bestak!
Parrokia, 21 • DONEZTEBE
T. 948 450 266 • F. 948 450 617
Eztegara, 26 • BERA
T. 948 625 259 • F. 948 625 264



harategia **Esarte**
ELIZONDO 948 530 125



JUAN J. PIKABEA
SENARGAIENTZAKO TRAJEA
ZURE NEURRIRA
10 egunez
Neurri haundiak
Galtzak eta bakeroak 70 arte
Atorrak 56 arte
Jertseak
Ameztieta z/g - DONEZTEBE - 948 451 670





DONEZTEBE

ekainaren 28tik uztailaren 4ra

ekainak 28 ASTELEHENA

20:00 **Suziria** Herriko Etxetik

Ondotik Karrika-dantza Corcor txarangak eta txistulariek alaitua

Ondotik Zopak afaltzeko ostatu eta elkarteetan

00:30/03:30 Dantzaldia **Jalisko Band** taldearekin



ongi pasa bestak!




Pentzuak • Ongarriak • Haziak
Dilasko eta olandak astero
ortzegunetan • Kaiolak

Nekazari Zerbitzuak
Vicente Arceena Anduza

Margos, 29 • 31740 DONEZTEBE
Tlfnoa/Faxa: 948 45 18 45 Mugakorra: 910 25 85 95



Marinera
LENTZERIA

ONGI PASA BESTAK!

Pantaka, 11 • DONEZTEBE • 948 45 01 12

Jaime Urzula, 43 • ELIZKONDO • 948 581 301




BigMat

MENDITXURI

DONEZTEBE • Leitzako errep. • 948 450 505

- Ferretería
- Iturgintza
- Zeramika erakusketa
- Bainugelen erakusketa

Ongi pasa bestak!!



material informatikoen konponketa eta salmenta

zrb.net
informatika



zrb.net informatika

Nagusia, 4 DONEZTEBE | 948 451 752 / 609 418 097
info@zarbo.net | www.zarbo.net



ekainak 29 ASTEARTEA

San Pedro eguna

09:00 Diana Corcor txarangak girotua

11:00 Done Petri Apostoluaren omenezko

Meza Nagusia. Mendi Abesbatzak alaitua

Ondotik Bandera-dantza, Trapatan eta bertze dantza tradizional batzuk, dantza taldearen eta txistularien eskutik



KONTXA

Gasolindegia



✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramanez dugu



Ongi pasa bestak!

T. 948 450 272 • F. 948 450 810 • DONEZTEBE

miguelena



sukalde eta bainuko altzariak • etxetresnak
armairu enpotratuak • erlojudenda • bitxidenda



T. 948 450 925 • M. 677 525 292 - 677 525 324 • Travesia Ameztia, 1 • 31740 DONEZTEBE

DONEZTEBEKO Gasolindegia



RENAULT

SANTESTEBAN TAILERRAK



DESKONTUAK **CLUB AVIA** txartelarekin:

%2 gasolio eta gasolinan
%5 dendako produktuetan

Eskaintza zabalagoa (ogia, janariak...)

Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:

- Etxe-etxeko gasolio-zerbitzua
- Auto-garbitzaile automatikoa
- Presio bidezko garbiketa
- Autoaren barneko garbiketa



Leitza E., 49 • DONEZTEBE • T. 948 451 679 F. 948 450 857



- Txapa, Mekanika eta elektrizitatea
- Kotxe berriak eta bigarren eskukoak
- Kotxe ia berrietan sekulako eskaintza (6-12hilabeteko kobreak)
- ISO 9001 eta ISO 14001 duen tailerra



DONEZTEBE • Leitzako errep.
T. 948 450 282



ekainak 30 ASTEAZKENA
Gazte Burrenbaren eguna

- 09:00 Diana Doneztebeko txistulariek girotua
- 11:00 Buruhaundiak herriko karriketan
- 12:00 Triki-poteoa Gazte Burrenbarekin
- 12:00 Gorriti eta haren animalien saioa
Bear Zana pilotalekuan



- 14:00 Gazte Burrenbaren bazkaria
- 17:00 Jokuak Gazte Burrenbak antolatuta



- 20:00 Poteoa txaranga eta Gazte Burrenbarekin
- 20:00/22:00 Dantzaldia DJarekin
- 01:00/04:30 Dantzaldia DJarekin



**DONEZTEBEko
BESTAK 2010**

Ekainaren 28tik uztailaren 1ra

Doneztebeko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei



**BERATARRA
ERAIKUNTZAK**

Leitzako b. 66 - 8. blokea 2C
DONEZTEBE

Jose Ignacio Maritorena Larralde
670 489 337

ONGI PASA BESTAK



MARTA ILEAPAINDEGIA

Gizonezko eta emakumeendako
Solarium-a

948 450 751
Merkatariek K, 24 • DONEZTEBE



RUIZ
okindegia • autozerbitzua

T. 948 450 037 F. 948 450 037 • Nagusia, 15 • DONEZTEBE
E. fernando@donezpan.e.telefonica.net



SALDIAS HARATEGIA

Bertako haragi
freskoetan espezializatuak
Etxeko tailortza

Karrika Nagusia, 19 • 948 450 191 • DONEZTEBE




ESTANKOAK • PAPERTEGIA • ZAPATADEGIA

CASA COSTIZ

costiz@telefonica.net
T.F. 948 450 289 • Parrokia 17 • DONEZTEBE



Egin behar dituzun lan
txiki horientzat,
Gremioen koordinazioa

Alicia T. Ertetz
SERVI-LAN

ofiziale guztiak
SERVI-LANen

Elizgibelu, 5 • DONEZTEBE • Tel. 948 456193 Fax. 948 450760



RUIZ mobleak

- Haritz, gaztain, eta pinu
egurrez egindako mobleak

- Dekorazio artikulua

Merkatarien karrika, 16 • Thoa: 948 450110 • DONEZTEBE



EDERKI tailerra

PEUGEOT
CITROËN

Peugeot eta Citroën
Agente Ofiziala

24 orduz grua
zerbitzua

Hidraulika "latigiloen" moldaketa

Leitzako bidea • 948 450525 • DONEZTEBE



BAR

TITI

ongi pasa bestak!

Amezia, 7 • 948 450 271 • DONEZTEBE



ETXE BARNEKOAK:
Bisilloak, kortinak, edredoi
nordikoak, maindireak,
toallak, alfonbrak...

1940 urtetik

Lácar Etxea

- MOSHY almohadak
- Laneko erroak
- Mertzario

Sta Luzia karrika, 3 • DONEZTEBE • 948 450 162




Red Nasursa
OFINAS COMARCAS
ESKUALDE MAILAKO
BULEGOEN SAREA

Etxebizitza eta hirigintzari buruzko
Aholkularitza teknikorako
Eskualdeko bulegoa

Herritarrendako zerbitzuak
Udalendako zerbitzuak

Tel. 948 456 103 • Fax. 948 451 320
baztan-bidasoa@nasursa.es • www.nasursa.es
Merkatarien karrika, 6 DONEZTEBE



OGI BERRI
Ongi pasa bestak!

Donezteben ogi egin berrina
goizeko 7:30etatik gauko 21:00ak arte
Gozotegi eta kafetegia (tartak, pastelak...)
Egunero freskoa
Enkargoak hartzen dira

Parrokia, 19 • DONEZTEBE • T. 948 45 06 24



Mendiburu
aziendak • tratantea

ongi pasa
herriko bestak!

608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE



HENKIO TABERNA

EMAKUME ETA
GIZONEZKOEN
BOUTIQUE

Besta zozkintzuak igard!

Merkatari, 29
DONEZTEBE
948 450 109



“Jubilatuak” ostatua
Bar “Jubilados”

ONGI PASA
HERRIKO BESTAK!



MARTIN-IBARRA

Forja artistikoa • Aroztegia
forjamarlin@baztanbidasoa.com

M. 669 068 622
T. 948 393 280 • F. 948 393 279
Oteiza auzoa, 4 • 31740 DONEZTEBE





uztailak 1 ORTZEGUNA

Ttikien udalaren eguna

- 09:00** Diana Doneztebeko txistulariek girotua
11:00 Ttikien Udalari ongi etorria
Ondotik Alkate ttikiak eta haren zinegotziek **suziria** botako dute
11:30 Meza, ttikien Udalbatza eta Erraldoi, buruhandi eta txistulariek lagunduta
Ondotik **Dantza tradizionalak** Dantza-taldearen eta Txistularien eskutik



- 12:00** **Futbol-partida** polikiroldegian
Titti Zarra Ostua eta 12 Ostua
14:00 Ttikien Udala aukeratzen parte hartu duten haur guztiendako bazkaria
16:00/20:00 Haurrendako **Kart-ak eta puzgarriak**
Bear Zana pilotalekuan



- 14:00** Ttikien Udalbatzak beren botereak bueltatuko ditu Herriko Etxean; Kideei diploma bana emanen zaie
14:00 **Txistor-jatea** Santa Luzia Plazan
20:00/22:00 Dantzaldia **Modesto** akordeolariarekin
00:30/03:30 Dantzaldia **Modesto** akordeolariarekin



AGUSTIN SAN MIGUEL AZPIROZ

EGITURA METALIKOAK

- Ateen automatizazioa
- Ate metalikoak, baskulagarniak, lerragarniak, bi orrikoak
- Baranda eta hesiak
- Ate sektionaletan aukera zabala
- Telaturako xafia mota guztiak: panelak, eta teilaren imitaziozkoak
- Fabrikatutako txapak

Leitzako errep. 68 • DONEZTEBE
948 450 224 • 629 328 550



Gazteen moda
prezio onean

Besta zoriontsuak igaroll

T. 948 450 464 • Nagusia, 19 • DONEZTEBE




IRRINTZE

Aurtengo bestak umore ederrean pasatu

OSTATUA

Merkatarien karrika 28
☎ 948 451826
DONEZTEBE



P.J.M.

Pedro J. Martín
Azienda tratularia

Ongi pasa herriko bestak !!

948 450 042
Martínenea etxea · DONEZTEBE



OLAZAR
aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estruktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailleak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1
948 456 183
Mugikorra:
649 139 365
DONEZTEBE



uztailak 2 ORTZIRALA

- 09:00** Diana Doneztebeko txistulariek girotua
- 11:00** Buruhandiak herriko karrketan barna
- 11:00** Esku-pilotako partidak
D. Erreka pilota-eskolak antolatuta
- 16:00** Mus-txapelketa



- 17:00** Bear Zana pilota lekuan haurrendako jokoak, Errekak antolatua



- 20:00/22:00** Dantzaldia Gabezin taldearekin
- 23:00/00:00** Kontzertua Mugalariak taldearekin
- 00:00/01:00** Kontzertua Luz de Putas taldearekin
- 01:00/04:00** Dantzaldia Gabezin taldearekin



uztailak 3 LARUNBATA

- 09:00 **Diana** Corcor txarangarekin
- 10:00 Txu-txu trena herrian barna eta puzgarriak igerilekuan
- 11:00 Buruhandiek karriketan barna
- 14:00 Herri-bazkaria



- 22:30 Su artifizialak
- 20:00/22:00 Dantzaldia **Laiotz** taldearekin
- 00:30/03:30 Dantzaldia **Laiotz** taldearekin

uztailak 4 IGANDEA

- 09:00 **Diana** Corcor txarangarekin
- 12:00 **Erraldoien kontzentrazioa**
Mourgues Etorbidea, Mercaderes, Amezitia, Zazpigurutze, Elizagibela, Parrokia, Nagusia eta, azkenik, Bear Zana pilotalekuan ibiliko dira



- 20:00/22:00 Dantzaldia **SALABERRI** akordeolariarekin
- 22:15 Zezensuzkoa Bear Zana pilotalekuan
- 23:00 **Besten bukaera** Corcor txarangarekin

Ki le ni um **kider**
Tarima eta parket Flotagarriak
T. 948 456 010 F. 948 456 148
DONEZTEBE
www.industriaskider.es

ZABALA
kortinetarako sistemak
Bertako zurak eta inportaziozkoak
Oihan esplotazioak
Zerrategia eta sekaderoak
T. 948 450 135 • F. 948 450 498
www.maderaszabala.es • DONEZTEBE

Dagi pasa bestak!!


Muebles Telletxea
ongi pasa bestak!

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811

Clinica Dental

IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA



Dr. Biotza Rubio (Kol. 241) • Ortodontziako Masterra • IAOKo kidea (International Association for Orthodontics)

INPLANTEAK



Dr. Jose Luis Irurita (Kol. 240) • Ahoko Inplantologia eta Periodontziako Masterra

- Rx. Panoramikoa
- Periodontzia
- Odontopediatria
- Kirurgia
- Endodontzia
- PADI (Haurren hortzak zaintzeko programa)
- Protesiak
- Hortz-zuritzea

LEITZA
Manuel Lasarte, 7 esk.
948 610 713

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19 esk.
948 450 267



DONEZTEBE

ekainaren 28tik uztailaren 4ra



Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea

“Besten aurrekontua legealdi hasieran 55.000 eurokoa zen eta, aurten, 35.000€koa izanen da. Halare, jende guziarendako egitaraua osatu dugu”

Urtero bezala, elkarlanean oinarritutako egitaraua egin dute Doneztebeko San Pedro bestetan, Miguel San Miguel alkateak aipatu digunez. *“Urtarrilean hasi ginen bilerekin, eta pixkan-pixkan osatu dugu programa”*. Hiru aukera nagusi izan dituztela adierazi digu alkateak: *“San Pedro asteartearekin egokitu denez, lehen aukera ortziraletan hasi eta asteazkenean akitzea zen, baina hori udalean ez genuen nahi, Saldiasko bestetako asteburua hartuko baigenuen; guk astelehenetik ortziralerara planteatzen genuen, baina normala denez, ostatuak asteburu bat hartu nahi zuten eta azkenean astelehenetik igandera hartu dugu, larunbat eta igandeko gastuak ostatuak eta Gazte Burrunbak bere gain hartuta”*.

Gastuak aipatuta, legealdi honetan, krisiaren eraginez, besten aurrekontuak nabarmen beheiti egin duela onartu du San Miguelek. *“Legealdiko lehen bestak, duela hiru urte, 55.000 euroko aurrekontuarekin egin genituen, iaz uste dut 40.000 euro inguru izan zirela eta aurten oraindik gehixeago murriztu dugu, 35.000 eurora, gerrikoa estutzeko garaian gaude”*. Izan ere, herriak urtean dituen sarrerak ere dexente murriztu direla gogorarazi du, *“konparaziora, lehen obren lizentziagatik izaten genituen sarrerak, pisu aunitz egin zen, baina orain ez da halakorik, iaz erdira jautsi zen. Ingresoak jautsi direnez, gu ere nolapaitere gastu korrienteak bederen jausten ari gara. Inbertsioak kontzen ari gara oraingoz, ez dakit noiz arte, obrak egiten direnean jendeari lana paratzen diozulako, baina gastuak ahal den neurrian jautsi”*.

Egitarauak iazko ildoari eutsiko dio, *“ahalik eta jende gehiena asetzeko moduan, helduak, gazteak, haurrak... Ez da gauza berri handirik, baina gazteek eta haurrek beraien egunak izanen dituzte. Ortzegunean ttikien eguna izanen da eta Ttikien Udala dagoeneko osatua dago. Duela urte batzuk jarri genuen eta ilusio handiz hartzen dute haurrek nahiz gurasoek”*. Kirolerako tartea ere izanen da, erremonte partidak, haurrendako jokuak Errekaren eskutik, Titi eta 12 Ostatuko beteranoen arteko futbito partida... Azkeneko egunerako, berriz, Giganteen kontzentrazioa iragarri dute, *“oraingoz konfirmatu digute etorriko direla Lesaka, Bera, Doneztebe eta Etxalarko giganteek”*.

2010ean ere...
Ttipi-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

proiektu zenbakia
15.996

Zure laguntza erantzukizun handia da. Bostetik gero, zure laguntza erantzukizun handia da.

Ezazu ezazu Ttipi-Ttapa proiektuak aukeratu izanaren frogagarria. Nafarriakak. Kutsaren zure laguntza eta ekar ezazu Ttipi-Ttapa. 2010eko abenduaren 31a baino lehen.

ARRATE **ESTETIKA ZENTROA**

Intzakardi, 7
DONEZTEBE
Telefonoa: 948 450 286

Masaje pertsonalizatuak • Manikura • Pedikura
Gorputzerako tratamenduak • Depilazioa • Makilajeak
Aurpegiarako tratamendu pertsonalizatuak
Produktu-salmenta pertsonalizatuak eta aholkularitza

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta
Txapa eta pintura

Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 333

GIZARTEA

OSPAKIZUNAK → OMENALDIAK GORRAIZEN

Urrezko eta Platinozko Ezteiak eta 85 urte egin dituztenak omendu ditu Arkupeak-ek

15 bikote eta 85 urteko 28 lagun omendu dituzte

TTIPI-TTAPA

Arkupeak Erretiratu-en Elkarteak ekainaren 3an egin zuen urteroko

omenaldi-bazkaria Gorraizen. Aurten 85 urte bete dituztenak eta Urrezko Ezteiak (50 urte ezkondurik) eta Platinozko Ezteiak (65 urte ezkondurik) egin dituztenak omendu zituen, eta ohi bezala, meza entzun ondotik, banan-bana oroigarriak



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ohi bezala, sariak banatu aitzinetik meza aditu zuten bazkideek eta eurekin joandakoek.

banatu zituzten.

Aurten guztira, Arkupeak elkarteko 28 bazkidek bete dituzte 85 urte. Urrezko Ezteiak 14 senar-emaztek egin di-

tuzte eta Platinozko Ezteiak, berriz, Etxalar-ko bikote batek, Juan Maiak eta Juana Arizte-rik, hain zuzen.

Oroigarriak banatutako-

an, bazkaria eta dantzaldia izan zuten eta arrats partean berriz ere autobusera bildu eta baikoitza bere herrira bueltatu zen.

URREZKO EZTEIAK (50 urte)

Bernardo Rekalde Barrenetxe – Manuela Irigoien Agerrebere	AMAIUR
Francisco Javier Larralde Ustariz – M ^a Angeles Elizalde Jaimerena	ARIZKUN
Luis Irazoki Elgorriaga – Milagros Altzuguren Esteberena	BERA
Felipe Ganboa Jorajuria – M ^a Jesus Zabalo Otxandorena	DONEZTEBE
Jesus Hernandez Torrecilla – M ^a Jesus Dorronsoro Otxandorena	DONEZTEBE
Gastone Lestucci Colussi – M ^a Concepcion Sarobe Etxeberria	ETXALAR
Simon Iguzkiagirre Zozaia – Juana Urtxegi Huizi	IGANTZI
Inaxio Telletxea Arozena – Begoña Iparragirre Manterola	IGANTZI
Marcelino Talaban Albarran – Herminia Flores Lahera	IRUN
Jose Erasun Marizkurrena – M ^a Concepcion Etxeberria Erasun	BEINTZA-LABAIEN
Jose Julian Gartziaarena Arregi – Juana Mariñelarena Zubitur	LEITZA
Antonio Etxeberria Irigoien – Juana Agesta Altzugarai	SUNBILLA
Eugenio Ariztegi Iribarren – M ^a Jesus Arozena Iribarren	OIZ
Jose Arozena Iribarren – Presentacion Juanena Iribarren	URROZ

85 URTEKOAK

Jose Francisco Baraibar Pellejero	ARESO
Juana Mari Saizar Sukuntza	ARESO
Soledad Duhalde Iribarren	ARIZKUN
Salvador Iriarte Sansiñena	ARIZKUN
Agustin Eizagirre Larrea	BERA
Juana Ganboa Jorajuria	BERA
Maria Pilar Irazoki Elgorriaga	BERA
Lolita Habans Inda	ELIZONDO
Micaela Izeta Elizalde	ELIZONDO
Eugenio Santesteban Elizondo	ETXALAR
Jeronimo Castillo Bravo	IRUN
Maria Juncal Violet Urtasun	IRUN
Fernanda Iñarra Lekuona	IRUN
Pilar Zumalabe Sagarzazu	IRUN
Tomas Mutuberria Martikorena	ITUREN
Francisco Biurrarena Bereau	LEITZA
Margarita Zabaleta Olaskoaga	LEITZA
Maria Angela Altzugarai Zabaleta	NABARTE
Juan Mindegia Ariztegi	OIZ
Visitacion Aldabe Mitxeo	SUNBILLA
Maria Rosa Elizondo Bazterrika	SUNBILLA
Micaela Goñi Gaskue	SUNBILLA
Miguel Graziarena Mixeltorena	SUNBILLA
Victoriano Arzuaga Saldias	URROZ
Micaela Baleztena Vera	ZUBIETA
Rufina Elizalde Sansiñena	ZUBIETA
Maritxu Santesteban Santesteban	ZUBIETA
Joakin Elizalde Sansiñena	ZUBIETA

PLATINOZKOAK EZTEIAK (65 urte)

Juan Maia – Juana Ariztegi	ETXALAR
----------------------------	---------

TNC PUERTAS NUEVA CASTILLA

AGENTEA ANTTON LEGORBURU GOÑI

Ate berriak kolokatu eta reparazio lanak

Mugikorra: 670 497 485 • Tailerra eta faxa: 943 630 774

GREBA → LAB, ELA, ESK ETA STEE-EILAS SINDIKATUEK DEITUTA

Arlo publikoan deitutako grebak segida haundia izan du eskualdean

Bortzirietan eta Leitzaldean udalak itxiak egon ziren

TTIPI-TTAPA

LAB, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatu-ek maiatzaren 25erako arlo publikoan deitutako greba deialdiak arrakasta izan zuen eskualdean.

Bortzirietako udal zerbitzuak geldirik izan ziren, baita Doneztebe-koak ere eta Baztanen %50 gelditu zen. Mankomunitateei dagokienez, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean guttiene-ko zerbitzuak bete zituzten, atentzioa behar duten zaharrak artatzeko. Hiri-Hondakinen Mankomunitatea eta Male-rra eta Bortzirietako



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Kontzentrazioa egin zuten arlo publikoko langileek Berako Herriko Etxeko Plazan.

Euskara Mankomunitateak ere geldirik egon ziren. Leitzaldeko Udalak eta mankomunitateak ere geldirik egon ziren.

Ikastetxe publikoei dagokienez, Berako Ricardo Baroja ikastetxe-an langileen %50ak greba egin zuen eta bertze erdia lanean aritu zen,

baina soldata gizarte zerbitzuei bideratzeko. Berako Toki-Ona Institutuan grebak %60ko jarraipena izan zuen, Etxalar-ko Landagain ikastetxe publikoan bezala. Lesakako Irain eskolan %70eko jarraipena izan zuen eta Arantza eta Igan-tziko eskoletan ere jarrai-

pen haundia. Baztan eta Malerrekako eskoletan, banazbertze %50-%60ko jarraipena izan zuen.

Grebarekin batera, kontzentrazioa egin zen Berako Herriko Etxeko Plazan. *Administrazioan murrizketarik ez!* zioen pankartaren gibelean 30-40 bat lagun bildu ziren.

EUSKARA

UEMA Eguna larunbatean Mallabian

TTIPI-TTAPA

Berako herriari leku-koa hartu, eta *Ein eingou* lelopean urte-ko besta haundia egi-teko Mallabia (Bizkaia) aukeratu du aurten UEMA Udalerri Eus-kaldunen Mankomu-nitateak, 18 urte bete dituen urtean. Goizean goizetik izanen dira ekitaldiak, eta tar-tean, herrien arteko Xi-ba jokoak, mahai-in-gurua, Xabier Mendi-gureni aitortza, herri bazkaria, kantu saioa, ume eta gaztetxoentz-atz ipuin kontalaria eta jokoak. Horrez gain, 18:00etatik aitzinera Erlaxi taldearekin dan-taldia izanen da, eta egunari behar bezala-ko akabera emateko, 23:00etan Damu Dot taldeak disko berria aurkeztuko du.

2010 / 2011 IKASTURTEA

TOKI ONA BHI BERA - NAFARROA

LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
Industria ekipoen mantenimenduan
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoan
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

ORAINDIK GARAIZ ZAUDE, DEITU ETA INFORMATUKO DIZUGU!

Tel.: 948 625 000 | e-mail: iesbera@pnte.cfnavarra.es | Web orria: http://irati.pnte.cfnavarra.es/iestokiona/



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ainara Fresneda, maiatzaren 29an egin zitzaion harreran.

POLITIKA → EUSKAL PRESOKAK

Ainara Fresneda eta Joseba Iturbide aske gelditu dira

Maiatzaren 22an atera zen Ainara Palentziako espetxetik zigorra beteta eta Joseba ekainaren 1ean askatu zuten kargurik gabe

ri xume bat eskaini zitzaion bere etxe atarian. Senideek eta lagunek ez zuten Ainara besarkartzeko aukera galdu eta Aurrekua ere dantzatu zioten. Astebete beranduago ere, maiatzaren 29an, ongi-etorri zabalagoa egin zitzaion Lindurrenbordako atarian, musika, Aurreku eta herri bazkari batekin.

Ainararen itzulera aspaldian iragarria zegoen, baina Joseba Iturbiderena ezustea izan zen. Ekainaren 1eko arratsaldean, inolako kargu eta baldintzarik gabe aske utzi zuten Valdemoroko kartzelan, bi urte baino gehiago espetxean eman ondotik eta gau partean ailegatu zen herrira.

Aitor AROTZENA

Ainara Fresneda Etxeberria lesakarra aske gelditu zen maiatzaren 22an, bortz urteko kartzela zigorra bete ondotik. Palentziako Dueñas espetxetik atera zen goizean eta eguerdian ongi-eto-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Berdintasunari buruzko margo lehiaketa egin da Irain eskolan

Berdintasuna gaitzat hartuta margo lehiaketa egin zuten Irain eskolan maiatzean. Juan Carlos Pikabea margolariak eta Guraso Elkarteak erabaki zituzten saridunak eta Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako berdintasunerako teknikaria ere izan zen ekainaren 1ean egin zuten sari banaketan. Mailaz maila. 2 urtekoen artean Elixabet Tapia izan zen irabazle, 3 urtekoetan Kattalin Txoperena, 4 urtekoetan Ainara Senper, 5 urtekoetan Jontxu Urrusolo, 1. mailan Naroa Bertiz, 2. mailan Amaia Taberna, 3. mailan Andoni Seiseddos, 4. mailan Ainhoa Larralde, 5. mailan Beñat Ordoki eta 6. mailan Matixa Telletxea.



UTZITAKO ARGAZKIA

XXVII. Txoko-Txiki lehiaketako sariak banatu ditu ikastolak

Tanturumairu ikastolak antolatutako XXVIII. Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketako sari banaketa egin zen maiatzaren 28an. Ipuin lehiaketan hauek izan ziren irabazleak: 1. mailan Olatz Arakues, 2. mailan Xabier Igarzabal, 3. mailan Uxue Mesa, 4. mailan Julen Otxoteko, 5. mailan Paulo Ramos eta 6. mailan Martin Lanz. Ilustrazio lehiaketan, 1. mailan Izaro Iparragirre nagusitu zen, 2. mailan Iratxe Muxika, 3. mailan Kattalin Odriozola, 4. mailan Leire Igoa, 5. mailan Andrea Lasaga eta 6. mailan Beñat Conde.



ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabiueak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESKA • 651 704 593



GOIZ-ALDI
Lanaberrera
0948 637 127 • LESKA



IRU BIDE
Energia • Auzoak
Barrutia, 31 • Leska
Tel: 948 637 127



XATURETXEA
ZABAI
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESKA

ETXALAR

HERRIA → AZPIEGITURAK

Arrakasta handiz joan da auzolanetako lehen deialdia

Espero baino parte hartze handiagoa izan du

Irune eta Itsaso

Udalak auzolanetarako proposatutako lehenbiziko eguna arrakasta handiz joan zen maiatzaren 29an. Ehun lagun baino gehiagok parte hartu zuten. Dena den, baserri-auzoetan herrian baino gehiago aritu ziren lanean.

Karrikan bizi diren hainbat bidexka garbitu eta bide zaharrak berreskuratzen aritu zen. Eta herrian egindako lanen artean aipagarrienak hauek izan ziren: paretak garbitu, bankuak, frontoiko marrak eta herrian barna dauden barandak pintatu, informazio-panelen egurrezko etxolak garbitu, igerilekuko belarra moztu... Baserri-auzoetan auzo-

lanetarako ohitura hau ez dago galdua, urtero euren bideak garbitzen baituzte baseritarrek eta oraingoan ere berdin egin zuten. Patxiku Irisarrik erran duenez, aitzinetik, jende aunitzek idatziz eskatua zuen zer lan egin nahi zuen eta alkateak aipatu du kasu gehiengotan jendea taldeka bildu zela lan hauek egiteko.

Espero zena baino herritar gehiagok hartu zuen parte eta Udala kontent agertu da emaitzarekin. Baina hurrengo deialdia, abuztuaren 7koa, auzolanetan arrakastatsuen izanen dela espero du; aspaldiko ohitura baitzen herriko besten aitzinetik auzolanak egitea.

Bertzalde, aipatu, lehenbiziko auzolan egun honek bere alde iluna ere izan zuela, lanean ari zirenean mutil bat motozerrarekin zauritua izan baitzen, baina zoriez ez zen larria izan.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Herritarrek hainbat lanetan aritu ziren maiatzaren 29an.



ARGAZKIAK: ITSASO ELIZAGOIEN

Bortz neska-mutikok egin zuten lehen Jaunartzea

Maiatzaren 30ean bortz neska-mutikok lehenbiziko Jaunartzea egin zuten. Elene Alzuguren, Aimar Iparragirre, Arnaldo Gomez, Imanol Telletxea eta Mikel Indaburu izan ziren. Euri arriskua zela eta ez zen prozesiorik egin baina meza ondotik arazorik gabe elizako atean argazkiak atera ahal izan zituzten luntxara joan aitzinetik.

Okindegiko batzarra

Asteazken honetan, hilak 9, izanenda okindegiko batzar orokorra udaltxeko bilera aretoan

20:00etan. Bazkide guztiei gonbidapena luzatu zaie parte hartu eta gai hauek solasteko: iazko kontuak, emaitzen erabilerarako proposamenak, eskaerak eta galderak eta batzordearen aktaren irakurketa, bertzeak bertze.

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

Lentona
Banantzen
Mertzen
Jantzi tipikak
Purifikatzaileak
kaltogorria
Beneke plaza 10 30770 Lezoa
T. 948 627 514

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

HEZKUNTZA → IKASTURTE BUKAERA

Iturenera mendiz joateko ateraldia antolatu du Biltokik ekainaren 26rako

Izena emateko azken eguna ekainaren 19a izanen da

TTIPI-TTAPA

Mendian ibiltzea gus-tuko duenarentzat hitzor-du ezin hobe egin du Biltoki elkarteak ekainaren 26rako: Iturenera mendiz joanen dira. Herri-ritik abiatuta, Mendaur igo eta Iturenera jaustea izanen da egin beharrekoa eta horretarako 08:00etan abiatuko dira. Behin harat ailegatuta, Aurtizko Ostatuan bazkaria eginen da.

Irteeran parte hartu nahi duenak ekainaren 19a izanen du apuntatzeko azken eguna, eta 20 euro ordaindu behar dira horretarako.

Sanjuan Xarreko besta gainean

Tradizio haundiko besta izaten da Sanjuan Xarren egiten dena tenore honetan eta aurten ere hala izanen da. Sanjuan Egunarekin, ekainak 24, ortzeguna, hasiko da urteroko besta. Egun horretan, 12:00-etan, Arantza eta Igantzi apezpe den Martin Legarrak meza emanen du. Hortik aitzinera, uztailko igande guztietan izanen da besta eta aldiz guztietan 12:00etan izanen da meza.

Pala eta frontenis txapelketa

Aurten 28. aldiz pala txapelketa eginen da Biltokik antolatuta, eta horrekin batera, frontenis txapelketa ere bai. Dagoeneko izen-emateko epea zabalik dago eta ekainaren 20ra arte izanen da aukera, bi kasuetan bikoteko 25 euro ordainduta. Txapelketak aitzinera ateratzeko guttienez sei bikotek eman beharko dute izena.

Greba solidarioa

Maiatzaren 25a greba eguna izaki, irakasle batzuek zera erabaki zuten: greba arrunta egin beharrean, lanera joan eta egun horretan Nafarroako Gobernua kendu behar zuten dirua, eurek nahi zuten erakundeari ematea. Hala, ekonomikoki larri dabilen eskolako familiari eta Euskara Mankomunitateari ematea erabaki zuten. Erabakiaren helburuak «Gobernuak hartutako erabakiaren kontra gaudela erakustea eta krisiaren ondorioz, gaizki pasatzen ari direnei gure diruz laguntzea» izan zirela adierazi dute eskolatik.

Markesina egiteko dirulaguntza

Autobusaren markesina egiteko 12.000 euro eman dizkio Nafarroako Gobernuak Udalari.



ARGAZKIA: ESKOLA

Haurren Eguna eginen dute eskolakoek ekainaren 23an

Azken txanpan sartu dira eskolako neska-mutikoak, eta irailaz geroztik lan eta lan aritu ondotik, laster ailegatu zaie ikasturtea agurtzeko tenorea. Merezitako bukaera emateko, eta oporrak ongi hasteko, ohi bezala, azken egunetan egun-pasa eta Haurren Eguna eginen dituzte. Ekainaren 22an, asteartearekin, Senperera joanen dira ikasle eta irakasleak eta egun osoa han pasatuko dute. Bi-haramunean, hilak 23, ohiko Haurren Eguna eginen da. Seigarren mailakoak agurtuko dituzte lehendabiziko, hurrengo ikasturtean Berara joanen direlako ikastera, eta ondotik, denak elkarrekin eta trikitixa doinuekin, frontoira joanen dira. Han gaztelu puzgarriak eta bizikletak izanen dituzte eta 13:30era arte jolasen aritzeko aukera izanen dute. Ondotik, Guraso Elkarteak antolatuta, eskolako jantokia bazkaria eginen dute guztiek elkarrekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Miranda de Argatik bi sari

Euskararen Eguna egin zen maiatzaren 29an Miranda de Argan, eta Euskararen lagunak elkarteak antolatu zuen Ipuin Laburren Lehiaketan bi herritar sarituak izan ziren. 11-14 urtekoetan, Eider Lizarrondok lehen saria hartu zuen -trofeoa, 12 liburu eta Senda Vivarako bi sarrera-, eta helduetan, Jo-xean Ortegak 2. saria -100 euro eta hiru botil ardo-.

zalain
JATEETxea - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

ZOANSA

SEAT
VW
HYUNDAI
Audi

ZOANSA

MARKA GUZTIAK KONPONKETA
Banaria, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESACA (samiara Beratik)
Tel. 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ARANTZA

MENDIA → EKAITZA ELKARTEAK ANTOLATUTA

700etik goiti mendizalek parte hartu dute Mendi Itzulian

Kontent gelditu dira partaideak eta antolatzaileak

Nerea ALTZURI

Ailegatu zen maiatzaren 23a eta aurreikuspenek ez zuten hutsik egin. Eguraldi ederra iragarria zegoen, eta antolatzaileak jendea bilduko zela itxaropentsu zeuden bezperan. Horrela gertatu zen: eguraldi ezin hobea eta mendizale aunitz herriko mendi ton-tor eta magaletan. Goiz batez herriko populazioa bikoiztu zen, 700etik goiti lagunek eman zuten izena Arantzako zirkoa egin nahirik, eta 704k akautu zuten Itzulia.

06:30 baino lehen eguna girotzen hasia zen eta 08:00 arte jende purrusta hurbildu zen txartelak eske. Ibilgailu errel-doa Sanjosetik behera

zegoen, gorago pasatzea ez baitzuten uzten eta hortaz, bat baino gehiagok entrenamendu eta beroketarako astirik izan zuen Mendi Itzulia egin aitzinetik.

Eguraldi sana, goiz giro egokia... Baina eguerdi aldera, termometro merkurioak gora egin zuen, bero ederra bota baitzuen. Jan edariak ailegatu ziren, antolatzaileak adi egon baitziren. Ura akautu zen eta gehiagoren bila joan behar izan zuten, ehunka litro edan baitziren. Gainerakoan, itzulia mantsoago egin zutenek ere plazan bazuten jatekoa.

ESKERRAK

Ingurukoak eta Euskal Herriko hainbat tokitako lagunak bildu dira aurten ere. Zerbait nabarmentzekotan, antolatzaileen ahotan, gero eta gazte gehiago animatzen dela itzuli hauetara. Herri-



ARGAZKIAK: WWW.MENDITZULIA.COM

Gozatu egin zuten mendizaleek maiatzaren 23ko itzulian. Bertzalde, plazan, Pelettiki Haur Eskolak bere materiala salgai paratu zuen, dirua biltzeko. Zare bat ere zozketatu zuen.

tarren nahiz inguruko borondatea ere ez da tiki izaten egun honetan. Ekaitza Elkarteak antolatzen badu ere, Gazte Asanblada, Udala, mendi postuetako boluntario, ostatu nahiz bertze zerbitzuetako eskuzabaltasunak bat eginik, egun borobila atera zen. Eta antolatzaileek lagundu eta parte hartu duzen guztiei eskerrik asko emateko lerro hauek baliatzeko eskatu digute. Zorionak eta hurrengoaren esperoan egonen ga-

ra. Oraindik itzulia oso-rik egin ez dugunok bi urte ditugu prestatzeko!

Mikel gogoan

Maiatzaren 20an atxilotetak izan ziren Baionan, eta tartean Mikel Karrera Sarobe -Luzifer lagunentzat- hartu eta geroago espetxeratu egin zuten. Herriarekin lotura haundia du Mikel, eta lagun honen oroimenez, elkarretaratzea egin zen biharamunean. Mendi Itzuli egunean ere gogoan izan zen.

San Juan Eguna Zahar Txokon

Ohi bezala, Zahar Txokoko bazkideek elkarrekin pasako dute San Juan Eguna. Eguerdian San Juan Xarrenen izanen den mezaren ondotik, bazkaria eginen dute egoitzan. Salvador Madariaga eta Josetxo lantzi bertsolariak eta herriko trikitilariak giroa alaitzeaz arduratuko dira. Bazkarian parte hartu nahi duenak ekainaren 15a izanen du apuntatzeko azken eguna.

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

BAR
Botxo
OSTATUA

Zelai • BERA • 948 630 052

Tel:
948 634 179

ARANTZA

ATERPE
ALBERGEA • JATETXEA

JAXONE-GOZATEGIA

Alzate, 19 • BERA • 948020788

Alberto RETEGI

abokatu
abokatu

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

UDALA → ZOR PUBLIKOA ESPAINIAKO EKONOMIA ETA OGASUN MINISTERIOAREN DATUAK

21,3 milioi euroko zorra dute eskualdeko 17 udalek

25etik zortzi udalerrik ez dute inongo zorrik

TTIPI-TTAPA

TTIPI-TTAPAren Hego Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik 17k 21.289.000 euroko zorrekin itxi zuten 2009a. Hala ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak berriki argitaratu dituen datuetatik. Emandako zenbakiak banketxeetan dauden zorrek dira, kredituei dagozkienak, beraz.

Hainbat arrazoi egon daitezke udal bakoitzaren mailaren gibelean: finantzazio desegokia, edo azpiegiturretan obra haundiak egin dituztelako... Zorrik ez dutenen kasuan, aldiz, inbertsiorik egin ez dutelako ere izan daiteke.

ZORRIK HAUNDIENA, HERRI HAUNDIENETAN

Txostenaren arabera,

zor haundiena dutenak udalerririk haundienak dira. Baztan dago lehen postuan 8.311.000 euroko zorrarekin; ondotik Lesaka 4.904.000 eurorekin; hirugarren Leitza 2.305.000 euroko zorrarekin eta laugarren Bera 1.392.000 euroko zorpetze mailarekin.

Bertze udal batzuek, ordea, ez zuten euro bakar bateko zorrik joan den urte bukaeran. Eta horixe da Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Goizueta, Saldias, Urroz eta Zubietaren kasua.

Gainerako udalak milioi bat euroko zorraren azpitik daude.

ZORPETZE ALTUAGOA

2008ko abenduaren 31n udalen zorpetze maila kontuan hartuz, 3.558.000 eurotan igo da. Zorrik gabe segitzen dutenak berdintsuak dira, eta bertzeen kasuan, batzuetan goiti eta bertzeetan beheiti egin du zorrik.

Bertalde, Nafarroako datuak aintzat hartuz,

HERRIA	ZORRA 2009AN	ZORRA 2008AN
ARANO	0 euro	0 euro
ARANTZA	459.000 euro	473.000 euro
ARESO	379.000 euro	387.000 euro
BAZTAN	8.311.000 euro	5.988.000 euro
BEINTZA-LABAIEN	0 euro	0 euro
BERA	1.392.000 euro	955.000 euro
BERTIZARANA	347.000 euro	273.000 euro
DONAMARIA	0 euro	0 euro
DONEZTEBE	419.000 euro	467.000 euro
ETXALAR	480.000 euro	329.000 euro
ELGORRIAGA	10.000 euro	0 euro
ERATSUN	64.000 euro	50.000 euro
EZKURRA	0 euro	0 euro
GOIZUETA	0 euro	0 euro
IGANTZI	521.000 euro	206.000 euro
ITUREN	241.000 euro	272.000 euro
LEITZA	2.305.000 euro	2.496.000 euro
LESAKA	4.904.000 euro	4.528.000 euro
OIZ	106.000 euro	112.000 euro
SALDIAS	0 euro	0 euro
SUNBILLA	54.000 euro	45.000 euro
URDAZUBI	602.000 euro	494.000 euro
URROZ	0 euro	48.000 euro
ZUBIETA	0 euro	0 euro
ZUGARRAMURDI	695.000 euro	608.000 euro
GUZTIRA	21.289.000 euro	17.731.000 euro

*Oharra: 2008 eta 2009ko abenduaren 31ko datuak dira.

Iruña (69.010.000 euro), Tuteran (15.199.000 euro), Castejon (12.222.000

euro) eta Baztan dira zerrendan lau lehendabizikoak. Horien ondotik,

zerrendan 12.a da Lesaka, 26.a Leitza eta 43.a Bera.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ZUBIONDO

Jatetxea

Agardotegia Jatetxea

Alasta karrrika
TEL: 948 637 474
BERA NAFARROA



HANARTEGIA / URDAITEGIA

(Lezaola 8. sotoa)

Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 • BERA

SUNBILLA

ERREPIDEAK → PROTESTAK

Bidegurutzeari irtenbide duin bat bilatzeko protestak hasi dira

Hilabetean behin eginen dira mobilizazioak

Jaione OTXANDORENA

Hasi dira mobilizazioak. Hala, N-121A errepidetik herrirako bidegurutzeari irtenbide duina emateko eskatuz errepidea itxi zuten ekainaren 3an 200 bat bizilagunek, Pako Errandonea alkatea eta udal zinegotziak buru zirela. Berze herri batzuetako udal ordezkariak eta Aitor Etxarri, Nabaiko parlamentaria ere bertan izan ziren.

Sunbilla, sarrera duin batzuen alde eta 5 hildako, zein da ordaindu beharreko bidesaria? zioten pankarta banaren giblean ibili ziren. Irun aldeko norabidea itxi zuten lehenik eta Iruña alderakoa ondotik. Nafarroako Gobernuak ez zuelako osorik ixteko baimenik

eman, eta kargu publikoek inhabilitazioa ere jaso zezaketelako.

Alkateak gogorarazi zuenez, Herrilan Departamentutik proposatzen diren irtenbideak ez dira batere egokiak: «Irun alderakoa orain dagoen bezala geldituko da eta Iruña alderakoa, 900.000 euro eta milioi baten artean gostako da eta erdian esperatzeko karril bat bertzerik ez da izanen. Hori kasik orain dagoena baino arriskutsuago iruditzen zaigu eta guk behetik edo gainetik pasabidea eskatzen dugu. Zerbait egin behar bada, ongi eta betirako zerbait egitea eskatzen dugu».

Gobernuak herritaren proposamenerako leku nahikorik ez dagoela erantzun omen du, baina alkatearen arabera, «ingeniarrien bidez frogatu dugu hori ez dela egia; tokia badago, baina borondatea falta da eta garestiagoa da». Aitzinera be-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herritik bidegurutzerako bidea egindakoan, N-121A errepidea itxi zuten herritarrek.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Dantzari tikiak Urnietan

Haur dantzari batzuk Urnietako ikastolako bestan izan ziren maiatzaren 14an, Gartzaín eta Elizondoko dantzariekin. Eguraldi txarra egin zuen eta ez ziren behar adina dantza egin, baina eguna ongi joan zen. Gosaldu, agurra ikastolan egin eta frontoian egin zituzten gainerako ekitaldiak. Akitzean, ikastolakoek bazkaltzera gonbidatu zituzten. Autobusean egin zuten joan-etorria, dantzari, txistulari eta gurasoek.

gira, hilabetero mobilizazioekin segituko dute.

Ulibeltzak Elkarteko batzarra larunbatean

Ulibeltzak Elkarteko zuzendaritza batzordeak bilerara deitu ditu bazki-

deak larunbaterako, ekainak 12. 19:00etan izanen da eta elkarte haunditzeari buruz hitz eginen da. Arkitektoak bi proiektu aurkeztu ditu eta larunbateko bileran, bazkideek bi horietan egokiena

zein den aukeratuko dute boto bidez.

Igerilekuak

Ekainaren 15ean zabalduko dituzte igerilekuak eta Nerea Gartzia da ardura hartu duena.

CAMPING BIZTIGAIN

OSTATU JATETXEA

- pintxoak
- bokotak
- txakur
- potaje konfesionak
- miñuak
- kofete

11 711 SUNBILLA
NAFARRA
TEL: 948 432 242
BIZTIGAIN - BIZTIGAIN
www.campingbiztigain.com

BEZERO AGURGARRIAK

Gasa eta elektrizitate kudeaketak egiteko Iberdrolako Puntu berri honetan aurkituko gaituzue:

AMAIUR ALTZARIAK
Rosa Seminario, 13 - DONEZTEBE
T. 630 77 96 36

Astelehenetik ostiralera
09:00etatik 14:00etara

www.iberdrola.es

KIROLA → SAN PEDRO BESTEN AITZINETIK

XXXII. Herri Krosa eginen da ekainaren 27an herriko karraketan

Adinaren arabera, ibilbide desberdina egin beharko dute

TTIPI-TTAPA

San Pedro besten aitzineko asteburuan, ekainaren 27an, Herri Krosa eginen da Erreka Kirol Elkarteak antolatuta. XXXII. edizioa izanen da aurtengoa, baina aipatzekoa da bereziki azken hiru urteotan parte-hartze haundia lortu duela, 180 korrikalari izatera ere ailegatu baita.

Adinaren arabera, kategoriatan banatuko dira korrikalariak eta horren arabera, ibilbide desberdina egin beharko dute: Aurrebenjaminen eta benjaminen 200 metro egin beharko dituzte; alebinen 500 metro; infantilek kilometro bat; jubenilek eta emakumezko seniorrek lau kilometro eta gizonezko seniorrek eta beteranoek, azkenik, zortzi kilometro.

Gazttxoenak, aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30ean abiatuko dira, eta jubenilak, se-

niorrak eta beteranoak, berriz, 11:30ean.

IZEN EMATEA ETA SARIAK

Izena emateko bi modu daude: egunean berean, bortz euro ordainduta, edo aitzinetik www.herrikrossa.com web orrian lau euro ordainduta. Dena den, jubenilek eta hortik goitiko kategoriek baino ez dute ordaindu beharko, gazttxoenentzat dohainik izanen delako.

Sariei dagokienean, gizonezkoetan, lehenak 150 euro hartuko ditu; bigarrenak 90 euro; hirugarrenak 60 euro; laugarrenak 45 euro; bortzgarrenak 30 euro eta seigarrenak bertzelako saria hartuko du.

Emakumezkoetan, aldiz, lehenbiziko sailkatuak 75 euro irabaziko ditu; bigarrenak 45 euro; hirugarrenak 30 euro eta laugarrenentzat bertze zerbait izanen da.

Sanpedro bestak

Sanpedro bestak gainean ditugu, eta aldi honetako aldizkarian bestetako xehetasunak aurkituko dituzue.



ARGAZKIA: OSKAR MINDEGIA

Lau domina eskuratu dituzte Errekako judoka benjaminen

Benjamin mailako Nafarroako Judo Txapelketako finalak ere kiroldegian jokatu ziren maiatzaren 8an. Han aritu ziren Errekako judokak dominen bat lortzeko borrokan, eta bai lortu ere. Lau domina eskuratu zituzten: urrezkoa Naxara Jaunsarasek, bi zilarrezkoak Idoia Gardek eta Manex Etulainek eta brontzezkoa Gogor Atxalandabasok. Errekako 11 judokak jokatu zuten eta Oskar Mindegia irakaslearen hitzetan, «guztiek ere hagitz saio onak» egin zituzten. Baina batzuek zorte txarra izan zuten, «pisu berdinean lehiakide aunitz izanda, zailagoa baita dominak eskuratzea».



UTZITAKO ARGAZKIA

Mariezkurrena kamioi gidariak ongi hasi du Europako txapelketa

Europako kamioi lasterketen denboraldi berriari ekin dio Javier Mariezkurrenaren Truck Navarra Competicion taldeak eta emaitza onekin bueltatu zen maiatzaren 22-23ko asteburuan Italiako Misanon egindako karreretatik. Larunbatarekin, puntuak lortzeko lehen karreran, hamargarren postua lortu zuen, denboraldiko lehen puntua eskuratuz. Bigarren karrera gazi-goza izan zen. Izan ere, pistana olioia zegoela eta, karrera bertan behera utzi zuten epaileek. Albiste txarra Mariezkurrenarentzat, olioia saihestu eta seigarren postuan baitzen, zazpigarrenari alde handia ateraz. Igandeko sailkapen probetan, polerako hamargarren postua eskuratu zuen. Igandeko lehen karreran, laisterketa burutik bi segundu eta erdira ibili zen eta hamargarren postu hori mantendu zuen, bertze puntu bat eskuratuz. Asteburuko laugarren eta azken saioan, hamargarren postua mantendu zuen, laisterketa burutik bi segundora denborak mantenduz. Karrera erditsuan bederatzigarren postua hartu zuen eta horri eutsi zion bukaera arte, bi puntu lortuz. Lau puntu haiekin, Europako txapelketan hamargarren postuan jarri zen Mariezkurrena eta Truck Navarra taldea, Sponsor's Challenge sailkapeneko buruan dago. Lasterketako bigarren proba Albaceten jokatzekoa zuen joan den asteburuan.

Etxe Ardi Gaista

Lizun
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

Eginazu
TTIPI-TTAPAren alde
proiektu zenbakia:

15.996

ITUREN

HEZKUNTZA → IKASTURTE BUKAERA

Ikasturteko azken ateraldia egingen dute neska-mutikoek ekainaren 21ean

Eguraldiaren arabera, toki bat edo bertzea aukeratu dute

Arkaitz MINDEGIA

Eskola guztietan bezala, herriko irakasle eta ikasleak ere azken egunetan sartuak dira eta ekainaren 21n hondarreko ateraldia egingen dute. Eguraldiak lagunduz gero, Hondarribiara joanen dira. Goizez itsasontzian ibiltzeko asmoa dute eta arratsaldean hondartzan plitiplasta uretan ibili. Euria egiten badu, berriz, Olite aldera joanen dira hango gaztelua ikusi eta igerilekuan bainatzera.

ESKOLA BERRIAREN IZENA ETA IRUDIA

Iturenen egingen den eskola berriaren izena

eta logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin zuten eskolak orain dela urte bat inguru. Handik, *Pulunpa* izena atera zen eta behean duzuen marrazki hau ere aukeratu zen. Eskola Kontseilurak proposatu zuen *Pulunpa Ikastetxe Publikoa* izena paratzea, eta Udalak onartu egin du.

Arkupeak omendua

Urtero bezala, bere bazkideak omendu zituen Arkupeak Elkarteak ekainaren 3an Gorraizzen, eta tartean, Tomas Mutuberria Martikorena. Aurten 85 urte bete dituelako omenaldi ttiki bat jaso zuen berak ere. Besta egun guzian izan du zuten: goizean meza entzun, omenaldia jaso eta gero bapo bazkaldu zuten, baita dantzatu eta solastu ere.



ARGAZKIA: EKIÑE MINDEGIA

Hiru neskatxa gaztek Jaunartzea egin dute

Lehen Jaunartzea egin zuten argazkian ageri diren hiru gazte hauek maiatzaren 23an. Ainara Altzuri, Enara Ariztegi eta Janire Mindegia izan ziren aurtengo protagonistak eta eguraldiak ere aunitz lagundu zuenez, ederki pasatu zuten eguna.



ARGAZKIA: EKIÑE MINDEGIA

Eguraldi kaxkarra Trinitate Egunean

Ez zuen sobera lagundu eguraldiak Trinitate Egunean, maiatzaren 30ean. Jendeak, halere, ohiko bisita egin nahi izan zuen ermitara, baina kaxkoan denbora luzez egon gabe buelta egin zuen. Enbaltsetan egitekoak ziren bazkariak ere bertan behera gelditu ziren, eta iturendarrek Herriko Etxeko Ganbaran eta aurtiztarrek elkartean bazkaldu zuten. Eguraldia ona ez izan arren, giro ona sortu zen.

Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Maiatzaren 28an Beran jokatu zen Nafarroa-

ko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean 14-18 urte bitarteko kategorian herritar bat izan genuen: Egoitz Gorosterrazu. Ez zuen

txapelik ekarri, baina lehenengo fasea pasatu eta sei bertsolari onen artean gelditu zen, eta oso lan txukuna egin zuen.



Ttiti-Ttapa fundazioak zure laguntza behar du!

Eginzazu TTIPI-TTAPAREN alde

proiektu zenbakia: **15.996**

Zure laguntza eskertzeko, boltsa edo hau aparti izanen duzu!



OSPAKIZUNAK → AUZOTARREK ANTOLATUTA

Oritzako besta egingen da larunbat honetan bosgarren aldiz

Bazkaria, musika eta bertsolariak izanen dira

Fermin ETXEKOLONEA

Dagoeneko bost urte pasatu dira auzotar batzuk Oritzako iturriaren inguruan bildu eta egun bateko besta antolatzen hasi zirenetik. Eta gaur egun, egutegian, ekaineko ohiko hitzordu bihurtu dela esan daiteke. Aurten ere ez du hutsik egingen, eta larunbat honetan, ekainak 12, ohi bezala Oritzako iturriaren inguruan elkartu eta bazkaria egingen da. Ondotik, herriko gazteek musika doinuak jarriko dituzte eta bertsolariek ere euren saioa eskainiko dute. Seguru, aurreko urtee-

tako giroak ez duela hutsik egingen. Dena den, ezin aipatu

gabe utzi, joan den urtean istripuz hil zen Olatzenekobordako Joxe

Mari Urrutia, bere kantak faltan botako ditugu Oritzako bestan.



ARGAZKIA: AMAIA OTXANDORENA

Loreak Amabirjinarentzat

Ohiturari segituz, maiatzeko igande guztietan mezara joan eta loreak eskaini zizkion herriko neskatxa gazteek Amabirjinari. Aurtengo protagonistak argazkian ageri diren bost gaztetxoak izan ziren: Karmele Santesteban, Naroa Santesteban, Garazi Santesteban, Naiara Anso eta Mikele Etxekolonea. Ederki egin zuten euren lana eta urteko azken hitzordua Besta-berri egunean egitekoa zuten.

85 urteko lau herritar

85 urte bete dituzten lau herritar omendu zituen Arkupeak elkarteak ekainaren 3an Gorraizen egindako ospakizunean: Maritxu Santesteban Santesteban, Rufina Elizalde Sansiñena, Joakin Santesteban Indakoetxea eta Mikela Baleztena Vera. Zorionak guztiei!

Bi zubiatar Quebrantahuesosen

Ekainaren 19an Sabiñanigon (Huesca, Espainia) egingen den XX. Quebrantahuesos zikloturista lasterketan parte hartuko dute bi herritarrek: Joseba Juanikorenak eta Igor Babazek. Proba gogorra izaten da eta zorte ona opa diegu!

armadenda andueza

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

DONAMARIA

UDALA → UDAN LANEAN ARITZEKO

Bi langabe hartuko ditu Udalak herriko hainbat lan egiteko

Ekainetik urri bukaera bitarte ariko dira lanean

Iñaki TELLETXEA

Urtero bezala, herriko hainbat lan egiteko langabezian dauden bi lagun hartuko ditu. Bortz hilabetez ariko dira, ekainean hasi eta urriaren bukaera arte. Igerileku ingurua moldatu eta haur parkea berritu beharko dituzte, bertze lan batzuen artean.

Liburutegia itxita

Ikasturtea akitzeaz dagoen honetan, udal liburutegiak ere atekak itxiko ditu ekainaren 9tik ikasturte berria hasi bitarte. Hala ere, norbait zerbaiten beharra izanez gero, liburutzei



ARGAZKIA: EGUZKI IRIGOIEN

Lau gaztetxoek Jaunartzea

Argazkian ikus daitekeen bezala, maiatzaren 23an herriko lau neska-mutiko hauek Jaunartzea egin zuten: Julen Migeltorena, Lander Sagaseta, Itziar Agirre eta Alaitz Irigoienek. Eguraldi ederra egin zuenez, giro ederrean pasatu zuten eguna.

narekin egotea nahikoa izanen du.

Bestetako prestakuntzak

Uda gainean dugu eta

dagoeneko bestetako antolakuntzan murgilduta gaude.

Horretarako bilera bat egingen da ekainaren 11n, heldu den or-

tzirala, Herriko Ostatuan 21:30ean. Herriar guztiei luzatu zaie agertzeko deialdia ideia guztiak interesgarriak izaten baitira.

ABELTZAINZA

Sari hirukoitza jaso du Lacturalek

TTIPI-TTAPA

Zaporearen eta Kallitatearen Nazioarteko Institutuak, iTQi, Zaporea Gorena 2010 saria eman dio bigarren urtez Lacturale Nafarroako enpresari. Gainera, iaz baino puntuazio altuagoa lortu du. Nafarroako 25 ustiatgegitako behi-esnearekin egindako esnea da Lacturale eta tartean eskualdeko hainbat daude. Bere hiru gametan hartu du saria: esne osoa, erdi gaingabetua eta gaingabetua. Maiatzaren 27an hartu zuten Bruselan saria, eta Lacturaleko arduradunek berriki hil den eta Lacturaleren tzako esnea ekoizten zuten Xebe Matxiñena urrozterra izan zuten gogoan. 2008an hasi zen komertzializatzen Lacturale eta dagoeneko nazioarteko sari hau bi aldiz eskuratzeaz gain, estatu mailan, Urteko Zaporea 2008 saria ere berak eskuratu zuen.



ZURGINA - EBANISTA

Beorlegi

DONAMARIA - Tel. 948 45 15 53 - M. 657 79 96 88

- EGUR LANAK
- ATEAK, ZOLAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK
- SUKALDEAK
- NEURRIRRA EGINDAKO MOBLEAK

Serbitutasuna, ekonomia eta arkitasuna
Eskatu aurrekontua konprometzurik gabe



Martiko
Pol. Zaien, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Antzientzia edukiak eta errealak

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

DENDA
OSTE HONETAN
ORTZARALERA

8:30etik
12:30era

14:30etik
17:00etara

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK



- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

GIZARTEA → ERLIJIOA

Delfina Mariezkurrena herritarraren beatifikazioa?

Amokoneko
moja 20
urterekin hil
zen

Beatifikazio
prozesua
egiteko lanean
ari dira

Fernando ETXEBERRIA

Herritar gutxi jakingo dute Ezkurrako moja honen historia, santu famarekin hil zen 20 urteko gaztearena, alegia. 1916ko abenduaren 24an jaio zen Amokonean, eta Cristobal Mariezkurrena –mendietako kontratista– eta Justa Hernandezaren seme-alaba zaharrena zen. Escolastica, Ventura, Miguel Mari –jaio eta zortzi hilabetera hil zen–, Maria Soledad, Concepcion, Juana, Camila eta Josefina izan ziren bere senideak.

15 urterekin erabaki zuen moja sartzea eta Vicalvaro (Madril) komentuan sartu zen 1933ko maiatzaren 2an. Magisteritzako titulurik eduki ez arren, prestakuntza ona zuela eta, gela baten ardura eman zioten kolegioan. 1935-

ean Bartzelonako Maria Inmaculada kolegioa bidali zuten, magisteritza ikasketak egin eta klaseak aldi berean emateko.

OSASUNAK OKERRERA

Bartzelonako bere egonaldia, ordea, bere bizitza laburra baldintzatu zuen. 1936ko uztailaren 18an Kataluniako iraultzaileak bere bizitokia jabetu ziren. Taldeko burua gaztearekin tematu zen eta Delfina berekin eramaten saiatu zen. Ezezkoa eman arren, egoitzan egon ziren denboran berarekin joateko eskatu zion behin eta berriz. Hainbestekoa izan zen neska gaztearen beldurra, gaitortu egin zela. Azkenean, iraultzaileek kolegioa uzteko agindu zieten, eta nahi zuten tokira joateko bizitzera.

Emakume batek bere etxebizitza eskaini zion eta hantxe gelditu ziren. Baina ez tul indartsuak eta sukar altuak gogor astindu zuten Delfinita. Ez zitzaion sukarrak 39tik jaisten eta medikura eraman behar izan zuten. Medikuek gaixotasun hura kolegioan igarotako egun gogorren ondorioa zela esan zion. Bere kideek laster hobe-

ra egingo zuela esaten omen zioten, baina berak gazterik hilko zela erantzuten omen zuen.

1937ko urtarrilaren 16an Marsellara joan zen, eta handik Miramas herrira, eta toki lasai hartan zertxobait hobera egin zuen bere egoerak.

Gurasoei bidalitako gutun batean bere argazkia bidali zien, pasaportea egiteko egin behar izan baitzuen Bartzelonan.

Baina osasun-egoerak okerrera egin zuenean, Briansongo (Alpeak) erietxean ingresatu zuten, eta laster hilko zela pentsatuz, ohar hau idatzi zuen: «Ama maitea, igandean nire bila etor daitekeela esaten dute. Gora Jesus».

Hesteetako ondorenak oinaze handiak sortzen omen zizkioten, bai-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Amokoneko Delfinita, 6 urterekin.

na aldi berean, berak ba-kea eta erlijioa ekartzea nahi omen zuen, gerra krudel batean baitzegoen orduan estatu espainiarra.

Azkenean, 1937ko urriaren 29an hil zen, goizaldeko lauretan. Abenduaren 24an 21 urte beteko zituen.

Ama Nagusiak gaztearen amari gutun bat bidali zion, bere bizitza honela laburbilduz: «andre hori, zure alabak oso oroitzapen goxoa eta onautzi du inguruan, hurbiltzen zitzaiona edo-

zein zela ere, bere bertutearekin maitemindua gelditzen zen, eta denek santutzat hartu dugu, eta bere bizitzari eta heriotzari inbidia diogu».

Eta orain, berriz, Delfinaren beatifikazioa egin nahian dabilta hainbat lagun. Biografoaren arabera, bizitu zen toki guztietan eredugarria izan zelako. Izaera alai eta gaztea zuen, eta sekula ere ez zen kexatu, oztopoak eduki arren. Gauza guztietan eta denei laguntzeko prest egoten zen.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Amokonea eta Urrutikoetxeara edateko ura ekarri dute

Zaharberitze lanak egin zirenetik, Amokonea eta Urrutikoetxea (Ertikoetxea) ziren edateko ura falta zuten baserri bakarrak. Zehazki bigarren hori osorik erre zen eta osotasunean eraiki behar izan zen. Nafarroako Gobernuaren subentzioarekin, Mariezkurrena enpresa uraren kanalizazio lanak egiten ari da herriko azken etxetik.

F. LANCHAS
Akutxidorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

SALDIAS

SANJUAN BESTAK → EKAINAREN 23TIK 27RA

Larretxea aita-semeak eta Arria V.a eta Erasun igandeko aizkora apustuan

Sanjuanetako bost egunetatik hirutan pilota partidak izanen dira

ASTEAZKENA 23 Bezpera

20:00etan Baztan-Zopak Herriko Ostatuan. **22:00etan** Sanjuan suak. **Gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

OSTEGUNA 24 San Juan Eguna

11:00etan Meza Nagusia, San Juan herriko patrioiaren ohorez. **12:30ean** erremonte



ARGAZKIA: PEDRO URRUTIA

Duela 60 bat urteko Sanjuanetan, Eliz atarian aizkora apustua egin zenean.

partidak. **18:00etan** pilota partidak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

OSTIRALA 25

Goiz eta arratsaldez haurrendako jokoak,

karts eta gaztelu puzgarriekin. **14:00etan** herri bazkaria Herriko Ostatuan, Etxeberria eta Agirre bertsolariekin.

Arratsaldean dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin. **Gauetz** dantzaldia TRAKETS taldearekin.

LARUNBATA 26

12:00etan mus txapelketa. **18:00etan** erremonte eta pilota partidak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

IGANDEA 27

13:00etan aizkora apustua: Arria V.a eta Erasun, Oihan eta Donato Larretxea aita-semeen kontra. **18:00etan** pilota partidak. **Arratsaldez** dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.





ACSolar-ek, energia berriztagarrietan espezializatua eta biomasa-galdaren instalazioan aitzindaria den enpresak, gaur egun duzun gas edo gasolio galdara biomasa-galdara berri batekin ordezkatzea proposatzen dizu

acsolar soluciones energéticas

- Erregaien faktura %70 arte murriztea
- Zure instalazioaren azterketa egingen dizugu, dohainik
- Aprobetxatu dauden laguntzak, %40 artekoak
- Lagundu ingurumena zaintzen



Talantze V Industrialeko
Kalea A, 26. natza
31110 Nason - Nafarroa
Mugik. 675 404 821
Tel. 948 212 760
Fax. 948 268 085
www.acsolar.com

HEZKUNTZA → IKUSKIZUNAK

Ikasturtea akitzear denean, antzerki emanaldia egin dute eskolako haurrek

Antzerkia egin ondotik berendu ederra egin zuten

Markel LIZASOAIN

Garagarrila ailegatu da; haurrak ikasturtea akitzen ari dira. Eta iaz bezala tenore honetan, emankizun bat prestatzen aritu dirazena baita; antzerki bat. Gogor prestatu ere, eta maiztaren hondarreko aste- an egin zuten antze- zpena. Hiru herritako ak-

toreak bildu ziren: Era- tsun, Labaien eta Saldias- koak. Eta, oraindik eta zailagoa egiteko, ingele- sez aritu ziren antze- zen; izen hauxen eman zioten antzerkiari: *Lasaer TV* and *the Gruffalo*. Jende sail- txo bildu izan behar zu- en, kanpoan gelditu bai- tzen bakarren bat tokirik eta sarrerarik ez eta. Hu- rrengo txandan antzoki handiagoren batean egi- tea pentsatzen hasi be- harko dute, plazan edo elizan behar bada!

Eskolako haurrez ari gara, udako barkazio-

en ondotik beste irakas- le bat etorriko omen zaie. Oraingo *maixtra*, Haizea, beste eskola batera joa- nen baita seguru asko ere. Sunbildarra izaki, he- rritik hurbiltxeagoko to- kiren batera joaten hasi- ko da. Herritik oroitze on bat eramanen ahal du!

Sanjoanak sarri

Garagarrila ailegatu baita, herriko bestei ezkerka begira ari da dagoeneko jendea. Aur- ten, aste erdian toka- tzen baita San Joan, on- doko asteburua hartu-



ARGAZKIA: MARKEL LIZASOAIN

Rallya Oroketako errepidean

Iaz bezala tenore honetan ere, auto bizien lasterketa egin dute Oroketako errepidean. Mikel Urkiolak eta Samuel Benitezek irabazi dute Lagun Artea taldeare- kin –argazkian euren autoa–. Jendea kontent etor- tzen da bazter askotatik rallya ikustera, baina, iaz be- zala, erregalo politak utzi ditu bide bazterretan. Dena esan behar baldin bada, franko txukuna utzia dute organizaziokoek ingurua. Hala ere, nahiz antolatzaileak saiatzen diren gero dena lehen zegoen bezala uzten, beti bilatzen da plastizkozko ontziren bat han eta hemen. Jendea ohartzen ez den bitarte, loreak ez, zaborrak mendian.

ko du. Ia eguraldiak la- guntzen duen eta ordu-

rako belarrak handienak eginak diren!

GIZARTEA

TURISMOA → SARIAK ESKUALDEAN

Praktika Egokien Gidaliburua jaso dute mendialdeko 53 establezimenduk

Ekainaren 1ean hartu zuten Santxotena Museoan

TTIPI-TTAPA

Mendialdeko 53 esta- blezimenduk zerbitzu turistikoak hobetzeko Praktika Egokien Eskuli- burua jaso zuten ekaina- ren 1ean Bozateko San- txotena Museoan egin- dako ekitaldian. Aitorpen

hau Cederna Garalur era- kundeak bultzatzen du- en MBP kalitateko kudea- keta sistemaren aldeko apustua egin dutenei ematen zaie.

Ekainaren 1eko ekital- dian, bertzeak bertze, Ju- an Ramon Corpas Nafa- rroako Gobernuako Kul- tura eta Turismo kontsei- laria, Carlos Erce Turis- moko zuzendari nagusia, Luis Garate Cederna Ga- ralurreko presidentea eta Virginia Aleman Baztan-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Eskuliburua Santxotena Museoan banatu zen ekainaren 1ean.

go alkatea izan ziren.

ESKUALDEKOAK

Praktika Egokien Es- kuliburua jaso duten es- tablezimenduen artean aunitz eskualdekoak di- ra: Zubietako errota, Ur- dazubiko leizeak, Urdazu- biko Irigoienea landa hos- tala, Narbarteko Bertiz aterpea, Narbarteko BKZ,

Lesakako Matxinbeltze- nea aterpea, Lesakako Atxaspi hotela, Leitzako Saralegi taloak, Elizondo- ko Argibel Optika, Elizon- doko Ipingi arropa-den- da, Elizondoko Mari Cruz Urruskalandetxea, Elgo- rriagako Martinea I eta II landetxeak, Doneztebe- ko Alustiza lurrindegia,

Doneztebeko Ibarrola mertzeria, Doneztebe- ko Casa Ostiz, Doneztebe- ko Mari Cruz lenteria, Berako Alkeberrea lande- txea, Arizkungo Santxo- tena eskultura parkea, Arizkungo Lizardikobor- da I eta II landetxeak, Arantzako aterpea eta Anizko Jauregia I eta II landetxeak.

GOIZUETA

UDALA → KONTUAK

114.649 euroko defizitarekin itxi du 2009a Herriko Etxeak

Halere, orain bi urteko superabita haundiagoa izan zen

ez izan, 2008ko kontuak positiboak izan ziren, eta orduko irabaziak oraingo galeren gainetik daude gainera.

ZERBITZUEN MURRIZKETA
Basotik datorren nego-

zioa gainbeheran doalako eta Nafarroako Gobernu gero eta murrizketa gehiago egiten ari dela kontuan hartuz, egoerak hainbat mozketara egitera behar dezake Udala. «Ge-

rorra begira antolatu beharra dago», adierazi digu Mieljoxe Lekuona alkateak, eta gaineratu digunez, «zenbait zerbitzu gutxitu beharko direla aztertzen ari da Udala».

DATUA

421.569

EUROko superabitarekin joan zen 2008a. Beraz, iazko galeren gainetik daude duela bi urteko irabaziak.

TTIPI-TTAPA

Goizuetan ere nabaritu da krisi sonatu honen eragina. Maiatzaren 22an egin zuen Udalak 2009ko kontuen itxiera eta urteetan gertatu ez dena ondorioztatu zuen: zenbakiak negatibo eman zuten 2009an. Sarrerak eta gastuak kontuan hartuz, 114.649,86 euroko defizitarekin itxi zen aurreko urtea. Eta datuak negatiboak izatearekin zerikusi zuzena du 2009an basotik zentimorik atera ez izanak. Basoa baita herriaren diru-iturri nagusia.

2008AN DATU BAIKORRAK

Askoz hobeto joan zen 2008a, 421.569,39 euroko superabitarekin itxi baitzen. Beraz, nahiz eta 2009ko datuak onak



ARGAZKIA: ISKIBI KANPINA

123 parte hartzaile mendi bizikleta ibilaldietan

Arrakasta haundiarekin joan zen Iskibi kanpinak antolatuta maiatzaren 29an egin zen mendi bizikleta ibilaldia: guztira 123 lagun animatu baitziren. Kanpinetik adierazi digutenez, «dena oso ondo atera zen», baina horretarako «herriarren laguntza ezin hobea izan zen». Bi ibilbide izan zituzten aukeran txirrindulariek, eta gehienek luzea aukeratu zuen, Txino auzotik ezkerretara maldan gora hartuta. Helmugaratu zen lehenengoak ordu bat eta 30 minututan osatu zuen itzulia, baina gehienek bi ordu gora behar izan zuten. Eta garrantzitsua, jendea gustura gelditu zela ibilbidearekin. Bukatu eta gero luntxa izan zuten eta zozketa bidez, opariak ere banatu ziren.

Bi mozio

Bi mozio onartu zituen Udalak bere azken batzarrean. Alde batek, euskararen garapenerako lanean segitzeko ardura berretsi eta Nafarroako Gobernu euskararen inguruan egiten ari den murrizketak salatzeko mozioa aprobata zuen.

Bestetik, berriz, «eskubide zibil eta politikoa «erabat urratuak» daudela iritzita, «erabateko gaitzespena» azaldu zuen Udalak, eta honela, Espainiako Gobernuari eta Auzitegi Nazionalari Euskal Herrian irekitako hainbat prozedura geldiarazteko eskatu zien.

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Lanbete zilo erabilien kudeaketa baimendua: GNP/23/NA/2004
Hondakin arinakurazpen gaitasuneko kudeaketa baimendua: T/153/NA/2005

ERABILITAKO LANDARE OLIOAREN BILKETA

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es • Zaindu zeure ingurumena!

OSPAKIZUNAK → OHIKO HITZORDUA

Sanjuanak gainean, ohiko sardina jatea egingen da ekainaren 25ean

Ekainaren 23a baino lehen eman behar da izena

Ainhoa ANSA

Urte batzuk badira Aranon sardina jateko aitzakiarekin hainbat herritar Kontseju aurrean elkartzan direla. Mahai batzuk bertara atera, parrilletan sua piztu eta sardinak erretzen aritzen dira herritar batzuk, tartean Mairtzeneako Joxe Antonio.

Aurten ere jarri dute eguna afari hau egiteko. Ekainaren 25ean izango da, ostiralarekin, eta bertara joan nahi duenak ekainaren 23rako izena eman dezala eskatzen dute antolatzen dabilzanek.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean, sardina jatearen ondotik, *Aupa Etxebeste* filmea eskaini zen.

Ilunabarrean, 20:30 inguruan elkartuko dira betiko modutsuan. Sardina usaina zabalduko da berehala herrian. Ez da besterik izango jateko, ezta be-

harririk ere! Atzetik gazta pixka bat jan eta Kontsejun kafea hartu, eta mahai inguruan sortuko den giroak aseta utziko ditu bertaratuak. Beraz, anima-

tu eta deitu Kontsejura lehenbailehen!

Ixabel Ansaren taldea nagusi

Joan den maiatzaren

29an jokatu zen Ormaiztegin (Gipuzkoa) Taldekako Herriarteko III. Segatxapelketa eta parte hartu zuten bi emakume taldeetako batean Ixabel Ansa lehiatu zen. Berarekin batera Aloña Galarraga gipuzkoarrak, Paula Charron lapurtarrak eta Irati Astondoa bizkaitarrak egin zuten segan Gaztelutik etorritako talde baten aurka. Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik aurkeztutako taldeak lehen postua irabazi zuen eta Ixabel txapelarekin etorri zen etxera.

Egun berean, Ainhoa Ansa gizonezkoen talde batekin parte hartu behar izan zuen talde misto batean, eta bederatzigarren postua lortu zuen.

Oraindik ez duzu probatu Elgorriagako Bainuetxeko ur gazietan flotatzea?
HAU DA ZURE AUKERA

ELGORRIAGA
BALNEARIO - BAINUETXE

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA
bakarrik 10€ pertsonako
Igande arratsaldeetatik ostegun arratsaldeetara (bakarrik arratsaldeetan).
Eskaintzaren azken eguna: ekainak 30

BAL DINTZAK. ERRESERBA EGIN
BEHAR DA. Ezin zaie bertze eskaintza edo promozioei gehitu

IGERILEKU TERMALEAN ERLAXAZIO ZIRKUITOA,
BAZKARIA EDO AFARIA ETA FRESKAGARRIA EDO KAINA
25€ pertsonako astelehenetik ostiralera, arratsaldeetan
28€ pertsonako larunbat goiz eta arratsaldeetan eta igande goizetan.
Eskaintzaren azken eguna: ekainak 30

Errotaldea z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) Tel. 948 45 60 45 · www.balnearioelgorriaga.com

LEITZA

AISIALDIA → EKAINAREN 8TIK 15ERA

Udako tailerretan eta haur txokoan izena emateko epea zabalik dago

Uztailaren 5etik 30era izanen dira udalekuak

TTIPI-TTAPA

Ez dute aspertzeko astirik izanen neska-mutikoekudan. *Udan ez gelditu etxean* lelopean, Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak udako oporrak hartu orduko, tailerrak antolatuta baitituzte gaztetxoentzat.

3-6 urtekoentzat Haur Txokoa izanen eta hainbat tailer izanen dituzte. *Naturarekin jostaten* deiturikoa uztailaren 5etik 9ra eginen da eta trenbidera ateraldia, igerilekuak, eskulanak eta jolasak eginen dituzte. *Euskal Mitologia ezagutzen* uztailaren 12tik 16ra landuko da, eta pertsonaiak landu eta ipuinak, antzerkia eta eskulanak eginen dituzte. Uztailaren 19tik 23ra *Sukaldean saltsan* ibiliko dira. *Sormena lantzen* tailerra Haur Txokoko azkena izanen da eta uztailaren 26tik 30era eginen da: estanpazioa, buztina, musika tresnak egin... Horrela ariko dira.

6-12 urteko haurrek ere aukera zabalik izanen dute. *Natura* deiturikoan, ur txirristak, ateraldiak, ginkanak... eginen dituzte, uztailaren 5etik 9ra. Eta *Sukaldean saltsan* tailerra uztailaren 12tik 16ra eginen da.

Papera gora eta behera izenekoan, uztailaren

19tik 23ra, papera birziklatu eta eskulanak egiten ariko dira. *Hi haiz artista!*, azkenik, uztailaren 26tik 30era eginen da, eta estapanzioa, pegatinak, pintzekin eskulanak... eginen dituzte.

Izen-ematea ekainaren 8tik 15era egin behar da, 012ra deituta. Informazio gehiagorako deitu 948 510840 edo 948 510814 telefonoetara.

II. Sagardo Eguna

ALKE kultur taldeak eta Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta, Sagardo Eguna eginen da bigarren aldiz larunbat honetan, garagarrikak 12.19:00etatik aurrera, 16 bat sagardo dastatzeko aukera izanen da, baita pintxoak ere. Herriko bertsolari eta musikariek alaituko dute giroa.

Ostiral honetan, bestalde, Jakoba Errekondok hitzaldia eskainiko du sagarra eta sagastien inguruan, 20:00etan.

Sanjuan bezperako festa

Ohi bezala, Sanjuan bezpera festa eguna izanen da. 18:00etan umeek Ingurutxoa dantzatzeko dute plazan, eta ondotik, opilak banatuko dira. 21:00etan mila lagunentzako mahaiak jarriko dira eta kuadrilla bakoitzak ekarritako jatekoarekin afaria izanen da. Giroa alaitzeaz Incansables txaranga arduratuko da.



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Herriko kirolariei omenaldia eskaini die Udalak

Herriko omenaldia eskaini zien lehengo, oraingo eta etorkizuneko bere kirolariei. Eta gisa honetara, Lopeneko biribilgunean jarritako oroitarria ere ofizialki inauguratu zen. Pello Iraizozek landutako harri honetan herri kirolarekin mendeetan izandako harremana nabarmendu da, *Leitza 1192tik Leitza 2010era*. Ekitaldian parte hartzeko aizkolari, harri-jasotzaile, pilotari eta segalariak deituak zeuden, baina batzuk ezin izan zuten joan Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea pilotariek edo Iñaki Perurena harri-jasotzaileak, esaterako. Aldiz, Migeltxo Saralegi harri-jasotzailea, Jon Kanflanka segalaria edo Enrique Bildarraz, Ruben Saralegi, Diego Riaño, Arkaitz Olano, Eneko Saralegi eta Mikel Zabaleta aizkolariek erakustaldiak eskaini zituzten.



ARGAZKIA ETA TESTUA: PAKITTO SAGASTIBELTZA

Nafarroako Kopa irabazi dute Aurrerako infantilek

Nafar Jokoetako Kopako infantilen finalak jokatu ziren maiatzaren 29an Iruñean, eta Aurrerako mutilak ederki moldatu ziren. Ligan hirugarren sailkatu ondotik, egun berean jokatu zituzten Kopako bi partidak. Aurrena eta gogorrena finalaurrekoa izan zen, ligako txapelduna den Irabia taldearen aurka. Kostata baina joko polita eginez, herriarrek 5-1 gailendu ziren. Eta handik bi ordura finala. Eskerrak irabaziz gero, nekatu ere gutxi xixeko egiten diren... Baina ez dago eskubiderik goiz batean bi partida garrantzitsu jokarazteko. Finalean, aurkariak motelagoak ziren eta Aurrerak gozatu egin zuen futboleant. Erraz menderatu zituzten eta 10-3 gelditu ziren. Pozik eta gustura, etxera, entrenatzaileak –Josu Toledo eta Haritz Lezea– inguruan zituztela.

Eginazu
TTIPI-TTAPAren alde
proiektu zenbakia:
15.996

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

UDALA → LANGABEAK LANEAN

Bi herritar aukeratu ditu Udalak udan lanean aritzeko

Imanol eta Jose Martin dira puntuaziorik altuena jaso dutenak

Juana Mari SAIZAR

Herriko hainbat lanean aritzeko bi langile aresoar hartu ditu Udalak udarako: Imanol eta Jose Martin. Dagozkien frogak pasatu ondotik bi hauek izan dira puntuaziorik altuena jaso dutenak.

Zortzi lagun aukeztu ziren deialdira eta Imanolek eta Jose Martinek 39 eta 38,5 puntu lortu zituzten. Aurkeztu zirenetatik hiru herritarrek izan ziren, besteak, be-

DATUA

8

LAGUN

apuntatu ziren Udalak egindako lanpostu deialdira, horietatik hiru aresoarrak.

rriz, kanpotarrak. Dena den, denek frogaberberak pasa behar izan zituzten: alde aurretik administrazioan lana egina bazen, horrek lehiaketarako puntuatu egiten zuten. Horrez gain, euskara ere baloratu zen eta azken bi probak teorikoa eta praktikoa izan ziren. Lau frogak hauen ondotik erabaki zen lanpostua nori eman.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR
la hiru orduz aritu ziren lanean kirolariak.

Giro ederra sortu du sokatira saioak

640 kiloko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zen maiatzaren 29-an plazan. Sei taldek hartu zuten parte, Gohierri A eta B, Gaztedi, Getxo, Mutriku eta Aresok. Oso lehia gogorak ikusi ziren, tiraldi luzeak tarte-

ko. Hauen artean luzeena, Mutriku eta Gohierri Aren arteko 8 minutu eta 19 segundoko tiraldia. Herriko taldea 3. postuan geratu zen Gaztedi-ekin batera. Hurrengo saioa, larunbatean, hilak 12, izango da Martiartun (Bizkaia). Oso giro polita

eduki genuen, jendeak ongi erantzun baitzuen. Halere, aipatu, ospakizunari dotorezia eman ziona plazaren edertasuna izan zela. Eguraldiak ere asko lagundu zuen eta taldekideen koloreek eta berdetasunak oso argazki polita osatu zuten.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Bertsopaper lehiaketako bi sari

Mendealdeko Bertsopaper Lehiaketan emaitza oso onak lortu dituzte herriko gaztetxoek. Aipamen berezia egin diete Maider Barandarinan lanari eta Beñat Etxezarretarena, berriz, sari-tua izan da.

edredoi fundak
albormozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
mainalireak
mantelak
kuxinak
toaillak

1958tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

BAZTAN

AZPIEGITURAK → AROZTEGIAKO PROIEKTUAREN KONTRA

Bizikleta martxaren balorazio baikorra egin du Aroztegia... eta gero zer? taldeak

Egitasmoaren kontrako borrokan aldi berri bat ireki dela adierazi du

TTIPI-TTAPA

Aroztegiako proiektuaren kontra, maiatzaren 22an Elizondo eta Lekaroz artean egindako bizikleta martxa «arrakastatsua» izan zela adierazi du Aroztegia... eta gero zer? taldeak ohar bidez. Taldearen irudiko, «jendearen parte-hartze mailak egitasmo honen inguruan dagoen desadostasun eta aurkakotasunaren neurria erakusten du». Horrekin batera, «orain artiko informazio eta sozializazio lanek euren emaitzak eman dituztela eta horren ondorioz, herritarren artean kontzientzia piztu eta herri-mobilizazioan aldia abiatzeko tenorea iritsi dela» gaineratu du.

GAZTETXEKO PANKARTA ERREA

Ezezagun batzuek Aroztegiako proiektuaren kontra Elizondoko Gaztetxean zegoen pankarta erre zuten maiatzaren 21etik 22ra-ko gauean. Eta hori ere salatu du plataformak. «Ekintza hori azken aldian Aroztegiari buruzko informazioa karrikatatik desagarrarazteko abiatu duten testuinguruan kokatzen dugu», dio taldeak, «eta horrek, egitasmo honen izaera inposatzailea, bertze behin, agerian uzten du». Gertatutakoak Gaztetxea arriskuan paratu duela ere krikatu du Aroztegia... eta gero zer? plataformak.

MANIFESTAZIORAKO DEIA

Nafarroa bizirik nahi dugu lelopean, «Nafarroa dauden proiektu txikitzaile-espekulatiboen aurkako» hainbat plataformek deituta mani-



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondo eta Lekaroz artean egin zuten bizikleta martxa maiatzaren 22an.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA GAMIO

Besta eta kirola Berroetako bestetan

Besta eta kirola elkartrukatu, eguraldi eta umore onean pasatu ziren Berroetako Mendekoste Bestak. Hurrengo urtekoen esperoan egonen gara orain...

festazioa eginen da Iruñean ekainaren 26an eta harat joateko deia egin du Aroztegia... eta gero zer? taldeak. Manifestazioa Golem zinematik

abiatuko da 18:00etan.

BATZARRA

Orain artio egin denaren errepaso eta balorazioa eta hemendik ai-

tzinera egin beharreko az batzarra eginen du Aroztegia... eta gero zer? taldeak ortzirean, hilak 11. Solasaldia 20:30ean hasiko da Arizkunenean.

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burrutx azukra · Tfnoa: 948 582 043
ORONOZ - MUGAIRI

Eskisaroi
RESTORANTE
Jaime Urrutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

ANTXITONEA
Turismo
24 inguru baimaturak - Apartaketa
Aste gutxiago gela puztua - Hart musikala eta TH
Gela berria sukalo eta baxo berberak
Barru Inarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
antxitonea@terra.es • www.antxitonea.com

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detaileak eginez gero
KOTXEKO LOREAK OPARI
NARBARTE
T. 948 59 22 00
Nafarroako detaileak, karnak elizara eta kargosantura eramateri ditugu, karpok
eta barneko lanberek, zuhaitzak, patata salgai, berroetako lanbaitan aukera zabala...

MERKATARITZA → LEHIAKETA BERRIA

Argazki lehiaketa antolatu du Bertan merkatarien elkarteak

Ekain hondarrerako aurkeztu behar dira argazkiak

TTIPI-TTAPA

Bigarren urtez, argazki lehiaketa antolatu du Bertan merkatarien elkarteak. *Baztango ingurumena eta paisaiak, herriak eta herritarrak* izanen da gaia, eta ekainaren 30a bitarte aurkezten ahal izanen dira. Lehiaketa irekia da eta beraz, edozeinek har dezake parte, baina bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezten ahalko ditu. Zuri-beltzean edo koloretan egin daitezke.

NOLA AURKEZTU

Bi modu daude argazkiak aurkezteko: Arizkunenean utzi (09:00etatik 14:00etara, astelehenerdik ortziralerara) edo helbide honetara bidali: *Bertan Baztango merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarteak, Bertan II. Argazki Lehiaketa, Arizkunenea Kultur Etxea, Jaime Urrutia karrika 14, 31700 Elizondo*. Argazkiak izan goiti batekin aurkeztu beharko dira, eta izan goiti hori daraman

gutun-azal batean, egilearen datuak aurkeztu beharko dira.

Epaimahaiak hiru sari banatuko ditu, Bertaneko 80 dendetan gatzatzeko hiru bale: 400 eurokoa (1. saria), 200 eurokoa (2. saria) eta 100 eurokoa (3. saria). Horrez gain, aurkezten diren argazkien artean 2011ko egutegia egiteko batzuk aukeratu dira.

Akordioa Xalao Telebistak eta Euskarabideak

Xabier Azanza Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak eta Joseba Igarabide Xalao kultur elkarteak ordezkariek, hitzarmena sinatu dute Nafarroako Euskararen Mediatekako funtsak hobetzeko. Akordioaren arabera, Euskarabideak 10.000 euro emanen dizkio Xalaoi, eta elkarteak, trukean, Baztanen egiten den euskalkiaren, hau da, iparraldeko goinafarreraren ikus-entzuzko 100 orduko materiala emanen dio Euskarabideari. Helburua Mediatekan euskalki horrek daukan hutsa betetzea da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irungo bi museorekin harremanetan bisitari gehiago izateko

Irungo Menchu Gal margolariaren museoak eta Oiasso museo erromatarrak eta Elizondoko Jorge Oteiza Museo etnografikoak, Ziga margolariaren bildumarekin eta Arizkongo Santxotenen elkarlanean aritzeko akordioa sinatu dute. Bisitarien trafikoa haunditzea da asmoa eta aldi berean Bidasoa herriko tokien arteko harremana sendotzea. Bertizko Partzuergoa eta Bidasoa Activaren hitzarmenaren barne, Baztan eta Irungo Udalek egin duten akordioa da. Argazkian, Baztan eta Irungo udaletako, eta Bertizko Turismo Partzuergoko eta Bidasoa-Bizirik-eko ordezkariek.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango eskolak Bilbon

Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztango herrietako eskoletako ikasleek hiru egun pasatu zituzten Bilbon maiatz bukaeran. 8 urtetik goitiko 115 ikaslek Artxanda, Guggenheim, Itsas museoa eta Portugaleteko Bizkaiko Zubia bisitatu zuten. Aurtengo kanpaldiaz, arras balorazio ona egin dute.



ARGAZKIA: ONDIKOL

400 mendizale Baztango Mendi Itzulian

Lekarozen hasi eta akitu zen XVII. Baztango Mendi Itzulia 400 lagunek egin zuten maiatzaren 30ean. Ibilbidea akitutakoan, ederki hartu zuten mendizaleek antolatzaileek prestatutako jan eta edatekoa.



BAZTAN

INGURUMENA → BAZTAN ETA ULTZAMAKO LURRETAN

82.900 euro inbertitu dira Belateko zohikaztegia berreskuratzeko

Egin diren lanei esker, espezie berriak identifikatu dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernu-ko Ingurumen Sailaren eta Caixaren Gizarte Proiektuaren bitartez, 82.904 euroko inbertsioa egin da Belateko zohikaztegia berreskuratzeko. Gobernuak 42.904 euro paratu ditu, eta Caixak 40.000 euro.

Hondakin organikoekin sortzen diren hezeguneak dira zohikaztegiak, eta ingurumen al-

detik interes bereziko gu-
neak, duela 17.000 urteko sedimentuak ere baitituzte. Landaretza aldetik ere, interes bereziko espezieak dituzte, horietatik batzuk desagertzear daudenak.

Berreskuratze lan hauei esker, landaretza gehiago dago orain, eta orain arte identifikatu gabeko zeuden espezie berriak ere aurkitu dira.

Ekainaren 1ean Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuko kontseilaria Belateko zohikaztegia izan zen, egin diren berreskuratze lanak ikusten.



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Begoña Sanzberro kontseilaria udal eta bertze ordezkariekin bildu zen Belaten.

Baztandarren aurkako jazarpen poliziala «areagotu» dela salatu du AAMk

«Azkeneko hilabeteotan, polizien kontrolak ugaritu egin dira errepide zein mendi bideetan». Horrela adierazi du AAM Amnistia-
ren Aldeko Mugimenduak ohar bidez. Bere hitzetan, «2010etik honat, kontrolak ehunka zenba daitezke». Eta kontrol horietan, herri-tarrak «mehatxatu, beldurtu, kolpatu eta kasu batzuetan beraien kolaborazioa ere eskatu dietela» jakinarazi du. Horrez gain, «preso eta

Euskal Herriko eskubi-
deak defendatzeagatik baztandarrek salaketa administratiboak jasan dituztela eta milaka euroko isunei aurre egin beharko dietela» ere azaldu du oharrean AAMk.

Elizondoko inauterietako desfilean tortura salatzeko parodia bat egiteagatik lau baztandar Audientzia Nazionalera bidali nahi izan dituztela ere kritikatu du AAMk, «nahiz eta handik Nafarroako

epaitegira bidali duten espediente».

«Jazarpen polizial itogarri hau zertan akituko den jakin ez, eta gertaera larriagoak etorriko diren beldur direla» ere erran dute AAMtik, eta hortaz eskatu dute «baztandarren aurkako jazarpena desagertzeko, gure bailaran askatasun osoz ibil gaitezen». Errepresioa salatzeko asmoz prentsaurrekoa eskaintzeko zuen joan den larunbatean Elizondan.

aroztegia 1890az geroztik
GARAJEKO ATE SEKZIONALAK
ATAKAK HESIAK
LANGAK BALKOIAK



Arotxa

Miguel Azcárraga
Kale Nagusia, 6 31730 Irurita
Tel. 948 581 418 / 650 532 073

marobxa@terra.es



ARGAZKIA: ONDIKOL

Giro eguzkitsuan joan dira Almandozko bestak

Eguraldiagatik behintzat ezin dute kexatu almandoztarrek, bestetan eguzkia izan baitute lagun. Prozesioa ere eguraldi eguzkitsuan egin zen. Bertzalde, aipatu, frontoi berritua Besta Berri Egunean inauguratu zela.

ESKUBALOIA → DENBORALDI BUKAERA

Nafarroako liga eta kopa irabazi dituzte BKTko kadeteek

Espainiako sektorean ez dute aitzinera egiterik izan

TTIPI-TTAPA

Akitu da denboraldia BKT Baztan Kirol Taldeko eskubaloijokalarientzat, eta batzuk denboraldi bikaina egin dute. Kadeteek, erraterako, Nafarroako liga eta kopa eskuratu dituzte. Ligantxapeldunak izanda, Espainiako sektorea jokatzerajoa ziren Ermuara (Bizkaia) maiatz hasieran eta han lau talde aritu ziren: Ermuko Errotabarri (Euskal Autonomia Erkidegoa), Anagan Agreda (Errioxa), Sagardia Marina Parc (Kantabria) eta BKT (Nafarroa). Hiru partidatik lehenbiziko biak irabazi zituzten, eta azkena bakarrik galdu, Ermuaren aurka. Talde hau izan zen aitzinerat jarraitu zuena, partida guztiak irabazita.

Baina nahiz eta hurrengo fasera ez pasatu, arras kontent bueltatu zi-

ren etxera egindako lanarekin.

Baztango jokalaririk hauek izan ziren: Miren Arregi, Amaia Asiain, Amaia Astiz, Ainhoa Astiz, Ane Ballarena, Maitane Barberena, Nerea Etxeberria, Nagore Irigoien, Leire Pacheco, Leire Ramos, Emma Bertiz, Izargi Zumarraga, Ainara Ontsalo, Iratxe Arretxea, Lorea Goienetxe, eta Maialen Goñi. Entrenatzaileak, berriz, Enrique Petrirena eta Ekaitz Lameirihnas.

Handik etorrita Nafarroako kopako txapelketaren finala jokatu zuten, maiatzaren 22an Iruñean egindako eskubaloia-aren bestan, baita irabazi ere. Lagunak-en aurka jokatu zuten finala eta nahiko partida parekatua izan bazen ere, azkenean kopa Baztanera etorri zen.

BERTZE TALDEAK

Lehenbiziko mailako taldeak inoiz baino gehiago sufritu badu ere, azken partidaren mantendu zuten kategoria- mai-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kadeteek denboraldi bikaina egin dute.

la mantentzea lortu du. Nafarroako kopan, berriz, finala Atarrabiako Beti Onaken aurka galdu zuen.

Bigarren mailako neskek laugarrenak gelditu dira eta **jubenilak** seigarrenak.

Haurretan, bertalde, bigarren urteko **kadeteak** txapeldunak izan dira, eta lehen urtekoak laugarrenak. **Infantiletan** bigarren urtekoetan, Lekaroz A taldea laugarren sailkatu da txapel-dunen taldean eta Lekaroz B, berriz, bigarren taldean, hirugarren. **Alebinak** seigarren postuan sailkatu dira.

INFANTILAK ZARAUZTERA

Infantil mailako Lekaroz B-ko neskek, denboraldiari bukaera emateko, uztailearen 2, 3 eta 4an

Zarautzera joanen dira Hondartza eskubaloiko torneoak jokatzerako. Horretarako, ordea, sos batzuk ateratzeko boletoa paratu dituzte salgai. Baztango produktuekin osatutako saskia zozketatuko da.

Metaziri kalean

Metaziri aldizkariaren 13. alea kalean da dagoeneko. Ohi bezala, hainbat gai ageri dira: ardiekin hesna orrean; Aroztegia=inposaketa; auzolana; ezkertiarak eta eskuindarrak; Baztango bizitegiak eta etxegintza; Idoia Mujika Iñaki Erro preso politikoaren emazteari elkarriketa; ordenantza berriak; hiru hankako aulkia; memoria historiko-urbanistikoak; saihesbidea, saihestu beharreko bidea;

Nafarroako eliz-barrutia ebasgoan; eta piro beltzaren tartettoa.

Toki hauetan eskura daiteke: Arizkuneko Dolaretxean; Elizondon Axular eta Intzan eta Erratzun Altxuko dendan eta Zubi Puntan.

Uxue Alberdirekin solasean

Idazleekin solasean ekimenaren barne, ortzegun honetan, ekainak 10, Uxue Alberdi idazlea *Aulki jokoa* bere liburua-aren inguruan ariko da Arizkongo elkartearen, 20:00etan.

Arrosaren Eguna

PSO Eren Arrosaren Eguna Elizondon eginen da larunbat honetan. Baztan frontoian eginen dira ekitaldiak 11:00etan hasita

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

HOBETO bizi!

- Eskalerei igotzeko aulkik, plataformak, igogailuak.
- Gurpil-aulkik, makuluak, tuka-takak.
- Bahugelen egokitzea.
- Higiene pertsonalerako tresna egokituak.
- Janzen laguntzeko tresnak.
- Etxeko tresneria egokituak.
- Segurtasunerako zismak.
- Telefono benezikak.
- Errehabilitaziorako artikulak.
- Joku benezikak.

www.hobetobizi.net
Fuenterrabia, 37.aren parean • IRLUN • T. 943 633 014

BAZTAN

UDALA → AZPIEGITURAK

122.000 euro inguru kostako da Amaiurko Herriko Etxea kanpotik moldatzea

Udalak ordainduko ditu gastu guztiak

TTIPI-TTAPA

Batzuk gauza bate-rako eta bertzeek ber-terako, baina arrasera-bilia dela Amaiurko Herriko Etxea. Beheitiko solairuan Gaztelu Elkar-tea dago, eta batzarre-ak egiteko aretoa lehen-biziko solairuan, baita neska-mutikoentzako jolas-tokia eta ikastaro-ak egiteko gunea ere. Azken solairua, berriz, Done Jakue Bideko oinezkoentzako aterpe izateko egokitu zen.

Baina kanpokaldeari zaharbertitzeko beharra ikusi, eta hainbat lan egitea erabaki du Udalak. Orain arteko elementuen antzekoak paratu dira, baita isolamendu termikoa eta xafila irazgaizgarriak ere.

112.04,50 euroko aurrekontuarekin Harri Lan enpresari esleitu dizkio lanak Udalak. Gastua oso-osorik Udalaren gain joanen da.

Zahar etxean lanean

Espainiako Gobernuak iragarri duen dirulaguntzarekin Elizondoko zahar-etxean obrak egiten ari dira. Alde batetik, terrazak irazgaiztuko dira, egoera txarrean zeudelako eta azpiko lokalen sabai eta paretetan kalteak egiten ari zelako. Horrekin batera, berogailuen hoderia barrenetik instalatuko da, bertzeak bertze, jantokian. Eta bainugela-geriatrikoa ere eginen da.

Elizaide enpresari agindu zaizkio lanak, 33.362,07 eurotan (BEZrekin 38.700 euroa igotzen da gastua).



ARGAZKIA: UDALA

Kanpokaldetik ari dira berritzen Amaiurko Herriko Etxea.



ARGAZKIA: UDALA

Amaiurko kanalean lanean

Presak izokin eta amuarrainentzako oztopo direla iritzita, lanean ari dira Amaiurko Errotako kanalean. Arrainek trabarik izan ez dezaten eskala bat eginen da, presaren ezker aldean, eta horrekin batera, hornidura kanala irazgaiztuko da, uraren emaria bermatzeko. 167.513,29 euro gastako da eta Perez del Rio Excavaciones y Obras enpresak eginen du. Ordaindu, berriz, Nafarroako Gobernuak eginen du.



ARGAZKIAK: UDALA

759.423 euroko inbertsioa egin da Baztan frontoian

Hainbat berrikuntza egin dira Baztan frontoian. Estaldura eta aitzinaldea zaharberritu dira, 759.423,25 euroko inbertsioa eginez. Bertzeak bertze, sabaileihoak polikarbonatozko plakekin ordezkatu dira, eta isolamendu arazoak ere konpondu dira. Aldageletako ateak, eta Laxoa Plazatik frontoira sartzeko atea ere ordezkatu dira, errotulazioa berritu da, eta barrenetik, paretak, frontisa, armailak eta sabaia pintatu dira. Kantxan fresaketa egin da eta joku-zelaia markatu. Horiek eta bertze hainbertze lan egin dira eta itxuraberritua gelditu da frontoia.

Eskalerak igotzea... ez da oztopo
plataformak
igogailu bereziak
auki bereziak...

Behetik

Aforgo-txiki. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

A R I Z K U N B A Z T A N



BABES OFIZIALEKO ETXEA BAINO MERKEAGO
ESKATU INFORMAZIOA



Promociones
Lindutx Baztan, S.L.

Plaza Baztan Berni, nº 6 bajo
31700 Elizondo
Tel. 948 580 344
info@lindutx.com
www.lindutx.com



Hargibel Eraikuntzak, S.L.

ZUGARRAMURDI

OSPAKIZUNAK → III. SORGINAREN EGUNA

Oskorrik ikuskizun berria eskainiko du ekainaren 19ko Sorginaren Egunean

Goizetik gauera ekitaldiak izanen dira herrian barna

Koro eta Margari

Aurten hirugarren aldiz, Sorginaren Eguna ospatuko da ekainaren 19an.

EGITARAUA

- 11:00etan: argazki-rallyaren inaugurazioa Sorginaren Museoan.
- 11:30ean: I. Haur lpuin eta Marrazki Lehiaketaren sari banaketa Sorginaren Museoan.
- 12:00etan: Mikel Azurmendik 1610. urteko epaiketaren makurrak hitzaldia eskainiko du euskaraz.
- 13:00etan: Guardiako dantzariak.
- 15:00etan: Beñat Zintzo-Garmendiak XIV-

XVIII. mendeko Euskal Herriko sorginkeriaren historia solasaldia eskainiko du frantsesez.

• 16:00etan: galdutako sorginei deitzeko erri-tuala.

• 17:00etan: Ambrose Goikoetxeak Logroño-ko 1610eko epaiketa: gaur egungo garrantzia gizartean, ekonomian eta epailetzan hitzaldia emanen du gaztelaniaz.

• 18:00etan: antzerkia plazan: *Sorgin haizeak*.

• 20:00etan: Oskorriren kanta-dantzaldi ikuskizun berria, leizean.

• 21:30ean: *Akelarre* antzerkia, leizean.

• 22:00etan: *Sugarren erdin* ikuskizun eta dantza ikuskizuna.

Egun osoan, esku-langileen merkatua eta tarota izanen da karriketan eta argazki-rallyaren erakusketa Sorginaren Museoan.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Neska-mutikoak argazkilari

Akelarre Elkarteak antolatutako, haurren argazki-rally bat egin zen maiatzaren 29an. Haurrek gustura pasatu zuten goiza, beren argazki-kamarakin argazkiak ateratzen, baina antolatzaileen helburua bertze bat zen: herriko etxeen izenei buruzko hausnarketa bat egitea. Aitzineko egunetan eskolan horri buruz arituak ziren, eta ondotik argazkiak ateratzeko aitzakiarekin, berriz etxeei buruzko xehetasunak bilatu behar izan zituzten. Egin diren argazki hoberekin erakusketak antolatuko da Museoan, eta Sorginaren Egunean ikusgai izanen da.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

ETBkoak herrian barna

Maiatzaren 20an ETBko *Ipopumamua* programa Zugarramurdin grabatu zuten, eta eskolako haurren laguntza izan zuten.

MONTXO OSTATUA

Dantxarinetik 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • VRDZVBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

Zure laguntza eskertzeko, boltsa edo hau opari izanen duzu!

Ttipi-Ttapa
fundazioak
zure laguntza
behar du!

proiektu zenbakia:
15.996

SORGINAREN EGUNA

2010ko ekainak 19



TAROT . MIKEL AZURMENDI . LAGUARDIAKO DANTZARIAK . BENAT ZINTZO
GARMENDIA . ELS BRUIXOTS DELS PIRINEU . AMBROSE GOIKOETXEA
SORGIN HAIZEAK . OSKORRI . AKELARREA . SUGARREN ERDIN

www.turismozugarramurdi.com



Antolatzaileak: ZUGARRAMURDIO UDALA
AKELARRE ELKARTEA
SORGINEN MUSEOA

Konpainak: ttipi-ttapa



Laguntzaileak:



the grateful committee



cedena gaur

2012 ZUGARRAMURDI BAZKARAREN



SARA

HERRIKO ETXEA → AZPIEGITURAK

Portuako artisau eremuaren handitzea inauguratu dute

Lurraren erosteak eta lanak 320.669 euro kosta dira

Xan HARRIAGUE

Urteak iraun eta gero, maiatzaren 31n inauguratu zuten Portuako artisauen eremuaren bigarren zatia. Han izan ziren Jean Aniotzbehere lehengo auzapeza eta Jean Laborde gaur egungoa, lehenaren taldeak hasi baitzuen proiektua, eta bigarrenarenak finitu. Batimendu bakarrean bederatzi artisauek badute lekua eta beste batean beste batek.

GASTUAK

Lurraren erosteak eta lanak 320.669 euroko

kostea izan du, eta artisauei saldu zaie etekirik egin gabe. Gaur egun 16 enpresa badiara Portuako artisau eremuaren eta 45 langile.

Errugbi eskola Hernanin

Aurten ere Hernaniko Landare errugbi txapelketan parte hartu dute

Izarra taldeko txikienek. Minimek txapelketa irabazi zuten Azkainekokin. Benjaminak eskas ibili ziren eta xitoek gorabeherak izan zituzten.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ikastolako besta

Aurten ere arrakasta izan dute Olhain ikastolako bestan. Denbora ederra lagun ehunka lagun pasatu ziren bestatik.

URDAZUBI

HERRIKO ETXEA → AZPIEGITURAK

Dantxarineko uren araztegia hobetuko dute 1,3 milioi euro inbertituta

Horren inguruan hitzarmena sinatu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako kontseilari eta Nilsako presidente Amelia Salanuevak eta Frantziako

Euskal Herri Hegoaldeko Elkargoko burua den Michel Hiriartek Ainhoako ur araztegia hobetzeko hitzarmen bat sinatu zuten ekainaren 2an Urruñan. Araztegi horretan Dantxarineako bentetako hondakin urak arazten dituzte.

Obrak udazkenean hasi eta 17 hilabetez egingo dira, 2011 bukae-



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Hitzarmena sinatzeko egunean, Nafarroako eta Frantziako ordezkari politikoez gain, Santiago Villares alkatea ere bildu zen Urruñara.

rara arte iraunen dute, beraz. Aurrekontua 1,3 milioi eurokoa da baina lankidetzaprograma bat

denez, Europar Batasunak 845.000 euro partuko ditu. Gainerakoa, 455.000 euro, Nafarroako

Gobernuak eta estatu frantziarreko administrazioek finantzatu dute.

FLASH

San Pedroko bestak ekainaren 19an

San Pedroko bestak antolatu dituzte heldu den ekainaren 19an. Eguerditik aitzinera tortilla txapelketa egingen da San Pedroko aparkalekuan. Tortilla eramateaz gain, norberak sargarno eta arno botoila bat eraman behar du. Ondotik petanxa txapelketa antolatu dute, beti ere, San Pedroko aparkalekuan. Arratsaldean besta Maddi ostatura mugituko da, 18:00etan han egingen baita fandango txapelketa. Parte hartu nahi dutenek mozorroturik joan behar dute. Eguna finitzeko afaria izanen da hango ostatuan eta gero kontzertua Xutik taldearekin. Afariko txartelak Herriko Etxeko Edantegian salgai izanen dira ekainaren 10a arte, 15 eurotan.

HERRIKO ETXEA → LANGILE GEHIAGO UDAN

Herriko Etxeak langile berriak hartuko ditu uztailean eta agorrilan

Aintziran, zerbitzu teknikoetan eta aisialdi gunean ariko dira lanean

Franck DOLOSOR

Herriko saltzaileak eta ostalerrak bezala, hautetsiak ere uda presatzen ari dira. Herriko kontseiluko azken bilkuran udako langileen kopurua finkatu zuten. Aitzineko urteetan bezala, ez da bainu zaindaririk hartuko aintzira zaintzeko SDIS departamenduko suhiltzaileak arduratuko baitira hortaz. Herriak 20 000 euro ordaintzen ditu urtean zerbitzu hori segurtatua izan dadin. Haatik, ur kirol gunean animatzaile laguntzaile bat hartuko da. Orotarat, 12 gazte onplegatu dituzte pedaloez eta xirrix taz arduratzeko, sei uztailean eta berzte sei abuztuan. Herri-

ko zerbitzu teknikoak ere indartuak izanen dira sei gazte ariko baitira sail hortan. Aisialdi zentroan, udako 13 langile hartuko ditu aurten Herriko Etxeak.

Karrikako saihebidetza aitzina

Pirineo Atlantikoetako departamenduko Kontseilu Nagusiak Karrika Nagusiko saihebidetako lanak aitzineratu ditu. Ibarrun aldean den itzulbidea prest da jadanik eta orain, Urgurirat buruz doan bidea eta zubiari lotuko dira. Lehen zubi hori heldu den urteko udaberrian bururatu behar lukete. Orotarat, lanek lau urte luze iraunen dute. Kilometra eta berrehun metrako bideak zortzi miliun euroko gastua sortu du eta urte guziz bi miliun baizik ez ditu ordainduko departamenduak. Lau urteren buruan nola izanen ote da oraintxet estreinatuen itzulbidea?

Senpertar bat ohoratua

Jeanine Sein Afrikan bizi eta lan egiten duen Senpereko serora ohortua izan da berriki Amotzeko kaperan. Badira 37 urte Bolikostako jendea laguntzen duela. Sail hori eramateko herritarren laguntza du beti Jeaninek. Xehetasun gehiago ondoko TTIPI TTAPAN.

Amen besta

Maite zaitut, maite maite zaitut... Pirritx eta Porrotxen kantu ezaguna entzun ahal izan zen maiatzaren 29an ospatu zen amen besta kari. Hirugarren urtea da Herriko Etxeak amak omentzen dituela. Ama bakoi tzari arrosa bat emana izan zaio. Kantari ibili ziren gazteek baloinak prestatu zituzten eta den denak aire arazi zituzten amengan duten maitasuna erakusteko.

Bestaz besta

Maiatzeko azken aste-



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Ikastolako besta

Lehen Jaunartzea egin zuten goiko argazkian ageri diren neska-mutikoek maiatzaren 13an, eta *profession de foi* behean ageri direnek maiatzaren 30ean.

buruan aintzirako bestak iragan ziren laugarren aldikoz. Pentaka zoingehiagoka eta Jamixelen kantaldiarekin ondolik, 140 lagunek afaldu zuten elgarrekin. Ohiturari jarraikiz xerri ttiki erre dastatu zuten. Aipagarria da, aintzirako jende gutik parte hartzen duela auzoko besta hortan, bertze auzoetakoak etortzen baitira.

Erearoaren azken asteburuan Karrika Nagusiko gazteek hartuko dute lekukoa Jondoni Petri bestak ospatzeko. Ondotik ehunka ekitaldi iraganen da uda osoan. Uztailean 14an, selauru hustea egingen da gaztelu plazan. 28an, merkataria egingen gauaz eta agorrilan 11n artzain xakur txapelketa apailatua izanen da herriko kirol zelaian 17:30ean.



ttipi-ttapa

- Paperezko edizioa
- Hemeroteka
- Eguneko berriak
- Agenda
- Merkatu tikia
- Eguraldia
- Urtebetetiek...

www.ttipi.net

BURKAITZEA

• ostatu
• erretegia

Zuzenamurdiako bidua, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

HERRIKO ETXERIKO EDXNTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

Tl: 0559542519
Mozzen sira Wronique

SARA



Inaki Alzuyet margoak

Poliza dekoratiboa eta eskulana • Dekorazioa: bolinak, landarok
Fotografia • Berriztatzea
Lantzea eta berriztatzea: kateak • Plaketa
Herriko sira eguna: amantzeren gaitheak da

Tel.: 609 902 417 • Herriko etxea - Landibar Auzoa • 21711 URDAZUBI
ginturas.alzuyet@yahoo.es

SOULE

hileta artea

Tfnoa: 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN



EZKONTZAK

Beatriz Peri Ballarena eta **Paco Ribelles**, Zugarramurdikoa eta Caneteko, maiatzaren 22an, Zugarramurdin.
Mikel Mutuberria Santesteban eta **Aintzane Salaberri Telletxea**, Doneztebekoa eta Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 29an, Donezteben.
Sebastian Goienech eta **Valerie Labastie**, maiatzaren 22an, Saran.
Aitor Rodriguez Bodoi eta **Kathryn Ellen Guebrt**, Irungoa eta AEBetakoa, maiatzaren 8an.
Sergio Leite Oliveira eta **Oihane Perurena Zabaleta**, Portugal eta Leitza, maiatzaren 18an Leitza.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Iker Sarratea Aldaz, Auzakoa, maiatzaren 22an.
Eñaut Aranberri Apezetxea, Goizuetakoa, maiatzaren 24an.
Xalbat Amorena Beotegi, Sarakoa, maiatzaren 12an.
Xan Claude Manzano, Sarakoa, maiatzaren 17an.
Yoan Pereira de Lima, Sarakoa, maiatzaren 19an.
Eneritz Irazoki Portu, Igantzikoa, maiatzaren 16an.
Aitzuri Rebollo Zubillaga, Leitzakoa, maiatzaren 13an.
Anne Zubiri Lasarte, Leitzakoa, maiatzaren 26an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Raymond Guy Thomas, Sarakoa, maiatzaren 11n, 74 urte.
Jean-Marcel Etxeberri, Sarakoa, maiatzaren 19an, 84 urte.
Jose M^o Aleman Aleman, Iruritikoa, maiatzaren 19an, 81 urte.
Josefa Erasun Andiarrena, Gaztelukoa, maiatzaren 19an, 88 urte.
Francisco Iantzi Irigoien Pako Alan, Lesakakoa, maiatzaren 19an, 84 urte.
Alejandro Salas Romero, Berakoa, maiatzaren 23an, 77 urte.
Joxe Migel Irigoien Arandia Txarandaka, Berakoa, maiatzaren 23an, 77 urte.
M^o Rosario Magirena Goienetxe, Elizondokoa, maiatzaren 22an, 84 urte.
Felix Irurtzun Olaizola, Lesakakoa, maiatzaren 26an, 79 urte.
Severiano Matxiñena Iribarren, Urrozkoa, maiatzaren 24an, 42 urte.
Juan Miguel Alkasena Muru, Elizondokoa, maiatzaren 31n, 66 urte.
Jesus Migeltorena Sagardia, Doneztebekoa, maiatzaren 31n, 78 urte.
Romana Eskudero Ezkurra, Goizuetakoa, maiatzaren 31n, 90 urte.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
 Maldaerrekak S.L.
 Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
 IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
 ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
 SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
 SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
 Maldaerrekak S.L.
 Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
 FUNERARIA BAZTAN
 TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
 LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
 LESAKAKO TANATORIOA



Xebe
MATXIÑENA IRIBARREN

Urrozen, 2010eko maiatzaren 24n, 42 urte zituela

*Munoko magaletan jaio eta bizi
 han ibiltzen hitzen libre.*

*Nekazari fin eta
 lagun atsegin,
 eman diguken alaitasunagatik
 eskerrak aunitz, Xebe.*

HERRIKO HIRE LAGUN GUZTIAK

TRIALAK → IV. TRIAL ZIGZAG ETA 4X4 AUTO TRIALA

Berako motor eta Doneztebeko auto trialak egingen dira larunbat honetan

15:00etan hasiko da Doneztebeka eta 15:30ean Berakoa

TTIPI-TTAPA

Trialak gustuko dituztenek aukera ezinhobekak izanen dituzte larunbat honetan, ekainak 12, Beran eta Donezteben.

Alde batetik, motorra nahiago dutenentzat IV. Trial Zigzag triala egingen da Beran, Ibardinena. 15:30ean hasita,

zazpi eremu markatuko dituzte, eta motor-gidari bakoitzak hiru itzuli osatu beharko ditu.

Ibardingoa, Zona Norte deritzon txapelketarako baliagarria izanen da, eta bertzeak bertze, Asturias, Kantabria, Bizkaia, Gipuzkoa, Errioxa, Aragoi eta Nafarroako federazioek hartuko dute parte. Baita Espainiako TR2 txapeladuna den Miguel Angel Jimenez errioxarrak ere. Iparraldeko gidariak ere izanen dira. Triala bukatutakoan, bi-



ARGAZKIA: AITOR IRAZOKI

Trial Zigzag Bera taldeak antolatuta, laugarren aldiz egingen da Ibardingo motor triala.

nakako txapelketa egingen da, eta ondotik sari banaketa eta luntxa.

AUTO TRIALA DONEZTEBEN

Autoen harat-honatak nahiago dituztenek, berriz, Donezteben izanen dute hitzordua. Hirugarren urtez segidan,

4x4 autoen triala egingen da Pitti eskabazioak, Zoansa eta Arincarsampi Aragonek antolatuta. Larunbat honetan egingen da, 15:00etatik 20:00etara Aparran industrialdean.

Dena den, izen-emaitea 11:00etatik 13:00etara egin beharko da.

Trialaren ondotik, 20:00etan sari banaketa egingen da eta 22:00etan Santamaria jatetxean afaria izanen da. Joan nahi duenak Titi Ostatuan eman beharko du izena. Bestarekin segitzeko, 00:30etik 06:00etara gaupasa izanen da Santa Luzia plazan.

HERRI KIROLAK → BERRIOZARREN LEHENBIZIKO SAIOA

Larunbat honetan hasiko da Iparraldeko Joku Torneoaren 10. edizioa

Hiru jardunaldi jokatu dira heldu diren asteburuetan

TTIPI-TTAPA

Hamargarren edizioa hartuko duen Iparraldeko Joku Tornea larunbat honetan, ekainak 12, hasiko da. Liga sistema erabiliz, hiru jardunaldi jokatu dira: lehenbizikoa Berriozarren (19:30ean) egingen da, bigarrena ekainaren 19an Be-

telun (19:00etan) eta azkena Orbaizetan, ekainaren 27an (12:30ean).

Iparraldeko Jokuen barne zazpi kirol sartzen dira: txokor biltzea, ingude altxatzea, txinga eramatea, harri-jasotzea, lasto altxatzea, orga jorkoa eta lasterketa. Eta torneo honetan orgarena kenduta, gainerako guztietan izanen dira parte-hartzaileak. Guztien artean, eskualdekoak hauek izanen dira:

Txokor biltzen, Patxi Irazoki (Igantzi), Fer-

nando Etxegarai (Bera) eta Unai lantzi (Aniz) –lerro hauek idazterakoan, lantzi zalantzakoa zen–. **Ingudearekin**, Xabi Sein (Igantzi), Karlos Sein (Igantzi) eta Joakin Aioroa (Ituren). **Harri-jasotzen**, Josetxo Urrutia (Leitza) eta Xabier Ariztegi (Etxalar). **Lastoarekin**, Xabi Sein (Igantzi), Karlos Sein (Igantzi), Iñaki Bereau (Igantzi) eta Oskar Telletxea (Igantzi) –lerro hauek idazterakoan, Telletxea zalantzakoa zen–.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joakin Aioroa iturendarra ingudearekin ariko da.

Eta **txingekin** Josetxo Urrutia (Leitza), Migel Angel Sukuntza (Leitza)

eta Joseba Petrirena (Bera) –Petrirena zalantzakoa–.

Oraindik aunitzik ez, baina gero eta gehiago zabaltzen ari da kenpo-kai kirola gure eskualdean. Urdazubin eta Beran, erraterako, arte martzial tradizional hau ikasteko

aukera badago eta jendea erantzun ona ematen ari da. Izei Gillenea beratarra 11 urterekin hasi zen kenpo-kai ikasten, eta 17 urterekin, «engantxatua» omen dago.

Hainbat sari ere lortu ditu etxean nahiz kanpoan eta abuztuan, Japonian jokatu den Munduko Txapelketan ere parte hartuko du.

Izei GILLENEA | Berako kenpo kirolaria

«Kenpo-kai bertze arte martzialak baino konpletoagoa da»

G. PIKABEA | BERA

Futbolari edo pilotari izatea da gaur egungo gazte gehienen ametsa. Ez, ordea, guztiena. Eta Izei Gillenearena (Bera, 1993) ere ez. 17 urte beritan, kenpo-kai maite du beratarra, eta gure artean sobera aditzen ez den kirola izan arren, bera «engantxatua» dagoela aitortu digu.

Japoniako arte martzial tradizionala da kenpo-kai, eta Gillenearen irudiko, «konpletoa» da. Azaldu digunez, «bertze arte martzial batzuek jo edo lurrera bota bakarrik egiten dute, baina kenpo-kai-k denetarik du: medikuntza, defentsa pertsonala, borrokak, armak...».

Pilota eta futbola gustuko ez, eta herriko kiroldegian zerbait berezia eskaintzekoak zirelajakin zuenean, pentsatu zuen kenpo-kai probatzea. Eta probatu eta gustatu. 11 urterekin hasi zen, eta orain, gero eta gusturago omen dabil. Kirol honek batez ere zer gusatzzen zaion ere galde-tu diogu beratarri, eta «filosofia» erantzun digu: «bertzeekiko errespetua du eta disziplina ere bai», dio.

Kenpo-kain daramatzan sei urteotan, hainbat garaipen eskuratu

ditu gazteak. Eta tartean, 2009ko urrian Espainiako Kenpo Txapelketan jubencil mailan lortutako hirugarren postua. Horrez gain, 2010eko martxoan, Oiartzunen jokaturako Gipuzkoako Txapelketan hirugarren gelditu zen *erakusketen* atalean. Eskoriatzan jokatu zen Euskadiko txapelketan, berriz, lehenbiziko eta bigarren postuak eskuratu zituen: lehenbizikoa *semikontaktuan* eta *katan*, eta *defentsa pertsonalean* bigarrena. Eta maiatzaren 8an Urdazubin jokaturako Nafarroako Lehenbiziko Txapelketan, lehena izan zen *semikontaktuan* eta *erakusketan*; eta bigarrena *kata* eta *al punto* delakoan. Izan ere, kenpo-kairen barne hainbat atal daude. Hala nola, *kata* –forma–, *defentsa pertsonala* –hainbat modutan erasotu eta norberak defendatu egin behar du–, eta *kumitea*.

ENTRENAMENDUAK
«Astean bi aldiz helduekin egiten ditugu entrenamenduak, ordu bateko saioak astelehen eta asteazkenetan, eta ttikiakin larunbatetan bi orduko saioak»

Azken honen barrenean, *semikontaktua* –osagarri guztiekin–, *kontaktua* –petorik gabe eta hanketan ere jo daitekeenean– eta *al punto* –ukituz, indartsu jo gabe– bereiz daitezke.

Kenporako duen afizioa familiari ere transmititu dio Gilleneak. Koro ama berekin batera hasi zen kenpo-kain, baina hauen ondotik, arreba ere animatu da. Gaur egun, osaba-izebak ere baditu kirol hau egiten dutenak.

GUSTUKOENA, KENPO-KAI

Berako Toki Ona Institutuan egiten ari den Erdi Mailako Lanbide Heziketako ikasketekin tartekatzen ditu Gilleneak entrenamenduak. Ikasketekin «ongi» dabilela erran digu, baina ederki daki beratarra zer den benetan gusatzzen zaiona: «kenpo nahiago dut».

Astean hirutan egiten ditu entrenamenduak: «astean bi aldiz helduekin, ordu bateko saioak astelehen eta asteazkenetan, eta ttikiakin larunbatetan bi orduko saioak». Berako kiroldegian aritzen dira. Baina orain prestakuntza gogorragoan egiten dihardu. Abuztuan –Berako bestetan–, Japoniara joatekoa baita



UTZITAKO ARGAZKIA

Izei Gilleneak hainbat garaipen eskuratu ditu kenpon.

Munduko Txapelketajokatzerara. Hango maila «hagitz altua» den aldetik, ez du saririk lortzeko itxaropen haundirik, baina harat joate hutsa beretzat «garrantzitsua» delala kontatu digu.

Beharbada, aurten ez, baina egunen batean, bere ametsa egi bihurtzea lortuko du: «Munduko Txapelketa irabaztea». Horixe baita Gillenearen benetako ametsa.

SOKATIRA → NAFARROAKO GOMA GAINEKO TXAPELKETA

Lauko Sokatira Txapelketako lau txapel lortu dituzte Amaiurrek eta Basaburuak

Bi bigarren postu eta hirugarren bat ere lortu dituzte eskualdeko taldeek

TTIPI-TTAPA

Fin ibili dira baztandarrak aurtengo Nafarroako Goma Gaineke Lauko Sokatira Txapelketan, jokoan ziren lau txapeletatik laurak eskuratu baitituzte. Maiatzaren 29an jokatu zen azken jardunaldia Jauntsarasen eta orduan banatu ziren sariak.

Gizonetzkoetan, 320 kilokoen kategorian,



ARGAZKIA: LEGARRA

Amaiurko taldeetako kirolariak emaitza ezinhobeak lortu dituzte Goma Gaineke Lauko Sokatira Txapelketan. Argazkian batzuk txapela buruan eta bertzeak trofeoarekin.

Amaiur gelditu zen txapeldun eta **Ttuku-Ttuku** –Amaiurko tal-

dea hau ere– bigarren. Txantrea, Imotz eta Basaburuak gelditu ziren

ondotik, sailkapenean hurrenez hurren. Emakumezkoetan, 255

kilokoen mailan ere, **Amaiur** atera zen garaille, eta Lesakako **Beti Gazte** bigarren gelditu zen. Sakana, Berriozar eta Basaburuak Imotzek osatu zuten sailkapena.

21 urte artekoetan, 320 kilokoan, **Baztango Basaburuak** atera zen txapeldun, eta **Amaiurko** taldea hirugarren gelditu zen. Txantreako taldea, berri, bigarrena izan zen.

Kadeteen kategorian ere **Baztango Basaburuak** izan zen jaun eta jabe. Etxarri Arantzeko Andra Mari gelditu zen sailkapenean bigarren, eta Txantrea hirugarren.

SASKIBALOIA → IGOERA LORTU DUTE

Bigarren urtez mailaz igotzea lortu du Toki-Ona Bortziriak taldeak

Lauko finalean, finalerdia irabazi eta finala galdu arren, kategoriatan bat goitiago ariko da

urren urtez segidan mailaz igotzea lortu du.

Maiatzaren 23-24ko asteburuan, Nafarroako seniorren lehen mailako lau finala jokatu zuten Noaingo kiroldegian. Finalera sailkatzen ziren biek lortzekoa zuten igoera.

Larunbateko saioan, etxeko taldearen kontra jokatu zuen Toki-Ona Bortziriak taldeak eta gaitzen hasi bazen ere, azkenean markagailua-



UTZITAKO ARGAZKIA

Jesus Alacid beratarren eta Imanol Etxeberria lesakarraren aginduetara honako jokalariek aritu dira denboraldi historiko honetan: Ion Irazoki Martikorena (Bera), Francisco Telletxea Otxoteko (Lesaka), Ignacio Delgado Ibarra (Irun), Imanol Etxeberria Garcia (Lesaka), Mikel Irazoki Belarra (Bera), Unai Bango Elizalde (Doneztebe), Iker Juarez Iraola (Bera), Borja Ezeizabarrena Bergaretxe (Irun), Unai Matas Susperregi (Irun) eta Unai Alacid Ortego (Bera).

ri buelta eman eta irabazi egin zuen: Toki-Ona Bortziriak 81 – Asador Maya Noain 70

Larunbatean helburu nagusia lortuta, igan-

dean ligako txapeldun izateko partida jokatu zuten AD San Juanek eta Toki-Ona Bortziriak. Ez zen ezusterik izan eta San Juanekoek 87-

54 irabazi zioten Bera-ko taldeari. Halere, ligako txapeldunorde izatearekin eta igoerarekin, aski gustura gelditu dira Bortziriak.

TTIPI-TTAPA | BERA

Gelditu gabe ari da lanean Berako Toki-Ona Bortziriak saskibaloitaldeak, eta egindakoak emaitza ekarri du: biga-

ekainak 10 - 23

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Kontzertuak**

ELIZONDO | 2010.06.12

Seiren taldearen folk-rock doinuak Lur dantzalekuan


Denboraldiko azken kontzertua izanen da Lur dantzalekuan Seiren folk-rock taldearen eskutik. Sarrerak aitzinetik 8 eurotan eta bertan 10 eurotan.

Bestak

ALTZATE (BERA) | 2010.06.18/20

Altzateko bestak ekitaldiz beteak datoz

Ekainaren 18tik 20rako asteburuari ospatuko dira Altzateko bestak. Ortziral arratsean txupinazioa, larunbatean auzo bazkaria eta egitarau zabala izanen dute.

Erakusketak

ELIZONDO | 2010.06.23/07.17

Diana Iniestaren «Enredando sombras» Arizkunenean

Diana Iniestaren margo, marrazki eta argazkiak biltzen ditu *Enredando sombras* erakusketak. Arizkunenean ikusgai izanen da uztailaren 17ra arte.

SALDIAS**Sanjuan bestak**

Ekainaren 23tik 27ra Sanjuan bestak. Xehetasunak 42. orrian.

Antzerkiak**LESAKA****Irain eskolako 5.****mailakoen emanaldiak**

Ekainaren 11n Irain eskolako 5. mailakoen antzerki taldeak *Markesaren alaba* antzezlanaren eskainiko du Irain eskolako gimnasioan.

Kontzertuak**BERA****Giltzarri Abesbatza Kultur Etxean**

Ekainaren 12an kontzertua eskainiko du Giltzarri Abesbatzak Kultur Etxean 20:30ean.

Piano entzunaldia

Ekainaren 15ean piano entzunaldia eskainiko du Javier Perez de Azpeitiak Kultur Etxean 19:00etan.

Helduen entzunaldia

Ekainaren 16an Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako helduek entzunaldia eskainiko dute Musika Eskolan 19:30ean.

ELIZONDO**Seiren taldea Lur dantzalekuan**

Ekainaren 12an Lur dantzalekuko hondar kontzertua eskainiko du Seiren taldeak 00:30etik aitzinera. Sarrerak aitzinetik 8 euro eta bertan 10 eurotan.

Lehiaketak**BAZTAN****Bertan elkartaren II. Argazki lehiaketa**

Ekainaren 30a arte

Erakusketak**ELIZONDO****Iparretik hegoaldera erakusketa**

Maiatzaren 24tik ekainaren 21era grabatu, pintura eta eskultura erakusketa ikusgai Arizkunenean.

Pedalkadak**iraunkortasunerantz**

Maiatzaren 31tik ekainaren 13ra erakusketa ikusgai Arizkunenean.

Enredando sombras erakusketa

Ekainaren 23tik uztailaren 17ra Diana Iniestaren *Enredando sombras* margo, marrazki eta argazki erakusketa Arizkunenean.

Ospakizunak**ZUGARRAMURDI****III. Sorginaren Eguna**

Ekainaren 19an hainbat ekitaldi antolatuko dira. Xehetasunak 54. orrian.

LEITZA**II. Sagardo Eguna**

Ekainaren 12an 16 bat sagardo dastatze-

ko aukera izanen da pkazan, 19:00etatik aurrera.

ELIZONDO**Remember Besta denboraldia akitzeko**

Ekainaren 19an denboraldi bukaera ospatuko du Lur dantzalekuak, Remember Bestarekin. 01:00etatik 02:00etara sarrera doan izanen da eta 02:00etatik aitzinera, 9 eurotan eta kontsumizio bat dohainik 03:30 arte.

Solasaldiak**LEITZA****Jakoba Errekondo sagarraz eta sagastiaz**

Ekainaren 11n sagarraz eta sagastietaz hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondok 20:00etan.

ARIZKUN**Idazleekin solasean**

Ekainaren 10ean Uxue Alberdi idazleak solasaldia eskainiko du Arizkongo Elkartean 20:00etan, *Idazleekin*

solasean ekimenaren barnean.

Bestak**BERA****Altzateko bestak**

Ekainaren 18tik 20ra Alzate auzoko bestak egingen dira.

ARIZKUN**Sanjuan bestak**

Ekainaren 23tik 26ra Sanjuan bestak. Xehetasun gehiago erdiko gehigarrian aurkituko dituzue.

PROPOSAMENA**ZUGARRAMURDI****Sorginaren Eguna hirugarren edizioa**

Ekainaren 19an ospatuko da III. Sorginaren Eguna Zugarramurdi. Goizean argazki rallya, ipuin eta marrazki lehiaketaren sari banaketa, egun osoan solasaldiak eta arratsaldean antzerkia izanen dira. Eguna borobiltzeko, Oskorriren kanta-dantzaldi ikuskizuna, Ake-larre antzerkia eta Sugarren erdin ikusentzun eta dantza ikuskizuna izanen dira leizean.



aurkezten ahal dira Bertan merkatarien elkartek antolatutako *Baztango ingurumena eta paisaiak, herriak eta herritarrak* gaiari buruzko argazki lehiaketarako lanak. Xehetasunak 49. orrian.

Elizondoko bestetako kartel lehiaketa

Ekainaren 22ra arte aurkezten ahal dira Elizondoko Santio bestetako kartel lehiaketarako lanak Herriko Etxeko buzoian (korreoz ekainaren 17a baino lehen igorri behar dira).

LEITZA

Merkatariak logotipo bila

Ekainaren 15a arte aurkezten ahal dira Kaxkabeltza merkatarri, tailer eta tabernariaren elkartek logoa aukeratzeko deitu duen lehiaketarako lanak Maimur eta Astiz liburu-dendetan..

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Lesakako Itzulira

Ekainaren 13an Lesakako Itzulian hartuko dute parte Baztango Mendigoizaleek.

Baztan herriz herri

Ekainaren 20an

Baztan herriz-herri ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

LESAKA


Lesakako Itzulia

Ekainaren 13an Lesakako X. Itzulia antolatu du Beti Gaztek. 34 eta 25 kilometroko ibilbideak aukeran.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Tigreak hondartzan

MARIBEL AIERTZA

Elkar, 2010

Animaliek txiki-txikitatik txunditu zuten Ander, hezur-haragizkoek nahiz irudimenezkoek: herriko hondartzan bisitari arrotz batek eginiko hareazko tigrefamiliak edota aitona kontatutako Arnoko tigrearen istorioak. Ezbeharrak edota patuak zirku-bizimodura eraman zuten umetan, jaiotzetik eta etxekeogandik urrun. Amak, hil aurretik, bere bizitzaren benetako historia gutun batean idatzita utziko dio Ninori.

Maribel Aiertza Rementeria (Etxebarria, 1962) Berriatun bizi da. *Lertxundi euskaradun arte unibertsala* saiakera-liburua idatzi eta argitaratu zuen Mikel Lertxundi eskultorearekin elkarlanean (1988), eta Berriatuko Urepel herri aldizkaria sortu eta gidatu zuen (2001-2008). Gaur egun kolaboratzaile dihardu ikas-liburugintzan, Giltza argitaletxean. Idazle Eskolako ikasle izandakoak Luma Berrien Eleak aldizkarian eta Gara egunkariko Mugalari gehigarrian zenbait narrazio argitaratu ondoren, hauxe da argitaratzen duen lehen eleberria.

Musika



Paradisu sekretuak

U.K. BILL

Añorguetto, 2009

U.K. Bill 2005ean sortu zen, Utikan, Asgarth eta Lauroba taldeetako jendea bilduz. Estreinak diskoa (U.K. Bill) 2007an plazaratu zuten Añorghetto ziguilaren bitartez. «Añorghetto Records-ek askatasuna ematen digu sudur puntan jartzen zai-guna egiteko», diote taldekidek. Eta honela segitzen du U.K. Bill taldeak eta *Paradisu sekretuak* da bere bigarren diska. Hamahiru kantu berrik osatzen dute lana, non rock kutsuko giroak nagusitzen diren. Gitarra bizi eta hitz zorrotzez betetako pasarteak, zati lasai eta melodikoagoekin uztartzen dira. Joan den hilabetean Arantzako Aterpen egin zuten diskaren aurkezpena, hainbat kontzertu ematen ari baitira UKbiraren barrenean. Rafa Kabezak (ahotsa, gitarra), Oier Txoperenak (gitarra), Iker Laurobak (baxua) eta Unai Korralek (bateria) osatzen dute. Diska Añorguetto estudioan grabatu bazuten ere, Berako Mik Estudioan nahastu zuten, Maikelen laguntzarekin.

Internet



Ipuinak aditzeko webgunea

ETXEGIROAN.COM

Ordenagailu bidez ipuinak aditzeko aukera ematen du www.etxegiroan.com webgunea. Helduak nahiz gazte eta umendako ipuinak entzuten ahal dira euskaraz, baita gaztelerako helduentzat ere. Aurkezpenean diotenez, «mimo eta maitasun handia darien lanak egiten dituzte etxeke estudioan». Narrazio laburrak, poemak, liburu pasarteak eta haurrentzako ipuinak grabatu eta editatzen dituzte, musikaz batera. «Gure gustuko testua aukeratu, mamurtu eta hots bihurtu. Ondoren, ipuina musikatuz, ahotsa emeki 'labekatu' eta hori guztia zuen bihotz-belarrien gozamenarako gauza bilakatu». Honela laburbiltzen dute bere lana Maria Uriartek, Osoiz Elkorobarrutiak eta Tomas soinu-teknikariak. Helduentzako eta haurrentzako ehun grabazio baino gehiago zintzilatu dituzte, eta hileroko eduki berriekin hornituko dute.

Nire aukera



Juanjo ATXA
Elizondoko irakaslea

«Mendian ibiliz eta trinketean pilotan arras gustura aritzen naiz»

Ikastolan eta Txaruta Pilota Eskolan irakasle da Juanjo eta horrek ez dio denbora libre gehiegirik uzten. Gehiengorik, asteburuak ere frontoian sartuak ematen ditu. Eta pilota eta bertzelako 'konpromisorik' ez duenean zer? «Mendian ibili batez ere, zakurrarekin, semearekin, lagunekin... Trinketean ere aritzen naiz arras gustura ia astero, lagunekin musean aritzea, emaztearekin zinea ikustea, irakurtzea, kirol batzuk batez ere telebistan ikustea...». Astebururako txoko kuttuna ere badu Atxak: «Aritzakunen asteburua pasatzea gustatzen zait, hango bazterretan ibili, gozatu, batez ere Itsusira, lagun edo familiarrekin bazkari eder bat egin, han jatorduak hobek izaten dira». Oporretan Baztan eta Euskal Herrian barna ibili ohi bada ere, gustatuko litzaiok munduko bertze leku eta paraje batzuk ezagutzea, «historia asko daukatenak, edo bertzelako leku zoragarriak eta aukera ttipiarena izan dudanean, guttitan, egin izan dut».

ETXEBIZITZAK
salgai

DONEZTEBE. Zazpigarutze plazan 115 m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatua gabea. ☎630 948271.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

IRUN. Hiri erdian, Colon aparkalekutik hurbil, etxebizitza salgai. 2 logela, egongela eta sukaldea eta bainugela hornituak. Igo-gailu berria eta berogailua. ☎637 559152.

LEITZA. 83 m²ko pisua salgai. Eguzkitsua. Negoziazarria. ☎948 625212/652 730155.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. Eguzkieder kalean -tailer ingurura-, 2. eskuko kalefakziodun pisua salgai. 3 logela, bainugela, egongela eta trastelekua. 27.000.000 pza (163.000 euro). Garajea aukeran. ☎650 264156.

ELGORRIAGA. Etxebizitza salgai. 3 solairu eta lorategiarekin. Oso eguzkitsua. Egoera onean etaleku lasaian. ☎609 701035.

BERA. Agerra auzoan pisua salgai. Eguzkitsua eta bista onekin. Gas naturala eta kalefazioa. Sartze-ko prest. ☎948 630485 (eguerdi eta arratsalde).

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ELIZONDO. Maurizio eta Felix plazan Babes Ofizialeko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, trastelekua eta garaje plaza ditu. Eguzkitsua eta mobleztatua. Prezioa: 21.300.000 Pta (128.000 euro). ☎616 510624 / 676 760206.

BERA. 80 m²ko pisua salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea, egongela eta trastelekua. Berritua. Gas naturala eta berogailua. ☎657 715243.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

IRUÑA. Pisua errentan emateko. Nafarroako Unibertsitate Publikotik 5 minutura. 3 logela lau laguntzat. ☎630 045413.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela haundia. Gela guztiak kanpora ematen dute. ☎699 798207.

BERA. Pisua errentan

emateko. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. Gela guztiak kanpora ematen dute. Igo-gailuarekin. ☎608 586239 (arratsalde eta gauetz).

UHARTE (Iruña). Apartamentua errentan emateko. Mobleztatua eta estreinatua gabea. ☎650 599085 (arratsalde).

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

LESAKA. 80 m²ko lokal komertziala salgai. Bittiria karrikan, Aliprox ondoan. ☎617 936622.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan eman

BERA. Telefonicarean ondoan, garajea errentan emateko. ☎687 950368.

ZERBITZUAK
denetarik

Apiterapia erlauntzako produktuak erabiltzen dituen terapia da. Gaitz

askotarako erabilia: artrosia, artritis, ziatika, gerrimina, diska etendura... ☎649 531070.

LANA
eskaintzak

Frantsesa dakien 34 urteko mutil bat asteburuetan ostalaritzan edo bertze lanetan ariko litzateke. ☎677 687558 (16:00-etatik aitzinera deitu).

Mutil gazte bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎638 767153.

Emakume bat josten, haurrak zaintzen edo etxeak garbitzen ariko litzateke. ☎618 916556.

Neska bat asteburuetan lanean ariko litzateke. ☎620 196246.

LANA
eskariak

BERA. Jatetxe batean asteburuetan sukaldean ari zeko persona arduratsua

eta gogotsua behar da. Esperientzia pixka batekin. ☎654 385363.

BERA. Errekalde ostatuan egunero lan egiteko sukaldea eta asteburuetarako zerbitzaria behar dira. ☎948 630259.

ETXALAR. Herriko Ostatuan jatetxerako zerbitzari euskalduna behar da. ☎948 635450.

MOTORRAK
salgai

Ford C-max TDCI salgai. 115 CV. 2009koa eta 2012rako garantiarekin. 17.000 km. Klimatizagailua, bluetooth, MP3, iso-fix, kristal beltzak, argi eta euri sentsoreak, abiaduraren kontrola, karroaren -tzako bola. Egoera ezin hobean. Prezioa: 15.000 euro, transferentzia barne. ☎699 634554.



Gas-gas hp wild 300 quad salgai. 2005ekoa. Traje osoa dohainik: botak, gal-tzak, kamiseta, eskularruak, kaskoa eta betaurrekoak. Prezioa: 1.950 euro. ☎619 556948.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(maiatzaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 42,00 € (=)

Zerri gizena
1,180 € kilo. (+0,032)

Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (+0,032)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,83 (=)

1.koa 3,53 (=)

2.koa 2,96 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 3,93 (=)

1.koa 3,63 (=)

2.koa 3,13 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,70/2,80
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,60/6,20
8-10 kilokoak: 4,50/4,80

MOTORRAK
tailerrak

Artzain **zakurkume** alemaniarrek salgai. ☎680 351417.

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

Ahari **mutur gorria** salgai, adarrak gabeak. ☎610 092345.

Basurde ehizarako **lau zakurkume** salgai. Hila-bete batekoak. ☎686 635304.

DENETARIK
salerosketak

DONAMARIA. Feroli gasoliozko berogailua salgai, egoera onean eta gutxi erabilia. ☎618 962777.



Bigarren eskuko **inber-**

naderoa erosiko nuke. ☎679 609615.

Behien **txuleta zintak** eta **solomilloak** salgai. Oso haragi ona eta prezio onean. ☎659 751411.

2,90 metroko luzera duten 255 **arkazi pikete** salgai. Ederrak. ☎948 634120.

Kanpin karroa salgai. Imaz-Puma 3 markakoa. Egoera onean, gutxi erabilia. Bi logela (1,35ko zabalera) eta beste bat (1,20koa) logela/jantokia izan daitekeena, mahaia eta bankuekin. Lau pertsona eroso egoteko modua. Aurreko gela bat ere (abantzea) lortzen ahal zaio (3,90x1,20). Muntatzeko erraza. Karroa fibrazkoa. 550 euro. ☎635 477949.

Neska gazteak baratzean aritzeko gogoarekin **erreminta bila** dabilta. Sobran badituzu eta birziklatzeko intentzioarekin bazabiltza, deitu zenba-

SANTESTEBAN Tailerrak

MEHANE GRAN TOUR BUSINESS 1.600 11CV
2007koa - 44.000 km

TRAFFIC & PLAZANOA 1.900 11CV
2007koa - 44.000 km

TRAFFIC & PLAZANOA 2.000 11CV
2008koa - 58.000 km

ETA GAINERA
Kargoa Espiral Gerdutza: 1.900 CV
F1 Espiral Gerdutza: 2.800 125 CV
Olinco Rura 1.900 CV
Olinco Rura 1.900 CV
Kargoa 40A Extreme 1.500 85 CV

LAPUNA B AUTHENTICQUE 1.900 11CV
2007koa - 44.000 km

DONEZTEBENKO RENAULT-en KOTXE IA BERRIETAN SEKULAKO ESKAINTZAK

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurretikontuak konpromisoarik gabe

José Miguel Ciradines
Tel. 948 634 068 - 647 819 144
Gertubertze - ARANTZA

Egintzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
proiektu zenbakia:
15.996

ANIMALIAK
salerosketak

Monturako **lau behor** salgai. Hauetako bat umearekin eta bertzea karroak tiratzeko hezia. ☎690 722683.

ki hauetako batera. ☎652 708901 edo 667 218632.

Belar idorren boloak

salgai. ☎660 393436.

Antigualeko altzariak salgai. ☎948 637930.

Lasao
egurrezko altzaria

Lasao Ind. - 20730 AZPEITIA • T. 943 15 11 82 • F. 943 15 10 98
informacion@lasao.com • www.lasao.com

Altzari bereziak, fabrikatik zuzenean, bitartekorik gabe



%50
beherapena
koltxoi ekologikoan

"Nafarroan estimatzen den altzaria"


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Ettxalarko **MANEX DANBORIENAK** ekainaren 6an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



MARTXEL LARRALDEK 8 urte bete ditu ekainaren 4an. Zorionak Lesakako familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.



EKAITZ LOIARTE OTXANDORENA Zubietako gure mutikukak 2 urte bete ditu ekainaren 6an. Aunitz urtez! Familia eta batez ere Iker, Naroa, Garazi eta Uxue.



ANE BARRICART CIAK urtea bete du maiatzaren 28an. Zorionak zure familiaren partetik.



Amatxi **MARGARIK** urteak beteko ditu ekainaren 17an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Sunbillako **KONSUELO IRIARTE IBARRAK** ekainaren 2an urteak bete ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, baina berexiki Iraide eta Garaineren partetik. Lerdea dariozula zaude... Muxuk!



AMAIUR eta AINITZE MARTINEZ OLAZABAL gure bi xaladek 2 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Zorionak eta bi muxu pottolo bakoitzarenetzat lgantzitik, osaba Josu eta izeba Moñiren partetik. Segi hain eroak eta makarrak izaten! Katxupower...



Lesakako **AMAIUR eta AINITZEK** 2 urte beteko dituzte ekainaren 16an. Alaba maiteak, mila esker gure egunsentia alaitzeagatik. Zuen irriak entzunda bizia errazagoa bihurtu zaigu. Zorionak eta muxu goxo bana. Attatto eta amatto.



XABIER AGUSTINO JAUREGIK 11 urte beteko ditu ekainaren 18-an. Zorionak Ezkurrako amatxi, lehengusua eta bereziki Julenen partetik.



XABIER AGUSTINO JAUREGIK 11 urte beteko ditu ekainaren 18-an. Zorionak aita, ama eta Maiderren partetik. Muxu haundi bat.



Gure aitaxi **AURELIANO AMESTOY IRISARRIK** ekainaren 15ean urteak beteko ditu. Ettxalar eta Iparraldeko familiaren partetik zorionak. Muxu bat!



Urdazubiko **ASUNCION** amatxiri aunitz urtez maiatzaren 19ko partez! 89 muxu haundi Pabloren partetik.



NAHIA eta EKAIN TELLETXEAK 2 urte beteko dituzte ekainaren 21ean. Zorionak bixito pareta eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik.




Donamariako **NAHIA eta EKAIN TELLETXEA ODRIEZOLAK** ekainaren 21ean 2 urte beteko dituzte. Zorionak gure bixki politei! Muxu pila Lesakako izeba-osabaren partetik.



MIKEL eta ELUSKA lehengusuek ekainaren 2an eta 17an uteak beteko dituzte. Zorionak gure bi xalxeruei eta ongi pasa!!!!



Mi! Espero dugu zure despedidan ongi pasatu izana, muxuak prexiok. Zigako nexkak.



ONITAZ eta JUDITH MARIKZKURRENA leitzarrek 14 eta 28 urte beteko dituzte ekainaren 9 eta 10ean. Zorionak eta zimurtzi bana zuen printzesaren partetik.



NAIARA MARTIN GOIA lesakarrak 13 urte beteko ditu ekainaren 17an. Zorionak eta muxu aunitz wapisima!



OLAIAK ekainaren 26an urtea beteko du. Aunitz urtez gure printzesari eta mila muxu pottolo Kaxkarra guztiaren partetik.



JANIRE MINDEGIA ETXEPARE auriztarrak ekainaren 18an 9 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako osaba-izeben partetik Aurtizko printzeari.



UXUE eta AIMAR LEKUONA lehengusuek ekainaren 7an eta 10ean 2 eta 10 urte beteko dituzte. Muxu pila bat! Amabxo eta aitaixo.

Eskatu informazioa **150€**

EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre
Zuk nahi dituzun bezala pertsonalizatuak

Anduetzeta, 12 | ETXALAR | T. 948 635 458 | kulturkari@ttipi.net | www.kulturkari.com

TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!



DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

ZOKKETAK

t tipi txarteldun guztien artean
zozketatuko dira sari hauek



**JERTSE 1
ONDDO
TA PUNTO**
www.onddotapunto.com



**LOTEA
KALOTXA (BERA)
OPARIAK ETA
OSAGARRIAK**

ZORIONAK

* Hilabete bakoeko epea sariak bitzeko



**2 SARRERA
DONOSTIAKO
AQUARIUMA**



**LOTEA
MARTIKO**
www.martiko.com



**2 LIBURU
IBAIZABAL**
www.ibaizabal.com



**2 SARRERA
ARTIC
IZOTZ JAUREGIRA**
www.hieloartic.com

DESKONTUAK

OSTIZ
%10 konponkeretan

nafarpress
%10 liburu eta ikas materialen
testu liburuak eta bidetxoak ezik

JUAN J. PIKABEA
%10 galtza marka batzutan ezik

L
%10 matrikulen

SANSIÑENA
CITROËN
%10 olio aldaketetan



NAFAR MENDI
merkatalgunea
Arraioz | Baztan

NAFAR MENDI / **HIPERSIMPLY**

HIPERMERKATUA

edantokia pintxoekin, jatetxea, dendarak,
txiki-park eta gainera:

Lekuko GASOLINARIK MERKEENAKI!

AUTO GARBITZAILEA

**PREZIO
HARRIGARRIAK**

Nafarroa Mendialdeko merkatalgune berria: **MUNDU BERRI BAT
LASTER ZABALIK, ONGI ETORRI BEROENA DENERI ZATOZTE!!**